


# Hezkuntza Sistema Publiko Burujaberantz

EH Bilduren  
hezkuntza  
proposamena



ehbildu

- I. Sar hitza
- II. Gure hezkuntza sistemei begirada bat
- III. Hego Euskal Herrirako helburu estrategiko berriua: Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabea

EAE

- 1. Euskal Autonomia Erkidegorako trantsizio proposamena:  
Hezigune, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Bateratua
  - 1.1 Eranskina: Hizkuntza ikasteredu orokortua
  - 1.2 Eranskina: Segregazioa(k) hezkuntzan

Nafarroa Garaia

- 1. Sarrera. Kontestualizazioa
  - 2. Nafarroa Garaiko Hezkuntza Sistema. Egoeraren azterketa
  - 3. Proposamenerako oinarriak
  - 4. Amaia
- IV. Azken hitza

# I. Sar hitza

---

Euskal hezkuntza geldialdian dago. Azken hamarraldietan, era askotako herri ekimenari zein profesional askoren lanari esker neurri handian, Euskal Herriaren hezkuntza erronkei erantzun bazaie ere, egun ez gara gure hezkuntza sistemaren eraikuntza prozesuan aurrerapausorik eman eta garai berrietara egokitzen ari.

Nazio begirada zabal batetik hauxe esan dezakegu: Euskararen ezagutzaren unibertsalizazioaren bidean lan asko egin bada ere, atzeraldi larri baten aurrean gaude; euskal kulturaren transmisioan inoizko emaitzarik txarrenak ditugu eta euskararen unibertsalizazioari ekin ezinik gabiltza; ipar Euskal Herrian murgiltze ereduaren kontrako erasoak eta zentralizazio prozesuak pairatzen ari gara; Nafarroan, inklusioaren izenean, euskaraz ikasteko oztopoak areagotzen ari dira; Euskal Autonomia Erkidegoan geroz eta nabariagoa da sistemaren agorpena, aukera berdintasun eta ekitate falta, besteak beste.

Honi guztiari gure hezkuntzaren gainean dugun erabakitze eskubidearen ukazioa gehitu behar diogu. Euskal Herrian ez dugu hezkuntza sistema propiorik. Ondorioz, ez dugu geurea den hezkuntza eredurik ere. Espainiar zein frantziar estatuek euren neurriko hezkuntza eredu eta sistemak inposatzen dizkigute. Sistema hauek eredu neoliberal, patriarkal eta asimilatzailea dute oinarrian. Hori horrela izanik ere, ezin diogu eraikuntza klabeetan jarraitzeari utzi.

Bizi dugun errealitateak honako ondoriora garamatza: egungo hezkuntza sistemak agortu egin dira. Ez dira kapaz herri gisa ditugun erronkei erantzuteko, ezta ere, erkidego bakoitzak duen errealitatea aintzat harturik, aurrera begirako kalitatezko hezkuntza berrikuntza garatzeko. Etenaldian gaude, agorpen egoeran.

Egoera honetan, badira bi faktore denbora laburrean kolapsora eramango gaituztenak sakoneko erreformei ekiten ez badiegu: Jaiotza tasaren beherakada da lehena. Aurreikuspenak beldurgarriak ziren pandemia aurretik eta are beltza-goak dira pandemiaren eraginez. Klase eta jatorriagatiko segregazioa da bigarren faktorea, migrazio fluxuen areagotzearen aurrean nabarmen okerrera egingo duena.

Halaber, hezkuntzak ardatza behar du egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren berreskurapen prozesuan, be-launaldi berriek hizkuntza gutxituan gaitasun egokia eskuratzea ahalbidetu dezakeelako, bai eta gizarte kohesioa zein bizikidetzat bermatzeko giltzarria delako.

Era berean, eredu pedagogiko eta antolaketakoak gurera ekartzekoan, oso kontuan izan beharko dugu gurea herria zapaldua eta hizkuntza gutxitua duen herria dela. Beraz, praktika horiek gururako pentsatzerakoan gure hizkuntza, kultura eta identitatea bermatzeko estrategiak pentsatu beharko ditugu.

Honi guztiari gehitu diezaiozun pandemiak hezkuntza ereduaren eta marko pedagogikoaren agorpenaren kontzientzia indartu duela. Eraldaketa pedagogiko sakon baten beharrea daude gure hezkuntza sistemak, zeinak digitalizazioaren

aldagaia zuzen txertatu behar duen, hezkuntza digitalaren gaineko ikuspegi hezitzaile argi batekin eta teknologia tresna neutralizat hartu gabe.

Testuinguru historiko honi erantzun nahi dio proposamen estrategiko honek, hain zuzen ere. Sinetsita gaude, gure herri gaitasunak askatzeko gai baldin bagara, agorpen egoera honi sen berritzailez aurre egiteko moduan egon gaitezkeela.

Izan ere, aurrean dugun hezkuntza panorama hau ibilbide historiko baten emaitza da, bere argi-ilunekin. Ibilbide horrek emandako ondare emankorra jaso eta egindako akatsetatik ikasiz, jauzi bat emateko garaia iritsi delakoan gaude: Euskal hezkuntza sistemaren eraikuntzaren fase historiko berri bat irekitzekoa.

Proposamen honekin ezkerreko soberanistok hezkuntza proposamen berritua plazaratzen dugu, herri gisako ikuspegia duena oinarrian eta Euskal Herriaren burujabetzeari ekarpen kualitatiboa egin asmo diona. Euskal Herrirako proposamena da, eta deklinazio eta ibilbide propioa izan beharko du eremu juridiko-administratibo bakoitzean.

Proposamen berritu hau EH BILDUren xedea den hezkuntza sistema publiko burujabearen norabidean dago kokatua. Alegia, euskal estatuan nahiko genukeen hezkuntza sistemaren hurbilpen bat izan asmo du. Egungo marko juridikoek inposatzen dizkiguten mugak ezin baitira oztopo izan proposamen erreal, egingarri baina, aldi berean, erradikalki eraldatzaileak egiteko, momentuak exijitzen duen eran. Beraz, proposamen hau, geure eskaintza politikoa (partzialki bada ere) gauzatzeko tresna izateaz gain, egungo marko juridikoek Euskal Herriaren hezkuntza burujabetzari sortzen dizkien kalteak agerian jartzeko tresna ere bada.

Proposamen honetan hezkuntza ez-unibertsitarioari buruz ari gara, 0-18 urte arteko ikaskuntzari buruz, alegia.

## II. Gure hezkuntza sistemei begirada bat

---

Egunerokotasuneko gorpil zorotik aldendu eta Euskal Herriko hezkuntza panoramaren oinarritzko diagnosi kualitatibo bat aurkezten dugu jarraian, edozein hezkuntza sistemaren osasuna eta arrakasta neurtzeko oinarritzkoak diren zortzi galdera erantzuten saiatuz. Hasi aurretik, argi utz dezagun orokorrean begiratzen diegula gure hezkuntza sistemei, eta oso ondo dakigula badirela ikastetxeak eta hezkuntza komunitateak bestelako argazki bat ematen dutenak.

### **Ikaslea ondo al dago?**

Aukera berdintasuna: 0-3 zikloak haurraren garapenean zein hizkuntzaren jabekuntzan duen garrantziaz konturatzen hasiak garela dirudien arren, oraindik ere desagertu ez den ikuspegi asistentziala alboratu eta benetako hezkuntza izaera izan dezan bide luzea dugu aurretik. Horrez gain, haur eskola ugari ordainpekoak izanda, haur askori ez zaie aukera berdintasuna bermatzen. Halaber, hiriguneen eta landa eremuen arteko desoreka agerikoa da.

Dimentsio ahaztuak: soziala, emozionala, komunikatiboa eta kritikoa. Ikaslearen ongizatean zuzeneko eragina duten hainbat dimentsio oso gutxi hartzen dira kontuan. Hezkuntzaren helburu kognitiboez gain, haratago doazen helburuak ere (sozialak, emozionalak, harremanetarako gaitasuna eta abar) kontuan hartu eta bereziki sustatu beharko genituzke, ikasleen ongizatea bere familia testuinguruan bizi duen egoera sozialak ere baldintzatua dagoelako, eta emozioetan oinarritutako hezkuntzari arreta gutxiegi jarri diogulako orain artean. Parekideen arteko harremanean, ikasle-irakasleen artekoan eta gizartearekiko harremanean asko dago oraindik egiteke.

Erritmoak, ikasle bakoitzaren arrakastarako gako: Norbanakoaren erritmoak errespetatzeko zailtasunak. Ikasle bakoitza berezia da, bat eta bakarra, bere behar, zaletasun, kezka eta ikas-erritmo propioa duena. Gero eta kontzienteagoa da hezkuntza komunitatea gai honetaz, baina, ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatuko duen hezkuntza eskaintzeko ezintasun nabarmenak ditu hezkuntza sistemak, oro har.

Ikaslea objektu edo subjektu: Ikaslea ez da bere hezkuntza prozesuaren protagonista. Badira ikaslea hezkuntza prozesuaren erdigunean jarri eta berau subjektu gisa hartzen duten ikastetxe ugari. Baina, kasu gehienetan, ez da horrela, erdigunean irakaslea dago eta ikaslea objektu pasibo bilakatzen da. Haurraren, nerabeen eta gazteen kultura izan behar ditugu kontutan.

Ikasleen arteko harreman gatazkatsuak: Egia da azken urteotan hezkuntza administrazioek eta ikastetxeek ahalegin berezia egin dutela ikasleen arteko harreman eta tratu egokiak lantzeko hainbat programa martxan jartzen (Skolae eta "Laguntza" Nafarroan). Baina gero eta gehiago azaleratzen ari dira bullying, cyberbullying, eraso sexista anizkoitzak eta bestelako kasuak, eta horrek aldaketa estrukturalak behar ditugula adierazten du.

Krisi ekonomikoa: Krisi ekonomikoak haurren hezkuntzarako eskubidean eragin kaltegarria izan du. Nola lortu ikaslearen ongizatea haurren %25 pobrezia egoera larrian bizi bada? Ongi elikatzeko zailtasunak baditu? Egun, muturreko pobrezia errealitate hedatua izanik ere, ezkutuan mantentzen saiatzen da familia asko. Hezkuntza sistema ez dago egoera hauei erantzuteko prestaturik, eta nekez koordina daiteke modu egokian gizarte zerbitzuekin edo osasun sistemarekin.

Hezitzaileak modu duinean ari al dira? Hezitzaileak baldintza duinetan egon gabe nekez bermatuko dira eragin positiboak ikaslearen ongizatean. Hezkuntzan aritzen diren hezitzaile, langile zein guraso askoren lan baldintzak ez dira behar-ko luketenak. Gure ustez, gakoak diren hainbat arlotan badago zer hobetu: prestakuntza, lan-baldintzak, lan zama arintzea eta burokratizazioa gutxitzea, ratioak jaitea, azpiegiturak hobetzea eta gizarte errekonozimendua, besteak beste.

### **Administrazioek baliabideak modu ekitatiboan banatzen al dituzte?**

Baliabideez hitz egiten dugunean gauza ezberdin askoz hitz egiten ari gara: espazio fisikoak, bitarteko humanoak, jakintzen kolektibizazioa... Kontua ez da bakarrik (hori ere bai) baliabide gehiago jartzea, hauek egoki optimizatzea baizik. Izan ere, askotan, ISEC (Índice Socioeconómico y Cultural) maila baxuko ikasleak pilatzen dituzten ikastetxeetan egoera zaurgarriak baititugu, eta hori iraultzeko baliabide gehikuntzaz gain, hauen erabilera egokia ziurtatu behar da.

Banaketa eta gardentasuna: Diru publikoaren banaketa eta gardentasunerako berme nahikorik ez dute eskaintzen egungo sistemek. Ikastetxeen proiektu eta beharretara egokitutako baliabideen banaketa egokitik urrun gaude. Eskola asko egoera berezietan aurre egiteko (segregazioak, migrazio tasa altuak, kulturen arteko talka, behar bereziko ikasleak) baliabide eskasian daude. Ondorioz, aniztasuna aukera baino arazo bilakatzen da.

Behar espezifikoari arreta: Behar bereziak dituen zonalde edo eskolei ez zaie behar adina baliabide eskaintzen. Gauzak horrela, askoz arreta gehiago jarri behar litzaioke tokian tokiko beharrei erantzuteari: segregazioari eta masifikazioari aurre egiteari; zonalde erdaldunen euskalduntzea sustatzeari; migrazio handiena duten zonaldeetatik hasita, kultur aniztasuna eta inklusioa lantzeari; pobrezia tasa handienak dituzten eskoletan egoerari aurre egiteko neurriak hartzeari eta abar. Egun, ikastetxeen %30 inguru ez dira ISEC indizeak eskatzen duen mailara iristen. Kasu hauetan, ikastetxearen lan eta beharren balorazioa egiteaz gain, baliabideak eskaini behar zaizkie emaitzak hobetze aldera (programak, formazioa, irakasle gehiago, ratioak jaitea eta abar).

Behar bereziak eta aniztasun era guztietakoak dituzten ikaslearen hezkuntza eskubideak aintzat hartuko direla bermatzen urrun gaude, horretarako beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak ziurtatzen urrun. Hezkuntzak ikasle guztien bizi proiektua zaindu eta aintzat hartu behar du, baita premia bereziak dituzten ikasleena ere.

Honekin batera, landa eremuko eskolek ere arreta berezia behar dute. Adin tarte ezberdinak biltzen dira kasu askotan, eta hori ondo kudeatzeko formakuntza bereziak behar lirateke. Despopulazioaren erronkari aurre egiteko ere, eskola hauek ez ixteko apustu irmoa egin behar da herriak bizirik mantenduko baditugu.

### **Curriculumaren egokia al da gizartearentzat? Eta ikasleentzat?**

Euskal curriculumaren ez da ardatza: Euskal curriculumaren eraikuntza eta implementazioan urratsak eman diren arren (Urtxintxa, Kimu, Eki, herri curriculumak), Espainia/Frantziako curriculumak dira nagusi gure ikastetxeetan, Euskal Herriaren existentzia bera ukatzen dutenak. Euskal curriculumaren garapen, berrikuntza eta aplikazioerako herri bulkada apaldu egin da azkenaldian, gainera. Kontuan izan behar dugu, era berean, gertatzen ari den hezitzaile belaunaldi aldaketa. Aldaketa horretan ez dago ziurtatua euskal curriculumaren transmisioa. Aipatu beharra dago, gainera, azken hamarkadetakoa merkatu logikak eragin duela curriculumak honen mesedera diseinatua egotea.

Euskal kulturaren transmisioa ez da behar bezala bermatzen, are gutxiago Nafarroan zein ipar Euskal Herrian: Hizkuntza gaitasuna ez bermatzearekin batera, erreferentzia izan daitezkeen kultura ekimenak ez dira behar beste bultzatzen: musika, literatura, antzerkia eta abar. Halaber, eremu formaletik haratago, euskaraz bizitzeko bestelako esperientziak martxan jartzeko programak desagertu egin dira azken urteetan, girotze barnetegiak kasu. Hizkuntzaren jabeakuntza hutsetik haratagoko kultur transmisioan, komunikazio afektiboan, atzera egiten ari gara nabarmen. Pandemiaren eraginez egoerak okerrera egin du gainera, Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste eragile batzuek azaldu duten moduan.

Hizkuntza ereduak: Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako ikasleen heren batek ez du gutxienerako euskara maila erdiesten. Zergatik? Eskolaz kanpoko errealitateak eragin nabarmena badu ere, agerikoa da D ereduak ez duela behar beste euskalduntzen. Euskal Herriko hezkuntza komunitateak behin eta berriz azaldu du non dauden arazoak (hizkuntza ereduetan) eta non konponbideak (kalitatezko murgiltze eta mantentze ereduak).

Nafarroa Garaian errealitatea are larriagoa da. Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2020ko datuen arabera, Nafarroako ikasleen %25ak ikasten du D ereduak, B ereduaren erresiduala da, A ereduak %14ak, eta ikasleen %61ak G ereduak dihardu. Gainera, PAIrekin espainolismoak beste gurutzada berri bat ireki nahi izan zuen euskararen kaltetan. Alegia, Nafarroako ikasle gehienek ez dute inongo harremanik bertako hizkuntza den euskararekin. Erriberan A ereduak pixkanaka zabaltzea izaten ari da familia askorentzat euskarara gerturatzeko bidea. Kasu guztietan, behar den euskara maila lortzen ez duten ikasleak dira nagusi Nafarroan.

Horrekin batera, berriki jakin dugu gazteek euskararekiko atxikimendu lausoa adierazten dutela, bai eta euskararen erabilerak atzera egin duela eskola eremuan.

Curriculum zurrunak: Ikuspegi klasikoaren arabera eraikiak (arloak, ikasgaiak eta abar). Euskal Herrian, oraindik orain, asko begiratzen diogu Madrili eta Parisi. Batetik, badago curriculumen inposizioa baina, bestetik, badago metropoliaren eskemetatik haratago begiratzeko ezintasuna ere. Salbuespenak salbuespen, curriculumak irakasgaia eta arloka antolatzen ditugu eta testuliburuetan oinarritzen gara eskolak emateko orduan (ia beti atzerriko editorialek eginak). Gainera, ez da errealitatearen azterketarik modu sistematikoan bultzatzen, ez eta ikasleen arteko elkarlanik ere. Jakin badakigu elkarrekintza bidez lortutako ikaskuntzak esanguratsuagoak direla, hezitzaile-ikasle eta, batez ere, ikasle-ikasle arteko elkarrekintzen bidez lortutakoak.

Curriculumak Madrilen eta Parisen ezartzen dira neurri handi batean, baina nahiz eta hau horrela izan, gero eta eskola gehiagotan ikasleen arteko elkarlana sustatzen da, eta horretarako metodologia kooperatiboak erabiltzen ari dira ikasgai eta arloak komunean jartzea oinarri izanda.

Metodologia eta ebaluazioa: Ebaluazio irizpideak Madrilek eta Parisek ezartzen ditu, eta han erabakitzen da zer eta nola ebaluatu. Ebaluazioak hezitzailea eta integrala beharko luke, sistema bera ebaluatuz. Ari gara aldatzen, gero eta gehiago dira, unibertsitateekin zein hezkuntza administrazioekin elkarlanean, metodologia eta ebaluazio ereduak aldatzeko lanean ari diren ikastetxeak. Baina, oraindik ere, gutxi dira metodologian aldaketa sakonak egin dituzten ikastetxeak, azterketa sistema eta ebaluazio kuantitatiboaren eredutik aldendu direnak. Ebaluazioak zertan hobetu behar den eza-gutzeko balio behar du, eta hobekuntza hori errealitate bilakatzeko bitartekoak jarri behar dira, hauteman diren hutsu-neetan eragiteko adostu eta aplikatu diren indartze neurriak, erabakiak edo dena delakoak eraginkorrak izan diren baloratzeko; horrela ez bada baztertzeko eta beste batzuk saiartzeko, eta eraginkorrak izan direnak indartu eta finkatzeko.

## **Baliabide inbertsio nahikoa eskaintzen al diogu hezkuntzari?**

Hezkuntzari ez zaio Euskal Herriaren eta euskal gizartearen biziraupen eta garapenean duen paper zentrala aitortzen gobernuen partetik. Inbertsioen lehentasunen artean kokatu beharko litzateke eta inbertsioa Europako batz bestekora hurbildu beharko litzateke (Barne Produktu Gordinaren %6). Dena den, finantzaketarekin batera, gardentasunean eta efizientzian ere (burokratizazioa gutxituz, adibidez) aurrerapausoak eman beharko lirateke, bata bestearekin loturik dago-eta.

Lan baldintzei dagokionean, azken urteotako murrizketek lan baldintzen okertze nabarmena eragin dute. Behin-behinekotasuna, egonkortasun tasa txikia, ikasle ratio altuak, behar bereziko umeentzako profesionalen murrizketa itzela, lan zamaren eta zentzu gabeko burokrazia areagotzea eta abar. Lan baldintzak prekarizatzearen ondorioz, hezkuntza kalitatea kaltetu egin da.

## **Nolakoa da hezkuntza langileen prestigioa gizartean?**

Hainbat faktorek eragiten dute irakasleek zein bestelako hezkuntza langileek gizartean bizi duten prestigio faltan. Hala nola, irakasleriaren aitortza sozialik ezak eta haienganako konfiantzarik ezak. Bestalde, irakasleen formakuntzak gabeziak adierazten ditu, eredu zaharkituei lotuegi dago askotan. Unibertsitatearen papera ere sakon aztertzea da, eta sare publikoan egonkortasun ezak eta behin-behinekotasun tasa altuak eragiten duen kaltea lazgarria da.

Sarbidea eta formazioa: Batetik, irakasleen sarbidea egokia den edo ez aztertu beharko genuke; haur eta lehen hezkuntzan irakasle eskoletan ikasketak burutzen dituen segidan bilakatzen dira irakasle. Baina, gure uste apalean, gutxiegi baloratzen da ea irakaslea haurrekin lan egiteko profesional egokia ote den. Era berean, irakasle eskoletako prestakuntza gutxiegi bideratzen da praktikara. Bigarren hezkuntza eta goi mailako hezkuntzan zer esanik ez, urtebeteko badaezpadako prestakuntzak irakasle izateko gaitzen du edonor.

Atal honetan aztertzea da, baita ere, kontratazio eredu bera, erabat zentralista dena eta norberaren ingurune sozialetik urrun irakastera behartzen duena irakasle asko. Era berean, zenbait eskualdetan, irakasle eta zuzendaritza taldeen zati handi bat aldatu egiten da urtez urte, hezkuntza proiektua egonkortzea ekidinez. Azkenik, Enplegu Eskaintza Publikoen (EPE) azterketa eredu oso memoristikoa eta edukiei begirakoa da, eta ondorioz, ez da baloratzen hautagaia irakasle izateko gaitua dagoen edo ez. Horrez gain, badago, baita ere, formakuntza iraunkorrerako eta berrikuntza pedagogikorako motibazioa areagotzeko estrategiak lantzeko beharra.

Lan baldintzak: Azken urteotako murrizketek lan baldintzen okertze nabarmena eragin dute. Behin behinekotasuna, egonkortasun tasa txikia, ikasle ratio altuak, bajak hartzeko zailtasunak, lan zamaren areagotzea eta abar. Lan baldintzak prekarizatzearen ondorioz, hezkuntza kalitatea kaltetu egin da.

Zuzendaritzak eta hezkuntza proiektuak: Zuzendaritza lanetan aritzeko irakasleek daukaten prestakuntza faltaz eta eskoletako hezkuntza proiektuen inguruan ere hausnarketa egin beharra dago. Zuzendaritza gehienak "behartuta" izaten dira hautatuak, ez dago horretarako formakuntza espezifikorik eta horrek zuzenean eragiten du eskoletako hezkuntza proiektuetan. Hezkuntza proiektuak paper huts bilakatzen dira kasu gehienetan. Eskola gutxi du eztabaidatua eta definitua zer-nolako hezkuntza eredu bermatu nahi duen.

Atxikimendu eza: Aurrez aipatutako arazoei irakasleriaren ikastetxeko hezkuntza proiektuarekiko atxikimendu eza eragiten du hainbat kasutan. Beraz, prestigioaren gaiak beste honekin lotura zuzena du: irakasleriaren sarbidea, formazioa eta lan baldintzak hobetuz gero, hezkuntza proiektuekiko atxikimendua handituko litzatekeelakoan gaude; eta ondorioz, irakasleen prestigioa ere hobetu egingo litzateke gizartean.



## **Nolakoa da hezkuntza komunitatearen parte-hartzea?**

Indibidualizazioa: Mundu mailako joera da indibidualizazioarena eta, gurean ere, bakoitza bereari begiratzeko joera areagotu egin da azken hamarraldietan. Errealitate honek gurasoen eskolarekiko inplikazioan zein ikasle mugimendua- ren gaitasunean ere izan du isla.

Inplikazioa: Kontrara, badago gizarte joera garrantzitsu bat hezkuntzari aparteko garrantzia aitortzen diona. Familia hauek haurren heziketan erabat inplikaturik daude, kasu askotan, ikastetxeko egunerokotasuneko bizimoduan erabat murgilduta. Era berean, gero eta gehiago ari da zabaltzen egungo hezkuntza ereduetatik aldendu eta pedagogia askean oinarritutako eskolak sortzeko joera, baita ikastola naiz eskola publiko ugariren izaera parte-hartzaile eta komunita- rioan sakontzeko ekimenak ere.

Atxikimenduaren garrantzia: Hezkuntza komunitatea lehenengo mailara ekarri beharra dago, erdigunera. Hau horrela, pertsonen arteko komunikazio eraginkorrak bultzatu behar dira, pertsonen zaintza, errekonozimendua, bakoitzaren talentuaren aitortzatik abiatzea...

Korporatibismoa: Gehiegitan, eskolako estamentu zein hezkuntza eragileek bereari eusten diote, euskal hezkuntza siste- maren eraikuntzarako beharrezkoa dugun herri ikuspegia galduz sarri samar, ideia eta interes antzekotsuak ditugunon arteko lehia hauspotuz.

Administrazioaren aldetik ez dira komunitatearen parte-hartzea bermatuko luketen inizatibak bultzatzen: Udal Eskola Kontseiluak, hezkuntza komunitateak, herri hezitzaileen esperientziak eta abar. Eta honek lotura zuzena du inklusioa bermatzeko oztupoekin edota sistema orekatu eta inklusiboa bultzatzearekin. Parte hartzerik ezean, ezinezkoa izango baita komunitate ezberdinak elkarlanean jarri eta egoera ezberdinei buelta ematea.

Atal honetan, aipatu beharra dugu hezkuntza formala eta ez-formalaren arteko lotura egitearen garrantzia. Egun ema- ten diren harreman positiboak eredu gisa hartu eta bultzatu beharra ezinbestekoa da.

## **Zein da hezkuntzaren xedea? Eta Euskal Herrian?**

Aldaketa edo eraldaketa? Euskal Herrian indarrean dugun eskola markoak zaharkituta eta agortuta daude. Espainia eta Frantziako eredueta oinarritzen dira eta, ez bata eta ez bestea, ez dira munduan praktika onenen adibide.

Marko normatiboaz gain, pedagogia, ebaluazioa, metodologia zein espazioaren antolaketan eta ikasleen taldekatze mo- duetan erabat zaharkituta gelditu diren ereduak dira. Aldatzen ari gara, baina sakoneko eraldaketa baten beharrean gaude.

Ezin dugu diagnosi honetan aipatu gabe utzi, egun Hego Euskal Herrian indarrean dauden hezkuntza sistemak, batez ere azken hamarraldiko agintarien politiken ondorioz, besteak beste, erabat segregatzaileak direla. Abiadura ezberdine- tako sistemak eraiki dira non maila sozioekonomikoaren, jatorriaren, hizkuntzaren edota sexuaren arabera ikasleen segregazioa garatu den. Honek, sareen artean desberdintasunak sortzeaz gain, sareen barneko desorekak ere eragin ditu ikastetxeen artean. Kasu batzuetan, gainera, ikastetxe batzuk ghetto bilakatu dira.

Ofizialki, hezkuntzaren xedea ikaslearen garapen osoa erdiestea da, gizartean murgiltzeko tresnak eskaintzea, lanerako prestatzea eta naturarekiko jokaera errespetuzkoa bultzatzea. Hau da gutxi-asko indarrean dauden hezkuntza legeek diotena. Badaude hainbat hezkuntza sare, ikastolak batzuk, eskola publikoak batzuk eta eskola askeak beste batzuk, xede hauek gaindituz, balore aurrerakoiagoetan eta euskalduntasunean hezteko apustua egiten dutenak.

Baina bada, oinarrian, hezkuntzari bestelako xedea aitortzen dion bulkada indartsua ere, zeinak hezkuntza adoktrina-mendurako darabilen. Ikuspegi espainiar/frantziarretik homogeneousazio kulturala dute helburu eta, ikuspegi sozialetik, balore kapitalista-matxista-atzerakoiak sustatzen dituzte. Bi estatu neoliberal heteropatriarkalek hezkuntza sistemak erabiltzen dituzte beraien baloreak eta pentsamoldeak erreproduzitzeko eta hegemoniko bilakatzeko: Euskal Herria eta beste herrien eta kulturen existentzia ukatzen dute, arrakala sozialak areagotzen dituzte, ikuspegi androzentriko heterosexuala erreproduzitzen dute (ez dute hezkidetzak bultzatzen eta ez dituzte heteropatriarkatua gainditzeko tresna eraginkorrik sortzen eta bultzatzen). Bigarren hauen indarra ez da gutxietsi behar, eragin handia baitute: baliabide ekonomikoen banaketa injustuan, testuliburuetan, curriculumean nahiz curriculum ezkutuan, metodologietan eta, oro har, hezkuntzaren esparru guztietan.

### **Nolakoa da eskolaren eta herriaren arteko harremana? Gauzatzen al da herri eragileen eta eskolaren arteko lotura? Nola?**

Eskola eta herri/auzoen arteko harreman/komunikazio/elkarlan eza: Eskolak irlak dira oro har. Hezkuntza eskolaren/ eskolako arazo da, ez da gizartearen ardura. Dena den, lehenago aipatu bezala, honekin paraleloan eta bereziki familien aldetik, badago beraien umeen hezkuntzaz kezkatua dagoenik. Masa kritiko inportantea osatu dute eta ikastetxeen eguneroko bizitzan parte hartzen ari dira.

Autonomiarik eza: Eredu zentralistak dira egun indarrean daudenak, zentralistak eta burokratizatuak. Madril eta Parisen hartzen dira gure lurraldeari eragiten dioten erabaki nagusiak. Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua, oro har, sisteman zirrikituak bilatzera mugatu dira, baina ahalegina ez-nahikoa izan da, bistan denez. Badaude eskola eta ikastetxe sareak hezkuntza proiektu propioak dituztenak, zirrikituak zabaldu eta oztopoak gainditzeko saiatzeko direnak. Baina egun, ikastetxeek autonomia maila eskasa eta baliabide gutxi dute beraien hezkuntza proiektua (curriculum, marko pedagogikoa, hizkuntza proiektua eta abar) eta antolaketa erabakitzeke: Ez dago behar den autonomiarik hezkuntza proiektu berezituak garatzeko, baliabide eskasiak menpekotasuna eta autonomia falta elikatzen ditu, formazio espezifikoaren falta dago, lan taldeak ez dira egonkorak, behar diren langileen profilak adosteko eta erabakitzeke eskumenak falta dira.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan fokoa jarrita, izan ere, erkidegoak badu propio ebaluazio agentzia bat (ISEI-IVEI), non etengabe hainbat eta hainbat inkesta eta ebaluazio lan egiten diren, ondorengo datuak azpimarratu nahi ditugu, sistematik izan ditzakeen indargune eta ahulezia gisara. Izan ere, gaurdanik bestelako eredu bat eraikitzeke unean, adierazle hauetatik ere ekingo diogu. EAEko sistemaren indargune batzuei dagokionean:

- Absentismo gutxi pairatzen duen sistema dugu.
- Eskolatze uzte goiztiar txikia dugu (2020an %6,5 izan da datua. EBn %10 eta estatu espainolean %16).
- Haur txikien eskolatze tasa handia dugu: urte 1era artekoen %17,2; 1-2 urte artekoen %45; 2 urtekoen %92 eta 3 urtetik aurrera %99tik gora.
- Errepikatze tasa moderatua, inguruko indikadoreak kontutan hartuta.
- Emaitzetan ekitatea (distantzia txikia dago emaitza onenen eta txarrenen artean).
- 3. mailako ikasketak dituzte biztanle asko dugu: 25-65 urtekoen %50 baino gehiago. Inguruko erkidegoekin alderatuz, nabarmen handiagoa.

- Hezkuntza-behar berezien trataera inklusiboa ematen da sare publikoan (ikasle hauen gehiengoa gela arruntetan dago).
- Berrikuntza pedagogikoari dagokionean, eraldaketarako dagoen griña nabaria da.
- Euskararen aldeko konpromisoa. Ikastetxeen beraien meritua izan da azken hamarkadetako euskalduntzea: hainbat familiak, langilek eta eragilek, auzo elkarteek etab. gauzatutako prozesua izan da batez ere emandako euskalduntzea.

Ahulguneak, baina, ez dira nolana hikoak. Oraingoan, ordea, sistemaren egituraketan jarriko dugu fokua, dugun sistema dualean, alegia:

- EAEko sistemari dagokionean aipatzekoa da titularitate pribatudun ikastetxeen artean badaudela, adibidez, sexua-ren arabera ikasleak bereizten dituzten ikastetxeak. Erresiduala bada ere, badira 4.000 ikasle inguru, eta ikastetxe hauek urtero urtero diru-laguntza publikoak jasotzen dituzte.
- Egoera sozio-ekonomikoaren arabera ere badaude sailkatuta ikasleak sisteman. Gizarte segregazioa lausotu beharrean areagotu egiten du hezkuntza sistemak. Ikastetxeen arteko bereizketa horrek murrizten ditu ikasleek beste gizarte eta kultura testuinguru batzuetako berdinekin elkar eragiteko aukerak eta, beraz, murriztu egiten dira gizarte eta bizi-gaitasun osoak lortzeko aukerak. Gaitasun sozio emozionalak eta pertsona desberdinekiko enpatia bereganatzea mugatzen da, eta ingurune sozialaren ezagutza eta hura interpretatzeko gaitasuna ere mugatzen dira. Segregazioak oztopo horiek ezartzen dizkie ikasleei, baina maila sozioekonomiko baxuenei beste oztopo batzuk gehitzen dizkie: ikasleen arteko trukearen bidez egiten den ikaskuntza txikiagoa da, baldin eta multzoaren ezagutza eta errendimendua ere halakoxea bada. Gainera, itxaropen akademiko eta profesionalak ahuldu egiten dira itxaropen handien hurbileko erreferentziarik ez dagoenean.
- Horrez gain, prekarietatean bizi diren familiek zailtasunak dituzte gizartean parte hartzeko eta aukera gutxi dituzte, adibidez, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko. Horrenbestez, hezkuntza-sistemari esleitu nahi dizkiogun gizarte-kohesioaren, balio partekatuen eta aukera berdintasunaren sustapena, zalantzan jartzen dira oso.
- Amaitzeko, salatzen da ikasleak deslokalizatzeko dagoen joera. Honek inguruarekiko harremanak ahultzen ditu. Konklusio gisa, esan dezakegu segregazio handia dagoela EAEko hezkuntza sisteman (sakonago eranskinean) eta lotura handia duela sistema dualaren osaketarekin.

# III. Hego Euskal Herrirako helburu estrategiko berriua: Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujaabea

---

## Hezkuntza Sistema

Hezkuntza euskal herritar ororen eskubide indibidual zein kolektiboa da. Horregatik, euskal herritarron garapen integralaren eta Euskal Herriaren garapen kolektiboaren zerbitzura egongo den hezkuntza sistema burujabea osatzea da gure helburua: euskalduna, hezkidetzaila, inklusiboa, parte-hartzailea, laikoa, iraunkorra, doakoa, herritarra eta publikoa.

*Hezkuntzak gizarte ikasiaz osatutako Euskal Herri kultu eta ekintzailea eraikitzeke balio behar du. Hau honela, ezinbestean, hezkuntzan ere burujabetza osoa lortzeko politikak erdietsiko ditugu. Hezkuntza, pertsona aske, kritiko, ahaldun, solidario eta euskaldun eleaniztunak hezteko tresna gisa ulertzen dugu, jaiotzetik hil arte ematen den prozesu gisa. Baita Euskal Herriaren biziraupen eta garapen zein egituratze sozial, politiko, ekonomiko, kultural eta linguistikorako. EH Bilduren hauteskunde programa, 2016.*

Hezkuntza sistemaren arautzea euskal administrazioei dagokie eta herritar ororen oinarrizko eskubidea da. Derrigorrezko hezkuntza 6-16 urte bitarteko etapan definitzen dugu. 0-6 urte bitarteko zikloari garrantzia berezia egotzen badiogu ere, borondatezko etapa gisa ulertzen dugu. Aipamen berezia egiten diogu 0-3 zikloari, zeina hezkuntza sistemaren baitan kokatu beharrekotzat dugun, 0-6 zikloari batasuna eta koherentzia emanez. 16-18 urte arteko etapa, batxilergoa alegia, eta ondorengo goi mailako ikasketak ere hezkuntza sistemaren antolaketaren barruan kokatzen ditugu; hala nola, Lanbide Heziketa zein bestelako ikasketak ere (musika eskolak, hizkuntza eskolak eta abar).

## Euskal Hezkuntza Sistema

EH Bilduk, Euskal Herri osoa erreferentzia izanik, eremu juridiko-administratibo bakoitzetik abiatuz garatuko den hezkuntza sistema propioa du helburu. Sistema hori arautzeko eskumen guztiak euskal administrazioei dagozkie, lege, dekretu edo gainerako arauak modu burujabean garatzeko eskubide osoz.

Euskal hezkuntza sistemari berezitasun propioak egotzen dizkiogu. Gure historiak erakutsi digu euskal hezkuntzaren errealitatea, neurri handian, era askotako herri ekimenez eraiki dela azken hamarraldi luzeetan, eta horregatik, bereziki garrantzitsua deritzogu gaur arte egindako lan guztia aitortzea.

Pertsona guztiek dute hezkuntza publiko, euskaldun, plural, laiko eta doakoa eskuratzeko eskubidea, aniztasuna integratuko duena eta berdintzailea izango dena generoaren ikuspuntutik (hezkidetzaz), ikuspegi kritikoa eta elkartasun internazionalista sustatuko dituen, hezkuntzaren etapa guztietan, bai derrigorrezkoetan eta bai derrigorrezkoak ez direnetan. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta, 2015.

Euskal hezkuntza sistema eskubideak oinarri dituen sistema da. Ondorengoak dira, gure iritziz, sistema horrek bermatu beharreko eskubideak:

1. Euskal herritar guztiek, nazioarteko oinarrizko eskubideen hitzarmenetan jasotakoa aintzat hartuta, Euskal Herrian bertan edozein ikasmaitan edo ikas-arlotan ikasteko eskubidea dute, eta ez da inor baztertuko arrazoi politiko, ekonomiko, sozial, jatorriarekin edo sexuarekin lotutako, ideologiko, akademiko, fisiko edo psikikorengatik.
2. Euskal herritar orok hezkuntzaren bidez euskalduntzeko eskubidea du. Euskal Herri osoan, edozein hezkuntza eskaintzatan, euskaraz ikasteko eskubidea du. Eta hezkuntza prozesu osoan, hezigune guztietan, euskaraz bizitzeko eskubidea du.
3. Euskal herritar orok bertako nahiz munduko gizarte zein kultur adierazpideak kontuan hartuko dituzten Euskal Herriko eta tokian tokiko curriculum propioen arabera hezteko eskubidea du. Ikasgai konkretuetatik haratago, ezagutza sendoak eta gaitasun edo konpetentziak oinarri izango dituen curriculum aldarrikatzen dugu.
4. Ebaluazio sistema propioa izateko eskubidea dugu. Ebaluazioak hezitzailea izan eta hobekuntzarako balio behar du. Ebaluazioak sistema bera ebaluatu behar du beste ezer baino gehiago, hobekuntza ardatz.
5. Euskal herritar orok hezkidetzan eta pedagogia feministan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea du; hots, genero estereotiporik gabeko didaktikan oinarrituriko hezkuntza jaso eta sexu-genero sistemaz hausnarketa kritikoa egiteko eskubidea. Gainera, honen baitan, zeharkakotasunez landuko dira hezkuntza afektiboa eta sexuala. Hau horrela, gure hezkuntza sistemak hezkidetzaz plan bat izango du. Hau nahitaezkoa izango da, etapaka modu progresiboan landuko da, espezifikoa izango da eta integrala.
6. Euskal herritar orok du autonomia kritikoa garatzeko eskubidea eta horren zerbitzura egongo den hezkuntza jasotzeko eskubidea, dogmatismo eta alienaziotik at.
7. Euskal herritar orok eskubidea du gaitasun digitalak eskuratzeko. Horretarako, ikasleak aro digitalean subjektu kritiko izateko hezi behar dira, konpetentzia digitalak eskuratuz erabiltzaile gisa zein parte-hartzaile gisa (pentsamendu konputazionala garatzen lagunduz). Ikaslearen ezaugarrietara eta erritmoetara egokituko den hezkuntza pertsonalizatu digitala beharrezkoa da. Bestalde, funtsezkoa da datuen burujabetza eta burujabetza teknologikoa abiaburuan jartzea, plataforma teknologiko multinazionalen menpekotasunarekin bukatu eta software librearen alde eginez.
8. Euskal herritar orok eskubidea du krisi ekologikoaren testuinguru historikoan bizitzaren iraunkortasunaren alde ekiteko gaitasunak eskuratzeko. Gaurko eta biharko belaunaldien ongizatean eragin bortitza izango duen agertoki historiko hain arriskutsu hau kudeatuko duten pertsona kritiko eta gaituak hezteko betebeharra du euskal hezkuntzak XXI. mende honetan, 2030 agendaren norabidean.
9. Hezkuntzak laikoa izan behar du. Hezkuntza benetan inklusiboa izan dadin erlijioek curriculumetik kanpo behar dute, edota modu integral eta zientifikoan landu behar dira. Espainiak Vatikanorekin sinaturik duen konkordatuaren abantailak bertan behera geratzea aldarrikatzen dugu.
10. Euskal herritar orok hezkuntza oinarri demokratikoen arabera antolatzeko eta kudeatzeko eskubidea du: eskubide demokratiko guztiak (adieraztekoa, biltzekoa eta abar) bermatuz, hezkuntza komunitatearen pluraltasuna kon-

tuan hartuz, antolaketa zein kudeaketa demokratiko, garden eta parte-hartzailea gauzatuz, eta hezkuntza komunitatea osatzen duten herritarren eskubidea bermatuz hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko.

11. Deszentralizazioa oinarri, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza komunitateak bere hezkuntza proiektua izateko eta kalitatez garatzeko eskubidea du. Ikastetxeek autonomia izango dute hezkuntza proiektua garatzeko, eta horretarako beharrezkoak dituzten bitartekoak eskainiko zaizkie. Gertuko hezkuntza aldarrikatzen dugu.
12. Komunitatearen balio hezitzailea aldarrikatzen dugu, bai eta tokian tokiko erakundeen parte-hartzea. 'Herri hezitzaileen' esperientziak oinarri hartuta, ikastetxeak komunitatearen parte direla sinisten dugu, eta beraz, auzo eta herri bizitzan integratuak egon behar dutela.
13. Hezkuntza sistema da gizarte kohesioa lantzeko estatu egitura garrantzitsuenetakoa. Beraz, hezkuntzak doakoa izan behar du eta horregatik finantziarioa blindatu egin behar da eta ez da murrizketarik onartu behar. Finantzario hori Barne Produktu Gordinaren %6ra heldu behar da gutxienez hezkuntza kalitatea berma dadin.
14. *Hau guztia posible izan dadin, euskal herritarrek hezkuntzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea dute. Hau da, Europako hezkuntza esparruan, Euskal Herriak hezkuntza sistema propioa izateko eta arautzeko eskubidea du. Euskal instituzioei, hezkuntza komunitateari eta herritarrei dagokie, soilik, hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskumena. EH Bildu, EAeko Hezkuntza Akordiorako ekarpena, 2017.*

## **Euskal Hezkuntza Sistema Publikoa**

*Hezkuntza sistema publiko baten aldeko apustua egiten dugunean, botere publikoek gizarte osoari dagozkion hezkuntza-eskubi-deak bermatzeko betebeharra dutela hartzen dugu kontuan. Euskal hezkuntza publikoa herri ikuspegi publikoan kokatzen dugu. Euskal sistema publikoa, gure ikuspuntutik, botere publikoak eta hezkuntza komunitateak diseinatzen, antolatzen, planifikatzen, kudeatzen eta garatzen dutena da. EH Bildu, Federazioaren estatutuak, 2017.*

Publikoa parte-hartze kolektiboan oinarritzen dugu beraz, oinarritzko eskubidea den edozein egitekok beharrezkoa duen finantzaketa eta antolaketaz hornitua. Hezkuntza herritar guztien eskubidea da eta instituzio publikoak dira eskubide pertsonal eta kolektibo hori bermatu behar dutenak. Zentzu horretan, hezkuntza sistema publikoa, ikastetxe, eragile eta herritar ororen parte-hartzea eta aukera berdintasuna arlo guztietan inolako bazterkeriarik gabe bermatzen duena da.

Edozein entitateri (kasu honetan, ikastetxeari) instituzio publikoek soilik eman diezaioke izaera publikoa. Izaera publikoa aitortzen zaion entitatearen funtzionamendua, helburuak eta eguneroko jarduera publikoak dira, zentzurik zabalean. Horretan funtsatzen dugu hezkuntza sistemaren izaera publikoa, beti ere, hezkuntza jarduera herritar guztioi zuzendua eta irekia dagoela, aukera berdintasuna eta inklusioa helburu duela eta haren antolaketa eta kudeaketa ereduak komunitateko kide guztien parte-hartzean, erabakitzeko ahalmenean eta parekidetasun printzipioetan oinarritutako eredu demokratikoak direla bermatuta, ezinbestean.

Hau diogunean ez dugu administrazioarekiko delegazionismoan erori nahi. Alegia, publikotasun parte-hartzaile komunitarioan sinisten dugu; hori dela eta, hezkuntza komunitateari parte hartzeko aukeraz gain, erabakitzeko ahalmena ere bermatu behar zaiola deritzogu.

## Ikastetxeen autonomia

Ikastetxeen autonomia inklusioarekin lotzen dugu, bat eginez inklusioaz UNESCOk egiten duen definizioarekin: Ikasleen behar askotarikoak atzemateko eta erantzuteko prozesua, parte-hartze aktiboan oinarritutako ikaste prozesua, kultur jardueretan eta jarduera komunitarioetan parte hartzean oinarritua; hezkuntza sistemaren barne zein kanpoko egoeretan eskusioa ekidinez. Ikasle guztien garapen osoa ziurtatuko duen eskola antolaketa irudikatzen dugu, ikasle ororen garapenari begira baliabide askotarikoak erabiltzeko eta kudeatzeko gai izango den eskola.

Hezkuntza sistemaren diseinua eta garapena ez dagokie gobernuei soilik, ezinbestekoa da hezkuntza komunitatearen parte-hartzea eta inplikazioa. Estatuaren politikei erreparatuz gero, bi logika aurki ditzakegu elkarrekiko lehian: kontrol burokratikoaren logika versus konpromisoaren logika. Aipatutako logikek irakastea zer den ulertzeko bi modu islatzen dituzte: kontrol burokratikoaren logikan oinarritutako politikek irakaskuntza errutinazko prozesutzat hartzen dute, prozesu uniformeak eta erraz aurreikus daitezkeenak.

Konpromisoaren logikan oinarritzen diren prozesuek ostera, hezkuntza prozesuaren konplexutasuna eta ziurgabetasuna azpimarratzen dute; horren ondorioz, irakaslearen konpromiso eta kreatibitate beharra azpimarratzen dute. Lehenak araudiaren bidez erregulatutakoa martxan jartzeko tresna gisa ikusten du irakaslea, zer eta nola egin behar duen arautuz. Eredu honen adierazgarri da “hiperlegislazioa”.

Eredu burokratikoaren ondorioak irakasleriaren inplikazio eta profesionalizazio eza dira. Eredu honetan oinarritutako aldaketak ez dira arrakastatsuak izaten, eskolak erreformen fitroak baitira eta, irakasleriaren eta gainontzeko hezkuntza-langileen inplikazioa lortu gabe, ezinezkoa bihurtzen da proposatutako berrikuntzak eskola-bizitzan txertatzea. Eredu honen agorpenak erakutsi digu kalitatezko hezkuntza sustatzeko bermerik onena ikastetxe eta irakasleriaren konpromisoa dela.

Etengabe aldatzen doazen egoera konplexuei erantzun ahal izateko ezinbestekoa da eskolaren, irakasleriaren, hezitzaileen eta komunitatearen barne indarra aprobetxatzea. Kanpo presioek eskolen barneko gaitasuna indartu behar dute ikasleen ikaste prozesuaren hobekuntzan eraginez. Hori dela eta, goitik beherako estrategia burokratiko eta arrazionalen ordean, eraldaketarako dinamika autonomoak bultzatzea proposatzen dugu eta erakunde parte-hartzaileei protagonismoa ematea. Horren adibide dugu Finlandiaren kasua. Finlandiak ez du azterketa sistema nazionalik, hezkuntza publikoaren erantzukizuna kolektibitatean eta profesionalen eskuetan jartzen du, ez soilik gobernuaren eskuetan.

Bestalde, testuinguru konplexu eta aldakorrei aurre egiteko gaitasuna duen eskola antolaketa eredu behar dugu; antolaketa malgua, eta testuinguru askotarikoen eta etengabe aldatutako diren baldintzen aurrean erantzun berriak pentsatu eta garatzeko gaitasuna izango duen eskola, alegia.

Beraz, ikastetxe komunitarioak dei ditzakegunak oinarri hartuta, sistemaren deszentralizazioaren aldeko hautu sendoa egiten dugu. Izan ere, arazo edo erronkak gertutik kudeatzen badira aukera gehiago dago irtenbideak identifikatu eta hauei arrakastaz ekiteko.

Ikastetxeen autonomia horrek, baina, baldintza baten arabera behar du: segregazioa edo inklusiorik eza ez sustatzea.

## **Ikastetxeen proiektuetatik hezkuntza proiektu komunitarioetara**

Bistakoa da eskolak, bere ekimen soilez, ezin dituela eskolaz kanpoko faktoreengatik ikasleen artean dauden desberdintasunak gainditu. Eskolak komunitatearen eta gizartearen laguntza behar du.

Administrazioak, hezkuntza proiektua bere baitan garatzetik, komunitatearen beharrak eta baliabideak txertatzen dituen proiektuak garatzera bultzatu behar du eskola, eragile eta baliabide desberdinen inplikazioa sustatzen duten proiektuak, hain zuzen ere. Barruko begirada eta komunitatearen begirada integratzen dituzten proiektuei buruz ari gara, hots, eragile desberdinen harreman fluxuak eta elkar ezagutza errazten dituzten proiektu komunitarioei buruz.

Bestalde, ikasleak testuinguru kultural jakin batean bizi eta hezten dira, zeinak beren nortasun heldua eraikitzeke prozesuan berebiziko garrantzia duen, prozesu horretan eraikiko baitute beren kultur identitatea. Testuinguru honetan kokatzen dugu hezkuntza sistemak euskara eta euskal kulturaren ikaskuntzan duen erantzukizuna.

Aipatutako erronkak lortze aldera, eskola eta komunitatearen arteko lotura bi norabidetan ulertzen dugu: Tokiko komunitatea eskolan eta eskola tokiko komunitatean. Testuinguru sozialarekin loturak eraikitzeak hezkuntza eragileen arteko elkarlana eskatzen du, eta horretarako bi instituzioen arteko ahalegin eta lan bateratua irudikatzen dugu: alde batetik, familia eta gertuko komunitatearen inplikazioa ahalbidetuko duen eskola, eta, bestetik, hezkuntzaz arduratzen diren beste erakundeen arteko elkarlana bultzatzen duten instituzioak, nagusiki udalak.

Aipatutako ideiek publikotasunaren dimentsio kolektiboa indartzen dutelakoan gaude eta, komunitatea ahalduntzeko bidean, administrazio publikoaren eta herrigintzaren arteko elkarlan bideak zabaltzeko baliagarriak izan daitezkeela iruditzen zaigu.

## **Titulartasun publikoa**

Halako eskola ereduak zein hezkuntza sistema eskatzen duen pentsatzen hasita, Euskal Hezkuntza Sistema Publikoaren titulartasunak udalen gain beharko lukeela deritzogu. Hau da, titulartasuna publikoa eta bakarra litzateke, tokiko erakundeak diren udalen eskuetan. Halako sistema ereduaren proposatzerakoan Europako iparraldeko herrialdeetako hezkuntza sistemak hartzen ditugu erreferentziatzat.

Helburu estrategikoaz ari gara, jakina baita udal bat ez dela gauza berdina Euskal Herrian eta Finlandian edo Danimarkan. Trantsizio prozesu baten azken geltokia irudikatzen dugu horrela, eta jakitun gara, helmuga horretara iristeko, eraikuntza prozesu oso bat beharko dugula jorratu, soziala eta instituzionala; eta, besteak beste, burujabetza politikoa beharko dugula gaur posible ez diren erabakiak hartu ahal izateko. Estatu eskumenik gabe, instituzionalizazio berri bat eraikitzeke burujabetzarik gabe, ez baitago azken geltoki honetara iristerik.

## **Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabea**

Euskal instituzioei, hezkuntza komunitateari eta herritarrei dagokie, soilik, hezkuntzaren gaineko erabakiak hartzeko eskumen osoa. Euskal instituzioek eskumen eksklusiboak izan behar dituzte hezkuntza politika arautzeko. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko autogobernu ponentzian adostutakoa azpimarratzen dugu:

*Eskumenen lehen multzoa: Hemen sartuko dira ezaugarri bereizgarriak zaintzeko garrantzi berezia duten eskumen sektorial eksklusiboak: hizkuntza, kirola eta euskal kultura; hezkuntza; osasuna; segurtasuna; enplegu publikoa; zuzenbide zibila; kontzertu ekonomikoaren araubidea; hiru euskal foru-erakundeen mailen berezko antolaketa instituzionala (bateratua, lurraldekoa eta udalerrikoa); eta Justizia Administrazioa (botereei eta antolaketa instituzionalari buruzko titulu lan landuko da), berezko espesxe politika barne.*



Arlo horietan guztietan, kontzertu politikoaren birtualtasuna gauzatze aldera, funtsezko eskubideen oinarrizko muinaren edukia mugatzeko alde biko ituna egingo da. EAEko autogobernu ponentzia, 2018.

Beraz, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabea aldarrikatzen dugu. Burujabea bi norabidetan, gainera: espainiar eta frantziar sistemetatik burujabe eta merkatuaren lehiakortasun eta logika lukratibotik burujabe.

Egungo errealitatek abiatzen gara, ordea. Administratiboki zatitua dagoen herri batetik, hezkuntza sistema ezberdinak dituenetik eta adostasun politiko eta sozialak eraikitze baldintza objektibo ezberdinetatik. Horretaz jakitun, euskal estatu bat izan arte zain egon gabe, eskura ditugun tresnak baliatuz, gaurdanik jarraitu behar dugu eraikitzen aipagai dugun sistema. Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabea gaurdanik eraikitzea euskal estatuari bultzada ematea dela egia den neurri berean da egia euskal estatua beharrezko tresna dugula Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabea osotasunean erdiesteko.

Dena den, aukera leho bilaka dezakegun egoera kritiko batean bagaude ere, egoera korapilotsua da, erabat. Batetik, esan dugunez, gure hezkuntza administratiboki zatitua dago. Gainera, publiko, pribatu, kontzertatu sareak ditugu. Horrez gain, A, B, D, G, PAI hizkuntza eredu eta programen arabera zatiketa, hezkuntza laiko zein kristauaren banaketa eta abar. Eta bestetik, hezkuntza komunitatean atzetik datozen ezinikusi eta elkarren kontrako mezuak indartu dira azken boladan, adostasunerako eta elkarlanerako aukerak zailduz.

Gauzak horrela, ausartak izan behar dugu gure proposamenetan. Aipatutako kalapitak gainditu eta, herri ikuspegiz, proposamen berritu eta berritzaileak egiteko ordua da. Sakoneko eraldaketa baten beharra dugu, egiturazkoa, disrupzioa izango dena; jauzi bat aurreraziko gaituena. Trantsizio bati bide eman behar dion jauzi bat irudikatzen dugu. Aurrera ez egitea atzera egitea baita halako egoeran.



Euskal  
Autonomia  
Erkidea

# 1. Euskal Autonomia Erkidegorako trantsizio proposamena: Hezigune, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Bateratua

---

Aipatu dugun helburu estrategikoa lortze bidean, norabidea hori izanik eta egungo errealitateetatik abiatuta, trantsizio-rako proposamen egingarria planteatzen dugu, kasu honetan Euskal Autonomia Erkidegoari begira pentsatua. Abiapuntuko baldintza politikoak ezberdinak izanik Erkidego Autonomoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, trantsizioari begirako eskaintzak ere eremu juridiko-administratibo bakoitzeko errealitatera egokitu beharrean gaude. Baldintza horietako batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan garatuago egonik, lehen trantsizio proposamena bertara begira egiten dugu.

Datozen hilabeteetako erronka izango dugu proposamen honetan planteatzen den ildo estrategikoa Nafarroa Garaian ere kokatzea eta bertan izan lezakeen bidea zehaztu eta garatzea, errealitate sozial, politiko eta juridiko propiotik abiatuta. Horretarako kontuan izan beharko ditugu zonifikazioak eta bestelako faktoreek ezartzen dizkiguten zailtasunak, baita aurrera egiteko aukerak ere.

Proposamen hau Hezkuntza Sistema Publiko Burujaberako trantsizio-bide gisa ulertu behar da, Erkidego Autonomotik ekiteko. Baldintza orokorrak (mundu mailako zerbitzu publikoen pribatizazio basatia, burujabetza politikorik eza) zein partikularrak (adibidez, Autonomia Erkidegoko sistemak dituen desorekak eta sareen arteko gatazka historikoak) hartzen ditugu aintzat abiapuntua ezartzeko orduan.

Proposamen orokorra da, norabide estrategiko bat definitzen duena. Helburua ez da zehaztasun guztiak eskaintzea, norabidea finkatzea baizik. Bide bat irudikatzen baitugu, trantsizio bat, gaurko hezkuntza sistemen sakoneko eraldaketa ezin baita egun batetik bestera egin, prozesu baten emaitza izango da edozein kasutan. Bidean galdu ez gaitezen iparra finkatzea da lehen-lehenengo zeregina.

Proposamen hau gobernu bokazioz eginikoa da, egingarria; herri gisa behar dugun hezkuntza eredia du helburu, eta Europako herrialde aurreratuenen arrastoan kokatuko gintuzkeela deritzogu.

Bi eranskin gehitzen ditugu: Klase eta Segregazioari aurre egiteko neurriekin lehena eta murgiltze eta mantentze sisteman oinarritzen den hizkuntza ikasteredu orokortuari dagokiona bigarrena.

## Prozesu bat eta hiru estadio

Hiru estadio irudikatzen ditugu Euskal Hezkuntza Publiko Burujabearen eraikuntzan. Lehen estadioan Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa sortuko litzateke. Zerbitzu honek balio publikoa zerk ematen duen definituko luke eta, ondorioz, zerbitzuaren parte liratekeen ikastetxeek zein konpromiso hartu beharko lituzketen finantzazio publikoaren ordainetan. Mekanismo argiak definituko lirateke konpromiso horiek betearazteko.

Bigarren estadioan, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa behin egonkortuta, eta sistemaren eraldaketan beharrezko aurrerapenak eginda, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa juridikoki egituratuko litzateke. Helburua: zerbitzua dena sistema gisa eratzeke txertaketa legala eraikitzea. Urrats honek aldaera ezberdinak izan ditzake eta azterketa juridiko ezberdinak egiten ari gara aukera guztiak mahai gainean jartze aldera. Termino orokorretan, titulartasun partekatua eraikitzea litzateke ideia. Horrek Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Bateratura eramango gintuzke.

Hirugarren estadioan, prozesua bururaino eramanda, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujaberako bidea hasiko litzateke, aurreko atalean aipatu geltokira iristeko helburuz: Titulartasun publiko bakarra, udalen eskuetan.

Inportantea da prozesuaren ibilbide estrategikoa irudikatzea. Iparra argi izaten laguntzen digu, eta kontzeptuak argitzen. Baina, aldi berean, inportantea da bereiztea zeintzuk diren gaurko eztabaidak eta zeintzuk etorkizunekoak. Hezigune proposamenak bigarren estadioa deskribatzen du, Eusko Legebiltzarrean adostu den 'Euskal Hezkuntzaren Eraldaketarako Oinarrien Akordioa'ri norabide estrategikoa emate aldera. Izan ere, uste dugu Hezkuntza Akordio honek lehen estadioa marraztu duela, eta EH Bilduk, Euskal Hezkuntzaren eraikuntzari eman nahi dion norabide estrategikoa argi behar du buruan, hain zuzen ere EAEko Hezkuntza Akordioa urrats kualitatiboa izan dadin eraikuntza prozesu historiko baten baitan.

## Definizioa

Sistemaren deszentralizazioan oinarritzen gara, hirugarren atalean azaldu bezala. Eta deszentralizazio prozesu bati ekiteaz ari gara. Hala, ikastetxe komunitario deritzogunak hartzen ditugu sistemaren oinarri, zeintzuek, sistema publiko bateratuaren parte liratekeen neurrian, eskubide eta betebeharrak berdinez lituzketen gizartearen eta administrazioaren aurrean.

Deszentralizazioak bide eman behar du ikastetxe hauek autonomia garatu dezaten, bai berrikuntza pedagogikorako bai eta antolaketarako. Ikastetxearen autokudeaketa dago, beraz, sare publiko bateratu honen abiaburuan.

Ikastetxe komunitarioen izaera juridikoa publikoa zein pribatua izan ahalko litzateke, baina, eredu juridikoa bat edo bestea izan, ikastetxe hauek lankidetzarako hitzarmen berdina sinatuko lukete Eusko Jaurlaritzarekin. Zerbitzu publiko izaera ez luke, beraz, ikastetxearen izaera juridikoak definituko, baizik ikastetxeak komunitatearekiko hartuko lituzkeen konpromisoek. Formulazio honekin ikastetxeak eskubidez eta betebeharrak berdintzen ditugu, administrazioaren eta gizartearen aurrean parekide eginez. Orain arteko publiko/kontzertatu dikotomia gainditzeaz ari gara, hain zuzen ere. Sare ezberdinen arteko bategitearen ideia dago proposamen honen oinarrian, sistema-eredu berri bateranzko trantsizioa abiarazteko indar bateratzea proposatzen dugu.

Argi adierazi nahi dugu deszentralizazioak ez duela hezkuntza administrazioaren eginkizuna lausotzen. Ez dugu desregularizazioa planteatzen, inondik inora. Aitzitik, halako eredu batean hezkuntza administrazioaren rola are garrantzitsuagoa bilakatzen da. Lehengo eta behin, helburu orokorrak finkatu beharko lituzke. Bigarrenik, sistema publiko bateratuaren parte litzatekeen ikastetxe bakoitzak autonomia garatzeko beharrezko baliabideak jasotzen dituela ziurtatu beharko luke (materialak, humanoak, metodologikoak), aintzat hartuz zaurgarritasun egoeran dauden ikastetxeek

baliabide gehiago beharko lituzketela. Eta hirugarrenik, hezkuntza berrikuntzan, euskalduntzean, irakasleen formakuntzan eta beste esparru batzuetan trakzio lana egin beharko luke, lidergo sendoa eta norabidea finkatuz, baliabideak sortu eta eskuragarri jarritz, eta finean, ikastetxeak eta irakasleria ahaldunduz.

Publiko/kontzertatu dikotomia hori gaingitu eta bategitearen bidea urratzeak sistemaren hiru eremu nagusitan egiturazko berrikuntzak txertatzea eskatzen du: eskola eskaintzaren planifikazioan, ikastetxeen finantzazioan eta langileen lan-harremanetan.

Eskola eskaintzari (askotan gaineskaintzari) eta ikasleen onarpenari dagokionez, prozedura zehatza definitu eta, planifikazio bateratua eta matrikulazioaren kudeaketa tokiko mailan egin ahal izateko organoak arautu beharko lirateke beheago proposatuko dugun eran. Ikastetxe komunitarioek tokian tokiko eskola planifikazio orokorra errespetatuko lukete.

Finantzazioari dagokionez, sare honen parte liratekeen ikastetxe guztiek %100eko finantzazioa jasoko lukete. Hezkuntza eskubideak bermatzeko helburuz, ezingo lukete inolako kuotarik kobratu. Ikasleen onarpena erabat irekia litzateke, justua eta gardena. Sare publiko bateratu honen parte ez liratekeen ikastetxeek ez lukete inolako finantzazio publikorik jasoko.

Eta langileei dagokionez, sarea osatuko luketen langile guztiek lan baldintza paretsuak izateko norabidean urratsak eman go lirateke progresiboki. Irakasleak hurbileko ikastetxeetan egonkortu eta lan baldintza duinak bermatu eta iraunkortzea dugu helburu. EPE eredia eraberrituko litzateke, eredu gardenago, demokratikoago eta eraginkorrago baterantz.

Sare publiko bateratuaren proposamen honek badu funtsezko beste berrikuntza bat: administrazio lokalen –udalen, alegia- parte-hartze zuzena hezkuntza sisteman. Hau horrela, Hezkuntza Sailaren organigramaren parte izango diren Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kooperatiboak (THEK) sortzea proposatzen dugu. Esan gabe doa udalek orain arte baino baliabide gehiago beharko dutela, eta lege zirrikituak probestu beharko direla eskumenak ahalik eta gehien garatzeko.

Proposamen honek, badu gailentzen den helburu bat: desoreka ezberdinei aurre egiteko hezkuntzatik justizia soziala bultzatzea, ekitatea bermatzea eta benetako inklusioaren alde egitea. Eta horretarako, ezinbestean, zaurgarritasun egoeran dauden ikastetxeek baliabide gehiago beharko dituzte.

### **Komunitatearen parte-hartzea, inplikazioa eta baliabideen erabilera sustatzea: Hezkuntza Ekosistema Kooperatiboak (THEK)**

Tokian toki Hezkuntza Ekosistema Kooperatiboak eratzearen aldeko hautua egiten dugu, honako helburu hauei jarraiki:

- » Hezkuntza formala eta ez-formalaren ekimenak uztartzea.
- » Hezkuntza xedeetara zuzendutako ekimenak sustatzea.
- » Eskolaz kanpoko baliabideak koordinatzea eta proiektu integralak sustatzea.
- » Aniztasuna balioan jartzea, ikastetxe ezberdinen hezkuntza proiektuen arteko sinergiak eta elkarlana sustatuz.

Gobernantza kooperatibo honetan bi maila aurreikusten ditugu:

1. Herriko hezkuntza planaren garapenean parte-hartzea ahalbidetu eta ezarpen estrategiak identifikatu eta martxan jartzeko **Hezkuntza Kontseiluak**, honako helburuei erantzunez:
  - » Haurren/nerabeen/gazteen interesak zaindu ahal izateko, tokiko hezkuntzaren eta osasun eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa bermatzea.

- » Tokiko oinarrizko hezkuntza ildoak edota bertako curriculum adostea eta garatzea.
- » Etorrin berriei begirako harrera eta egokitze planak egitea.
- » Etorri berrientzat eskolatzeko plana prestatzea.
- » Herriko hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informaleko arteko koordinazio lana egitea.
- » Eskola kirolaren eskaintza kudeatzea.
- » Arlo desberdinetako programak (ingurumena, genero berdintasuna eta abar) koordinatzea. Eta honakoa izan ahalko litzateke bere osaketa:
- » Udalaren ordezkariak: Kultura, gazteria, hezkuntza, migrazioa, gizarte saila.
- » Ikastetxeetako ordezkariak.
- » Aisialdi taldeak.
- » Osakidetzako arduradunak.
- » Kirol/arte/musika eskaintzaren arduradunak.

## 2. Ikastetxeen **hezkuntza eskaintzaren programazio bateratua.**

Kataluniako otsailaren 16ko 11/2021 dekretuan<sup>1</sup> azaltzen den eskola eskaintzaren planifikaziorako eta ikasleen onarpenerako prozedura eta antolaketa baliagarria izan daitezke. Jarraian laburbiltzen dira dekretuan azaltzen diren xedeak eta proposatzen den antolaketa:

Xedeak:

- » Hezkuntza programazioa egitea, gizarte kohesioa bermatzeko tresna nagusi gisa.
- » Kohesio hori erdiesteko ardatz gisa hezkuntza premia espezifikoak dituzten ikasleen banaketa orekatua ezartzea.
- » Ikasleen, familien edo tutoreen eskola hautatzeko aukera aintzat hartzea.
- » Sistema finantzatzeko aurreikuspenak eta etapen antolamenduaren inguruko aurreikuspenak egitea.

Antolaketa:

Hezkuntza eskaintzaren programazioan eta onarpen prozeduran parte hartzea honako hauen bidez bermatzen da:

- » Hezkuntza programazioan parte hartzeko batzordeak eta onarpenerako berme batzordeak.
- » Hezkuntza plangintzako tokiko mahaiak eta eskolatzeko udal bulegoak. Hauek lirateke, laburbilduz, aurreikusten diren organo nagusiak:
- » Hezkuntza eskaintzaren programaziorako organoak:
  - » Tokiko plangintza mahaiak.
  - » Programazioan parte hartzeko batzordeak.
- » Onarpen prozesuan parte hartzeko organoak:
  - » Onarpenerako berme komisioak.

- » Eskolatzeko udal bulegoak.
- » Onarpen prozedurak kudeatzeko organoak.

Honen guztiaren garapenak udalgintza herrigilearen norabidean estrategia municipalista garatzen joatera garamatza. Hau horrela, udalekiko irakurketa sakonagoa egitea ezinbestekoa dugu:

### **Zein da egun Udalaren eta hezkuntzaren arteko harremana?**

Udalen hezkuntza-eskumenak zein diren garbi jasota dago indarrean diren lege ezberdinetan, eta beraz, udalen jarduna hortik abiatzen da. Baina, legeak eskatzen duena harago, tokian toki, gero eta gehiago dira hezkuntza komunitatearekin lankidetzan aritzeko esparruak zabaltzen ari diren udalerrriak. Nolabait, hezkuntzaren esparruan jarduteko erantzukizuna sentitzen dutenak eta udaletatik ere hezkuntza-politikak garatzen dituztenak.

### **Zergatik da garrantzitsua Udala eta hezkuntzaren arteko harremana elikatzea?**

Gero eta gehiago ari da hedatzen herritarrek hezteko ardura partekatua denaren ideia. Horretan sinisten dugu guk. Premisa horretatik abiatzen gara eskola eta herria elkarreaginean jarduten duten bi esparru gisa ulertzen baititugu; batak zein besteak elkarren beharra dute. Alegia, eskola gizartearen isla den modu berean da gizartearen eskolek hezitako herritarren hartzaile zuzena. Ardura partekatzen dugun neurrian, ezinbestekoa da elkar ulertu eta elkarrekin jardutea. Gizarte gisa eta komunitate gisa ditugun erronkak handiegia dira, Udalak soilik edo hezkuntzak soilik euren kasa erantzuteko.

Gainera, Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden instituzioak eta, ondorioz, maila lokaleko erronkak ondoen diagnostikatu eta horiei aurre egiteko esku-hartze gaitasun handi eta eraginkorrena izan dezaketena; finean, herritarren premiak ondoen ezagutu ditzaketena. Lankidetzan jarduteak, gainera, eragin biderkatzailea du, eta ondorioz, gobernatzeko eredu horri eutsi behar diogu.

Eta erronkak aipatu ditugun honetan, azpimarra jarri beharra dugu erronka jakin batean: kohesionatzailea eta ez-segregatzailea izango den herria artikulatzean, hain zuzen. Herri mailako erronka horri justizia sozialaren, berdintasunaren eta ekitatearen printzipioetan oinarrituta erantzun behar diogu.

Bide hau urratu ahal izateko, ondorengo galderari erantzuna ematen ahalegindu gara:

### **Zein printzipioen gainean eraiki beharko genituzke Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kooperatiboak?**

Hiru kategoriatan sailkatutako 10 printzipiotako dekalogoia zerrendatuko dugu. Hauexek dira kategoriak:

1. Gobernantza partekatua.
2. Herri mailako hezkuntza estrategia.
3. Eskubideak eta ongizate integrala.

Lehenak, gobernantza partekatu eta komunitarioak, egiteko moduari egiten dio erreferentzia; alde batetik, bidearen nolakotasunak zuzenean eragiten diolako emaitzari; eta, bestetik, tokiko politikak garatzeko funtsezkoa iruditzen zai-gulako instituzioaren boterea komunitatearekin partekatzea.

Bigarrenak, herri mailako hezkuntza estrategiak, tokiko hezkuntza politikak modu integralean garatzeari egiten dio mentzio; herria hezkuntzarako eragile, testuinguru eta eduki dela sinisten dugun heinean.

Eta azkenak, pertsona guztientzat eskubide guztiak eta ongizate integral gisa definitu dugunak, hezkuntzarako eskubide unibertsala herritar ooren eskura jartzearen eta horrek eskaintzen dituen gutxieneko baldintzen beharrezkotasuna defendatu nahi dugu.

## Gobernantza partekatua

### 1. **Udal Hezkuntza Kontseiluak sortu eta dinamizatzea**

Kontseiluak Udalak herritarrekin boterea partekatzeko tresnak dira. Finean, komunitatearekin, herritarrekin gobernatzeaz hitz egiten ariko ginateke, hezkuntza komunitatearekin boterea partekatzeko espazio errealak ahalbidetzeaz.

Kontseilu hauetatik eratorritako behar beste azpi-lantalde sortzea proposatzen dugu, beharren arabera eta tokian toki, forma eta funtzionamendu ezberdinak hartu ditzaketenak: izan zuzendarien guneak, izan guraso elkarten espazioak, izan ikasleen batzordeak...

Printzipio honek, nagusiki, bi helbururi emango lieke erantzuna:

- » Lehena, hezkuntza komunitateko eragilean topagune izateari. Ezberdinen arteko espazioak ahalbidetzea ezinbestekoa izango da elkar ezagutzarako eta ulermenerako. Harreman sare sendoak sortzeak, enpatiazko jarre-  
rak erdiguneratzea lekarke eta oinarri horrek bide emango lieke bigarren helburuari.
- » Hain justu, hezkuntza sistema publiko bateratuko herri mailako hezkuntza politika bateratuak garatzeko berme izateari. Tresna honen xedea ez baita soilik elkarguneak sortzea bere horretan, elkargune horiek kontsentsuetan oinarritutako erabakiak hartzeko balio beharko lukete. Finean, eta kasu zehatz honetara etorruta, interes partikularrak alboratu eta herri interesa, komuna dena, erdigunean jartzeko balio behar luke; premisa horretatik abiatuta hezkuntzarako politika bateratuak erdiesteko.

### 2. **Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzea**

Erakundeen arteko harreman-bide iraunkorrak sortzea ezinbesteko izango da hezkuntzan ditugun erronkei elkarrekin erantzuteko; espazio horietan herri interesak lehenetsi behar ditugu alderdien interesetik at egongo diren lanerako esparruak sortuz.

Espazio honi bi zeregin nagusi esleituko genizkioke:

- » Batetik, erakundeen arteko koordinazioa; zeinak balio beharko lukeen eguneroko beharrei erantzun koordinatua emateko.
- » Bestetik, etorkizuneko erronketara antzizipatzeko. Aurreikuspenak egiteko, prospekzioarekin jokatzeko, epe ertain eta luzera begira, tokian toki zer nolako estrategiak garatu beharko genituzkeen elkarrekin gogoetatu eta diseinatzeko.



## Herri mailako hezkuntza estrategia

### 3. **Ikastetxe eta herriko hezkuntza ez formaleko eragile hezitzaileen artean norabidea partekatzea**

Hezkuntza formaleko eta ez formaleko eragileen arteko zubiak eraikitzen hasteak berebiziko garrantzia izango du. Indarrak batze aldera, norabide berean aritzera gonbidatu beharko genituzke:

- » Ikastetxeetan eskolaz kanpoko jardueretan aritzen diren profesionalak.
- » Udaletik eskaintzen diren zerbitzu anitzak (izan ludotekak, gaztelekuak, musika eta dantza eskolak, euskaltegiak, haur eta gazteentzat sortzen den programazio oro...).
- » Eta, azkenik, hezkuntza formalean diharduten herri eragileak.

### 4. **Tokian tokiko curriculumen sustapena**

Herri strategiaren garapenean, curriculumean lantzen diren edukiek ere badute garrantzia. Herriarekiko atxikimendua, bertako parte sentitzea, ezagutzatik abiatzen da. Udalak herria ezagutu eta bertan eragiteko tresnak eskaini beharko lizkieke ikastetxeei. Herriarekiko identitate kolektiboa indartzen ahalegindu, etxean sentimendu horren transmisioa jasotzen ez duten haur horiek ere hurbilpen horretarako aukera izan dezaten.

Landutako edukiek bai, baina eduki horiek lantzeko moduek ere baldintzatuko lukete sentimendu komunitarioaren areagotzea. Esaterako:

- » Ikastetxeen urteko programazioan herriarekin lotura duten moduluak egonkortzeak.
- » Lanketa hauetan ikastetxeen arteko elkarretak edo trukeak ahalbidetzeak, ikasle ezberdinek elkarrekin espazioak partekatzeko aukera izan dezaten.
- » Espazio partekatu horiek udal ekipamendu ezberdinetan burutzeak, ekipamendu horietara sarrera naturalik ez duten haurrek herriko baliabideak ezagutu eta hain sentitu ditzaten,
- » Espazio partekatu horiek ikastetxe ezberdinetan burutzeak, bestearen ikastetxea hurbilago sentitu dezaten haurrek.
- » Edo, besteak beste, herritar eta eragileekin elkarlanean jardutea, errealitate ezberdinak ikastetxera gerturatuz.

### 5. **Hezkuntza estrategia bateratuen garapenerako baliabideak ahalbidetzea**

Udalon beste zereginetako batek behar luke herriko hezkuntza eragileei haien proiektuak garatzeko babesa eta aukerak ahalbidetzea. Eta horretarako funtsezkoa da baliabide ekonomikoak eskaintzea, dirulaguntza lerroen bidez, esaterako. Edota azpiegitura seguru eta duinak eskainiz.

### 6. **Eskola maparen diseinu eta berrantolaketa partekatua.**

Kategoria honetako azken printzipioak, eta dekalogoan seigarrena denak, eskola maparen diseinuan jartzen du azpimarra. Eskola mapak herria bera ardazten du eta eragin handia du familien eskolaratze hautuan. Ikastetxearen ingurune eta kokaguneak asko baldintzatuko du familia hartzaileen tipologia; eta, ondorioz, ikastetxearen ezaugarritze soziologikoa. Baita garraioaren beharrezkotasunak ere.

Jaiotze tasaren beherakada esponentziala den honetan, datozen urteotan garrantzia handia hartuko du herriz herriko eskaintzaren berrikuspenak. Udalek berrikuspen horren parte izan beharra dute ezinbestean; eta ez soilik

zenbait azpiegitura eskaintzea gure ardura delako; diseinu honek herriaren egituratze komunitarioan eta kohesio sozialean duen inpaktua izugarria delako baizik.

## Eskubideak eta ongizate integrala

### 7. **Herrira iritsi berri diren ikasleen harreraz, eskolaratzeaz eta bidelaguntzaz arduratzea**

Jakin badakigu ikasle etorri berriak direla zaugarritasun handienetakoa duten ikasleak, oro har, bizi-baldintza gogorretan iristen direlako gurera, sarri oinarritzko beharrak asetu ezinean. Errealitate honek inpaktu handia izaten du ikastetxeetan.

Azken urteotan ikasle etorri berri hauen banaketa orekatua burutzea ez da lortu eta horrek ikasle zein ikastetxeen segregazioa ekarri du berarekin. Egoera larri honi urgentziaz erantzutea dagokigu eta Udalek bide horretan paper garrantzitsua joko dezaketela uste dugu. Bereziki bi arlotan:

- » Etorri berriak diren ikasle eta haien familiei harrera eta ondorengo bidelaguntza integrala eskainiz; tokian tokiko harrera bulegoen sorrerarekin, esaterako.
- » Edota, ikasle hauen eskolaratze orekatua bermatzen laguntzen, beti ere haurren ongizatea erdigunean jartzea helburu izanik.

Laburbilduz, ikasle eta familia iritsi berriei bitartekoak eskaintzeko gaitasuna izan behar genuke ikastetxe barruan zein kanpoan. Lehenik eta behin behar motak identifikatuz eta ondoren esku-hartuz:

- » Behar sozioekonomikoekiko.
- » Hizkuntzarekin lotutako beharrekiko.
- » Aniztasun funtzionalari dagozkionekiko.
- » Ongizatean eragin dezaketen bestelako familia errealitateei dagozkienekiko.

### 8. **Zaugarri diren ikasleei arreta eta erantzun integrala ematea**

Ikasle etorri berriek bezala, bertan jaiotakoek ere zaugarritasun egoerak bizi ditzakete, noski. Eta horiei arreta eskaintzea ere ezinbestekoa da, ongizate gizartean sakontzeko behar handiena duten horiei bitarteko gehiago eman behar baitizkiegu bizitzan duintasunez aurrera egin eta eskubide osodun herritar izan daitezen.

Erantzun integrala bermatzeko ezinbestekoa izango da, besteak beste, gizarte zerbitzuen, osakidetzaren eta ikastetxeen arteko lankidetzira iraunkorra.

### 9. **Familien gaitasun hezitzailea indartzea**

Ongizatearen berme handiena familia da. Ondorioz, arreta ezin dugu soilik ikaslearengan jarri, familiari bere osotasunean erreparatu behar diogu. Bereziki hiru esparrutan:

- » Arrazoi ezberdinak tarteko zaugarriak diren familiak eta interbentzio sozial bat beharrezko dutenak.
- » Interbentzio berezirik behar ez, baina gaitasun hezitzailean sakontzeko prestakuntza jasotzeko gogoz egon daitezkeenak.

- » Haien seme-alaben heziketan aktibo izateaz harago, hezkuntza komunitatean ere aktibo direnak. Esaterako, guraso elkarteetako familiak, zeina tresnak eskaini behar zaizkien haien jardunean sakontzen jarrai dezaten.

#### 10. Herri hezitzailea herritar ooren eskura jartzea

Azken printzipioak herritarra interpelatzeko du, orohar. Ikasle eta familiek begirada berezia behar badute ere, ongizatean oinarritutako herriak Herri Hezitzaile behar du izan. Eta herritarrari jaiotzen denetik hil bitarte hezkuntzarako sarbidea bermatu behar dio.

Udalak, beraz, bere politiketan integratu behar du hezkuntzaren begirada, zeharlerrotasunez, herria eta hezkuntza bat direlako; herria hezkuntza eragile, testuinguru eta eduki delako bere horretan.

### Haur hezkuntza

Funtsezko etapa da haur hezkuntzako, haurren garapen psikomotorrerako, beren sozializazioerako eta euskara barnetatzeko, besteak beste. 0-3 zikloari aitortza berezia egiten diogu, beraz, haurraren garapenean duen balioagatik. Baina, oraindik orain, badira haurren aparkaleku huts gisa eta inongo planteamendu hezitzailearik gabe funtzionatzen duten "haurtzaindegia".

Dimentsio ahaztuak landu behar dira: soziala, emozionala eta komunikatiboa. Haurraren ongizatean zuzeneko eragina duten hainbat dimentsio, oso gutxi hartzen dira kontuan. Hurrengo ikasturteetan hezkuntzaren helburu kognitiboetatik haratago doazen helburuak ere (sozialak, emozionalak, harremanetarako gaitasuna...) kontuan hartu eta bereziki sustatu behar ditugu.

Hau horrela, 0-6 derrigorrezko etapa izan gabe ere, eskaintza unibertsalekoa, doakoa, eta hezkuntza sistemaren baitakoa izan behar dela deritzogu bere bi zikloetan (0-3 zein 3-6).

0-3 zikloari dagokionez, esan behar dugu, pribatizazioaren aldeko joera hartu duela azken urteetan Hezkuntza sailaren baimenarekin. Gauzak horrela, ikasleen sailkapen goiztiarrean zein ibilbide akademikoan eragin zuzena du ziklo honek, eta kasu askotan, ez gardena.

Hau kontuan izanik, 0-3 zikloari dagokionean, jauzi bat emateko unea dela deritzogu. Haurreskolak partzuergo Hezigune sare publiko bateratuaren baitan txertatzearen alde egiten dugu, Hezkuntza sisteman integratzearen alde. Horrela, Haurreskolak zerbitzua unibertsala, doakoa, euskalduna eta pedagogikoki aurrerakoia izatea proposatzen dugu. Beraz, adostutako trantsizio bide bat egitea planteatzen dugu non egungo eskaintza ezberdinek (udal haur eskolak, titularitate pribatuko haur eskolak...) Haurreskolak Patzuergoan egingo luketen bat.

Honekin batera udalek bertan duten paperean sakontzea ezinbestekoa izango da eta horretarako egun indarrean dauden Haurreskolak Partzuergoaren estatutuak aldatzea proposatzen dugu, 0-3 zikloaren baitan erakunde ezberdinen parte hartze komunitarioa handitu dadin.

Aipatu nahi dugu ere, 0-3 zein 0-6 zikloetan Arreta Goiztiarra txertatuko litzatekeela, eta horrela, premia bereziak dituzten ikasleen beharrak modurik egokienean asetzeko neurriak hartuko liratekeela.

## Laguntza-zerbitzuak

Hezkuntza sistemaren bizkarrezurra dira Berritzeguneak eta ikuskaritza zerbitzuak. Hezkuntza sistemaren kalitatea bermatu, araudiaren betetze maila ziurtatu eta berrikuntza pedagogikoa sustatzea dira beren helburua. Jakin badakigu, ordea, egun, instituzio hauek ez dutela bertako profesionalen potentzial guztia garatzeko nahikoa indar. Sakoneko eraldaketa baten faltan dira, beraz. Hezkuntza sistemak dituen erronkei aurre egiteko, instituzio hauek eraberritzea ezinbestekoa da.

Abiapuntua ikastetxeen hezkuntza proiektuan jarrita, proiektu hauen autonomiaren mesedetan egongo diren eta hezkuntza berrikuntzan proaktiboak izango diren instituzioak izatera pasako lirateke. Nahiz eta egun hainbat gabezi identifikatu, bertako profesionalen lana eta balioa aitortu eta eraldaketarako motore gisa baliatzeko egindakoaren aitortza egiten dugu.

Laguntza-zerbitzuak ikastetxeen hobekuntzarako funtsezko eragileak dira eta gizarte-elkarrekintzan oinarritutako ikaskuntza-komunitate profesionalen bidelagun. Horregatik, ikasten duen eskolei, ingurune eta egoera berrietara sistematikoki aldatzen eta egokitzen lagunduko die, eta, aldaketa-dinamiken eta -prozesuen garapenean erraztasunez murgiltzen.

Ikaslea hezkuntza-sistemaren ardatza izanik eta irakaslea giltzarri, laguntza-zerbitzuak, balio erantsia eskainiz, gizar-teak ikastetxeei planteatzen dizkion premiazko erronkei egokitzea erraztuko die.

Prestakuntza, Berrikuntza eta Ikerketa zentroak ikastetxeen arteko sareak bultzatu eta harilkatuko ditu haien arteko lankidetzak, praktika berritzaileen partekatzea, profesionalen arteko elkarrekintza, komunitateko-kideen arteko harremanak, eta, pertsonen hausnarketa pedagogikoan oinarritutako iritzien kontraste askean.

Hezkuntza ikuskaritza zein Prestakuntza, Berrikuntza eta Ikerketa zentroaren esku-hartzearen abiapuntua tokian-tokiko ikastetxeen Hezkuntza Proiektua izango da. Testuinguru hori oinarri, premiak edo beharriak identifikatu eta horien jarraipen eta ebaluazioaren bidelagun izango dira. Ikastetxearen begirada globala izango dute oinarri horretarako, eta ezinbestean, ikastetxe zein ikasgelaren ezagutza handia izan beharko dute.

Proposamen honek, zerbitzuen arteko elkarlana eta koordinazioa sistematizatzearen beharra azpimarratu nahi du, izan ere, egungo erronka da zerbitzu bakoitzak bere izaera eta funtzioetatik abiatuta ikastetxeei era partekatuan erantzun bateratuak eskaintzea.

## Hezkuntza Ikuskaritza

Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeetako komunitatearen eskubide eta betebeharren bermea eta hezkuntza-sistemaren ekitatea, inklusioa eta hobekuntza sustatuko ditu. Ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzutea eta guztien hezkuntza-arrakasta lortzea dira hezkuntza-ikuskaritzaren funtsezko xedeak. Kalitate faktore gisa ikastetxeei praktika eraldatzen lagunduko die beraien ikaskuntza-komunitate profesionalarekin esku-hartuz, baita lidergo pedagogikoa eta antolaketa eredu definituz eta garatzeko bideak ezarri ere.

Araudiak esleitzen dizkion funtzioekin bat eginez, ikuskaritzaren helbururik behinena ikastetxea etengabeko hobekuntzara bideratzea izango da. Alde batetik, prozesuak eta emaitzak hobetzen, eta bestetik, ebaluazioa, autoebaluazioa zein kontrasteen kultura finkatzen.

Ikuskaritza berritzailea eta sortzailea izango da: eraldatzailea, bidelaguna eta proaktiboa. Balio erantsia emango duena bere antolaketa-eredua malgua eta ikastetxeetan modu positiboan eragingo duena. Kontrolatik harago, ikastetxeak konpromisora gidatuko duena. Bere begirada eta ezagutza teknikitik ikastetxeetako komunitate osoarekin lankidetzan

aritu, eta, arlo pedagogikoa indartzeko, ezinbestean, ikasgelatik hurbilago eta gehiegizko burokraziatik urrunago egon beharko da.

XXI. mendeko ikuskaritzaren erronka handienetakoa zeregin pedagogikoa areagotzea da. Horretarako, ikasleen irakas-kuntza-, ikaskuntza- eta ebaluazio-prozesuetan sakonago inplikatzea ezinbestekoa da.

## **Prestakuntza, Berrikuntza eta Ikerketa zentroa**

Prestakuntza, Berrikuntza eta Ikerketa zentroa ikastetxeetako prestakuntza-eredua aldatu eta birpentsatuko duen eragilea izango da eta erronka berrietara zein egungo irakasteko moduetara egokituko da.

Hezkuntza-sistemaren kalitatea bermatzeko irakasleen etengabeko formazioa indartu eta lehenestea izango du helburu. Proiektu bat amestuta etorkizuna elkarrekin irudikatzen duten profesionalak behar ditugu ikastetxeetan, elkarrekin lan egiten duen komunitatea, izan ere, iparra ikaslearen heziketa integrala da.

Irakasleen etengabeko prestakuntza ikasgelako beharretatik abiatuko da, lan-testuinguruekin konektatu eta profesionalak prozesuaren protagonista bihurtu. Irakasleen gaitasun-profilean oinarrituko den formazio planak beraien prozesuen liderrak bihurtuko ditu. Estrategia ugari erabiliko dira: berdinen arteko ikaskuntza, ikasgeletako behaketak, turismo pedagogikoa, profesionalen arteko sareak...

Faktore garrantzitsu gisa azpimarratu behar dugu ikastetxeek eta unibertsitateek lankidetzan aritzearen garrantzia. Eta, esperientzian oinarritutako ezagutzaren zein ikerketaren arteko elkarrizketa-zubiak eraikitzea. Ikastetxeek, ikerkuntzan oinarritzen den aldaketa- eta berrikuntza-prozesu planifikatuak izango dituzte, gizarte-bilakaerari erantzun eta gainerako ikastetxeetara transferitu daitekeena.

## **Ikastetxeen lidergoa: Zuzendaritza taldeak**

Hezkuntza ikerketen arabera lidergoa funtsezko elementua da ikastetxeen kalitatea hobetzeko, eta ondorioz, Hezkuntza Proiektuak. Hau horrela, ikasleen ikaskuntzan eragin handiena duen bigarren faktorea da hau. Zuzendaritza-taldeak hezkuntza-sistemaren bihotza dira eta euren prestakuntzan, aholkularitzan, eta ebaluazio formatiboan inbertitu behar da ikasle guztien arrakasta lortu nahi baldin bada.

Sare publiko bateratua osatzen duten ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek, arreta berezia titularitate publikoko eskoletan jarriz, komunitate osoarekin eta lidergo pedagogikotik abiatuta, eraldaketako ikaskuntza-komunitate profesionala gidatuko dute.

Erakundea ez ezik, pertsonak transformatuz, elkarrekin ikasten duen eskola garatzea da helburua. Gizarteko erronka berriei erantzungo dien eskoletako gidariak izango dira, hau da: eskola inklusiboa, digitala, eleaniztasunetik eta kulturartekotasunetik euskara eta euskal kultura ardatz duen eskola, oinarritzko kultura zientifiko-teknologikoa transmititzen eta sustatzen duena.

Prestakuntza XXI. mendeko zuzendaritza-konpetentzien profilean oinarritutako da. Formazioa zuzendaritza-talde osoari eskainiz eta etengabeko prestakuntza-plan zehatzak ezarriz. Baita gainontzeko profesionalei ere.

Zuzendaritza-taldeek elkarrekin lan egingo dute ikastetxe guztien arteko ezagutzak konektatzeko eta esperientziak elkar-transferitzeko, izan ere, horrek ikasleriari bere onena garatzen lagunduko dio.

Horretarako, ikastetxeen kudeaketa eta antolaketa ereduetan urratsak emango dira pertsonak erdigunean jarriko duen kudeaketa eredu aurreraturantz bidea eginez. Horretarako, garrantzitsua izango da estrategia komunitatearekin parte-

katzea, ikasleak egitekoaren erdigunean jartzea, berrikuntzak ikastetxea ziprztintzea, eta, emaitzak aztertu eta etengabeko hobekuntzak proposatzea.

## Hezkuntza sistemaren digitalizazioa

Hezkuntza, etorkizuneko herritar digital ahaldunduak hezteko tresna den heinean, eraldaketa digitalaren oinarritzko zutabe garrantzitsua da. Hori horrela, ezinbestekoa da hezkuntza-sistemaren digitalizazioaren oinarriak modu konzistente, kritiko eta arduratsu batean definitzea.

Atzerriko enpresa teknologiko erraldoien tresna eta plataformak gero eta txertatuago daude herritarron eguneroko bizitzan eta baita EAeko hezkuntza sisteman ere, non erakundeak haurren datuen kudeaketa egokiaren arduradun diren. Egun, gure sistema horrela dago osatua: %46 Chromebook, %41 Windows, %4 iPad, %8 bestelakoa.

Teknologia ez da neutrala, erakunde publikoek burujabetza teknologikoaren aldeko apustua egiteko ardura dute, euskal hezkuntza-sistemaren digitalizazioa demokratikoa, etikoa, burujabea, euskalduna, iraunkorra eta kolaboratiboa izan dadin. Hau bermatu ahal izateko, software eta hardware librearen aldeko hautua egingo da, jarraian aipatzen diren oinarriekin:

1. Hezkuntza-sistemaren digitalizazioaren plan estrategikoa sortuko da. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak digitalizatzeko benetako beharraren eta tresna digitalen erabileraren gaineko hausnarketa sakon eta zabal bat egitea oinarritzkoa eta ezinbestekoa da, oinarri pedagogiko sendoen eskutik joan dadin. Hau da, sakon hausnartu ondoren definitu behar da hezkuntza-sistemaren etapa bakoitzean digitalizazioa zein neurritan den beharrezkoa, zein helbururekin, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren zein unetan, zein tresna eta nola erabiliz.
2. Datuen burujabetza eta pribatutasuna: Hezkuntza-sistemaren digitalizazioa hezkuntza komunitate osoaren datuen burujabetza eta pribatutasuna bermatuz egingo da. Horretarako, ezinbestean, tresna digital auditagarri eta demokratikoak erabiliko dira.
3. Ikasle eta irakasleen ahalduntze digitala lortzea bermatu behar du, gaitasun digitaletan, erabiltzaile profil hutsetik haratago, eraldaketa digitalean eragile aktibo izan daitezen. Ikasleak herritar digital arduratsu eta kritiko gisa heziko dira. Irakasleen etengabeko prestakuntza digitala sustatuko da. Familiak ere ahalduntze digitalaren prozesuaren parte izango dira.
4. IKT-arduradun eta "Pedagogo-digitalen" sarea: IKT arduradunek profil teknikoa izango dute eta "pedagogo digitalak" ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen digitalizazioaren arduradunak izango dira. Ikastetxe bakoitzean bi profilak egongo dira eta profil bakoitzak bere sarea izango du.
5. Euskararen eta eleaniztasunaren teknologiak erabiliko dira. Software librea da euskarara eta beste hizkuntzetara lokalizazioa ahalbidetzen duen software mota. Software librea euskaratzeko aukerak euskarak arlo digitalean garatzeko behar duen askatasuna bermatzen du.
6. Hezkuntza Plataforma Digital Kolaboratiboa sortuko da, software librea oinarri duena eta hezkuntzaren digitalizazioari erantzun integrala emango diona, jada garatuak dauden tresnetatik abiatuz (nahi bada), elkarlana sustatuz eta sortutako jakintza eta tresnak partekatuz. Jakintza teknologiko lokala garatzea ahalbidetuko du.
7. Azpiegitura eta baliabideak bermatuko dira. Beharrezkoak diren azpiegitura, baliabide tekniko eta mantenu-zerbitzuak bermatuko dira.

8. Ekonomia teknologiko lokala indartuko da, KM0 digitalizazioa sustatuz. Hezkuntzaren digitalizazioak beharrezko egiten dituen azpiegitura, baliabide eta mantenu-zerbitzuak tokiko enpresa teknologikoak inplikatuz eta indartuz eskainiko dira, eta beharrezkoak direnak sortuz. Ekonomia teknologiko lokala garatzea ahalbidetuko du.
9. Iraunkortasuna: Hezkuntzaren digitalizazioak NBen (Nazio Batuen Elkartea) Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak bere baitan jasoko ditu. Digitalizazio berdea izango da oinarria, zaharkitze-programatua alboratuz, ekipoak eta azpiegiturak ahalik eta iraunkorrenak izanez.
10. Inklusioa. Arrakala digital guztiak gaituko ditu, sozio-ekonomikoa, generoari loturikoa, aniztasun funtzionala-rena, geografikoa, eta abar.

## Hezkuntza fakultateak

Administrazioak ezinbestekoa du hezkuntza berrikuntzarako inteligentzia eskuragarri izatea. Zentzu horretan, hezkuntza fakultate ezberdinen eta Hezkuntza Sailaren arteko harremana birpentsatu egin behar da. Hezkuntza fakultateek Heziguneren garapenari begira egokituko lituzkete beren programak.

Heziguneren garapenaren azterketa sistematizatua, hezkuntza berrikuntzari begirako prospekzio estrategikoa eta irakasleen eta hezitzaileen formakuntzarako baliabideen berrikuntza lirateke unibertsitatearen zeregin nagusiak, besteak beste, eredu berri honetan; Berritzeguneeekin edo egon daitezkeen bestelako erakundeekin elkarlanean beti ere.

## Euskararen Jabekuntzarako eta Euskal Kulturaren Transmisiorako Institutua (EJEKTI)

Euskararen Jabekuntzarako eta Euskal Kulturaren Transmisiorako Institutua sortzea proposatzen dugu, orain artean Euskara Zerbitzuak izan direnak berrantolatu eta berrindartzearen ondorioz. Gaur arte garatu diren proiektu eta programen irakaspenak jasoz (Irale, Nolega, girotze barnetegiak), ikastetxeen hizkuntza proiektuak garatzeko beharrezko baliabideak garatuko lituzke, derrigorrezko eskolaldia bukatzean ikasleek legeak zehaztutako gutxienezko hizkuntza gaitasuna eskuratzen dutela bermatuz.

Orain arte ez bezala, hizkuntzaren jabekuntza hutsetik haratago, garrantzia berezia emango litzaioke komunikazio sinbolikoari, afektiboari eta kultur komunikazioari. Horretarako, irakasleek kultur eragileak izan beharko lukete, eta haratarako beharrezko den formakuntza jaso beharko lukete.

Institutu honek, derrigorrezko eskolaldiaz arduratzeaz gain, urratsak eman beharko ditu gainontzeko eskolaldietan ere euskararen jabekuntza bermatzeko, hala nola, Lanbide Heziketa edota unibertsitatean.

Horrez gain, Autonomia Erkidegoak duen eskuduntzaren baitan zehaztu behar den curriculum bertan definituko litzateke, inplikatutako sektoreekin elkarlan iraunkorrean. Eduki propioak sortuko lituzke eta beharrezko materialgintza industria propioa sustatuko luke.

Institutu hau lagungarria izango litzateke, baita ere, ikastetxeen autonomiaren arabera curriculumak (%10) zein udal-erri mailakoak garatzeko.

Laburbilduz, hauek lirateke Hezigune sare publiko bateratuaren parte liratekeen ikastetxe komunitarioen eskubide eta betebeharrak:

- » Araudia: Oinarrizko araudi guztia bete beharko lukete. Hala nola, ebaluazio orokorrei, curriculumaren minimoei edota langileen lan-baldintza duinei erantzun beharko liokete.

- » Ikasleen onarpena: Hezkuntza Sailak zehaztutako irizpide orokorrekin, hezkuntza eskaintzaren planifikazio bateratua egiteko organoei dagokie matrikularen gaineko kontrola egitea, gardentasuna bermatzea eta desorekak (baleude) gainditzeko bitartekoak proposatzea.
- » Curriculum eta ebaluazioa: Araudi orokorrak zehaztuko lituzke. Badakigu konpetentzia eskusiboak izan arte espainiar estatuko lege organikoen menpeko minimoak landu beharko direla eta titulazioa Ministerioak zehaztuko duela. Baina Autonomia Erkidegoari dagokionean, sare honetako ikastetxeek curriculumaren inplementazio lokalean zein ebaluazioan autonomia izango lukete. Herrietako Hezkuntza Kontseiluetan zehazten diren tokian tokiko curriculumen minimoak ere barneratu beharko lituzkete. Sistema ebaluatzeke tresna orokorretan, ordea, sare honetako ikastetxe guztiek hartu beharko lukete parte beharrezkoa denean (ISEI-k egiten dituen ebaluazio diagnostikoetan, adibidez).
- » Hizkuntza: Sare honetan euskarazko murgiltze eta mantentze sisteman oinarritutako ikasteredu orokortu berria litzateke eredu bakarra. Horretarako, eta dugun errealitatetik abiatuta, planifikazio bat beharko litzateke, sare honetako ikastetxe guztiek trantsizioa egin dezaten duten ereduak euskarazko ikasteredu orokortura. Trantsizio egoeran D ereduak lortu beharreko gaitasunean sakontzea lehenetsiko litzateke. Alegia, Euskalgintzaren Kontseiluak egindako Ikasle Euskaldun Eleaniztunak Sortzen proposamena jarraituz, derrigorrezko eskolaldia bukatzean (DBH4), gutxienez Europar Batasuneko adierazlearen B2 maila euskaraz zein gazteleraz eta B1 maila atzerriko hizkuntzan, gutxienez.
- » Laikotasuna: Laikotasuna printzipioa da Hezigunen. Beraz, inongo doktrina erlijiosok ez du lekurik. Hau horrela, gai honetan, legeak agindutako minimoa izango da Hezigunen eskaini litekeen maximoa.
- » Autonomia: Beti ere, tokiko planifikazio orokorreko irizpideak errespetatuz.
- » Gobernantza: Eskolaren esku, beti ere, komunitate osoaren parte-hartzea modu demokratikoan bermatzen baldin bada.
- » Kontratazioa: Irakasleen kontratazioa ikastetxeen hezkuntza proiektuaren arabera egokitzeko aukera egongo litzateke, ikastetxeek irizpideak zehaztu ahaliko babiluzkete beraien hezkuntza proiektuak eskatzen dituen profilen arabera. “Gerentismoa” eta “a dedo” kontratazioak ekiditeko, administrazioak kontratazioa modu gardenean eta aukera berdintasuna errespetatuz egiten dela ziurtatuko luke.

Sektore bakoitzeko elkarrizketa sozialeko mahaiei egiten diegu aitortza eta akordioen ondoriozko eta sindikatuekin adostutako lan-hitzarmenak aldarrikatzen ditugu.

- » Finantziak: %100 publikoa. Doakotasuna.
- » Tokiko Hezkuntza Kontseilua: Parte izan beharko dira.
- » Hezkuntza eskaintzaren planifikazioa: Tokiko hezkuntza eskaintzaren planifikazio bateratua egiteko dagozkien organoetan parte hartuko dute.
- » Titularitatea: Titularitatea, zentzu zabalean ulertuta, partekatua litzateke, Hezkuntza Sailaren eta ikastetxeen artekoa. Izan ere, hezkuntza jarduera administrazioaren eta ikastetxe komunitarioen arteko erantzukizun partekatua da eredu honetan, bata zein besteek konpromiso tasatuak hartzen baitituzte beren gain titularitateari dagozkion arlo funtsezkoetan. Baldintza konkretuetan, aukera egongo litzateke udalek titulartasunari dagozkion konpetentziak beren gain hartzeko.



Esan bezala, Hezigune sare publiko bateratuaren parte izatea bateragarria litzateke ikastetxeek antolaketa eredu ezberdinak izatearekin (baita eredu juridiko ezberdinak ere). Beti ere, ikastetxeak berdinak lirateke administrazioaren eta gizartearen aurrean, eskubide eta betebeharrak berdinekin.

Eredu juridiko pribatua duten eta hainbat faktore medio (konplexutasun egoera altua duten ikastetxeak, egoera zaurgarrian daudenak...), administrazioaren eskuetara pasa nahi duten ikastetxeei aukera hori emango zaie. Hau horrela, egoera konkretu bakoitzaren gaineko diagnostikoa egingo da, kontutan izanda ikastetxeak titularitate publikoa izateko dituen arazoak, udalerriko hezkuntza planifikazioan izan dezakeen eragina eta eskola-mapari eragin diezazkiokeen aldaketak.

Aldaketa honek ikastetxeko sektore guztien, langileen ordezkarien eta Hezkuntza Administrazioaren arteko adostasuna izan beharko du oinarri eta, eredu gisa, 2019ko Kataluniako “decret llei 10/2019, de 28 de maig, del procediment d'integració de centres educatius a la xarxa de titularitat de la Generalitat” dugu.

Honek, Hezkuntza Administrazioaren menpe utziko ditu, besteak beste, langileak, ondarea, azpiegiturak eta lurzorua.

- » Ondarea: Hezigune sareko kide diren ikastetxe bakoitzak egingo duen bere ondarearen erabilera partikularraz harago, tokiko Hezkuntza Kontseiluan dauden azpiegitura beharrak aztertuko dira eta horren arabera ikastetxeen azpiegiturak partekatuko ahalko dira. Heziguneko ikastetxeren batek, hezkuntza planifikazioaren arabera, hezkuntza eskaintza emateari utziko balio, ondarea administrazioaren esku geldituko litzateke. Honetarako, araudi propioa egingo da.

Eta beraz, honela laburbilduko genituzke Hezigune Euskal Sistema Publiko Bateratuaren ezaugarri nagusiak:

1. Gaur egungo sare ezberdinen bategitea planteatzen du. Bategite hori sistemaren konfigurazio berri batean gauzatzen da, deszentralizazioa oinarri. Sistema berri honek ikastetxeen autokudeaketa (autonomia) du abiaburuan, ikastetxe komunitario deritzogunak hartuz oinarri gisa.
  - » Bategitera eramaten dira titularitatearekin zerikusia duten arlo nagusiak: eskola eskaintzaren planifikazioa, ikastetxeen finantzazioa eta lan harremanak. Era horretan, erantzukizun partekatuko harremana eraikitzen da hezkuntza administrazioaren eta ikastetxe komunitarioen artean.
  - » Konfigurazio honek gobernantza sistema berri bat eskatzen du, non udalek paper funtsezkoa betetzen duten Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kooperatibo (THEK) deritzogun eraketan. Tokiko eskalan egingo litzatekeen esku-hartze honetan bi maila bereizten dira: hezkuntza proiektu komunitarioen lanketa eta, eskola eskaintzaren planifikazioa eta ikasleen onarpenaren kudeaketa.
2. Iraultza pedagogikoa: Horretarako, lidergo pedagogikoa ikastetxeen esku jartzen du eta sistemaren baliabideak (Berritzeguneak, ikuskaritza, ebaluazioa, prospektiba) birprogramatzea planteatzen du ikastetxeak hezkuntza berrikuntzaren bidean jauzia emateko gaitu eta ahaldundu daitezen.
3. Euskalduntzean jauzia: Euskal hiztun eleaniztunak sortzeko hezkuntza eredurik eraginkorra den euskarazko ikasteredu orokortuaren alde egiten du, eta eredu hori beharrezko edukiz eta baliabidez betetzeko sistemaren baliabideak berrantolatzea proposatzen du, Euskararen Jabekuntzarako eta Euskal Kulturaren Transmisiorako Institutua (EJEKTI) sortuz.
4. Hezkuntza kalitatea bermatzeko beharrezko inbertsio publikoaren alde egiten du, zeina BPGaren %6an kuantifikatzen den.

# 1.1 Eranskina: Hizkuntza ikasteredu orokortua

---

## Sar hitza

“Euskadiko herritar guztiei jakinarazten diet Eusko Legebiltzarrak azaroaren 24ko 10/1982 **Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legea** onartu duela. Ondorioz, Euskadiko herritar guztiei, norbanako zein agintari, bete eta betearazi dezatela agintzen diet”

Honela zioen Carlos Garaikoetxea Urriza orduko Euskal Autonomia Elkartearen lehendakari zenak Gasteizen, 1982ko azaroaren 24an, argitaratu zuen jakinarazpenak.<sup>1</sup>

Euskararen legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, beraz, 40 urte beteko ditu aurten. Lege horren hegalpean hasi ziren egosten, ondorengo hamarkadetan ezagutu ditugun A, B eta D hizkuntza-ereduak.

Ez dira alferrik igaro lau hamarkada! Esan gabe doa, 40 urte hauetan jendartea ez dela bera, ezta gu geroni ere. Aldatu dira jendarteak dituen beharrak, jendarteak dituen ikuspegiak; Hizkuntzan, Soziolinguistikan, Psikolinguistikan, Glotodidaktikan, Pedagogian, Didaktikan, Metodologian eta beste hainbat diziplinetan ditugun ezagutzak...; egin dira ikerketa eta esperimentazio berriak eta haien emaitzek aldatu dituzte artean genituen usteak, teoriak eta tesiak; lausotu dira Europar Batasuneko herrialdeen arteko mugak –eta hein handi batean, baita mundukoak ere, lehen mundua deitzen dugun horretakoak, behintzat–; azkar aldatzen ari dira hizkuntza-ohiturak; eleaniztasunaren kontzeptua hedatu da; Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratua<sup>2</sup> indarrean ipini zen 2001ean; Hizkuntzak Irakatsi eta Ikasteko Markoa jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak 2005ean; Euskalgintzaren Kontseiluak 2008an ezagutarazi zuen *Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen* bere proposamena; Hizkuntza ereduak berak jendarte kohesioari eta belaunaldi berrien arteko aukera berdintasunari zuzenean eragiten die, eskolan lehenik eta jendartearen ondoren, bazterkeria sustatuz; Pandemia batek astindu gaitu eta kolokan jarri ditu jendartearen zimenduak, eta nola ez hezkuntzarenak eta euskararen irakas-ikastearenak, gure arteko harremanak eta komunikazioak aldarazteraino; aldatu dira bizi-ohiturak, aldatu dira balioak; digitalizazioaren zabalkundera moldatzen saiatzen ari gara gure komunikazioa, harremanak, baita lan egiteko modua ere. Mundu ikuskera berri bat sortzen ari da, eta horren guztiaren erdian, euskaldunoi dagokigu jendarte eta errealitate anitz eta konplexu horretan gure lekua hartzea, eta, berezko hizkuntza eta kultura ditugun heinean, herri gisa eta norbanako gisa gure ekarpena egitea jendarte hori aberasteko.

1. *Euskararen Legeak 30 urte*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitori-Gasteiz, 2012, 9. or [https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA\\_WEB.pdf](https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA_WEB.pdf)

2. Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratua, HABE, Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna eta Hezkuntza, Unibertsitatebeta Ikereketak saila, euskarazko edizioarentzat, 2005. Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa

Euskaldunok euskaldun gisa (zenbat aldatu diren bi kontzeptu horiek ere!) biziraungo badugu, euskaldun eleaniztun gisa izango da, dudarik gabe. Bi hizkuntza ofizial izanagatik<sup>3</sup>, horietako bat gutxitua, euskara, hain zuzen, duen herria da gurea. Ez da erronka makala aurrean duguna. Testuinguru horretan, euskal haur eta gazteak abiada bizian aldatzen ari den jendaratean manea daitezzen heztea eta prestatzea zinez egiteko konplexua da.

Ez dira alferrik igaro 40 urte, ordea, izandako eskarmentutik eta erdietsitako emaitzetatik eskuratutako ikaspenak baliatu behar ditugu aitortzarik gabe eta normalizatu gabe, munduko mapan marraztu gabe, dirauen herri honetako neska-mutilei legez zor dioguna bermatzeko: eskolaldiaren amaieran bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz eta gaztelaniaz, gutxienez, B2 hizkuntza gaitasun maila eta atzerriko hizkuntzan B1 eskuratzea. Erronkari horri ahalik eta egokien erantzuteko bideak diseinatzeko tenorea da. Eta horrekin batera, euskal jendarteari momentuaren garrantziaz ohartarazteko ahalegina egitekoa ere bai.

Aldatu dira, ondorioz eta zorionez, ditugun aukerak ere. XXI. mendeko tresnekin eta jakintzarekin aurrera egin behar dugu historiak hainbeste urtetako borrokaren ondoren ipini gaituen abagunean: Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Akordioa erdiesteko bidean. Hezkuntza Akordio hori ulertuta Euskal Herriko herrialde batzuetatik abiatuta etorkizunean herrialde guztiak, bakoitza bere ñabardura eta berezitasunekin, barne bilduko dituen Hezkuntza Sistema Nazionalaren eraikuntzaren urrats gisa.

## Testuingurua

Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak 2021-2022 ikasturteari hasiera emateko ekitaldian adierazi zuenez, ikasturte honetako helburuen artean du Hezkuntza Hitzarmena adostea.<sup>4</sup>

Testuinguru horretan, eta gaur eguneko Hezkuntza errealitatea kontuan izanik, EH Bilduren aburuz, balizko Hezkuntza Akordioak, besteak beste, bi korapilo aurkeztuko lizkiguke: segregazioa eta euskararena. Horregatik, EH Bilduk, aurkeztu duen **HEZKUNTZA SISTEMA PUBLIKO BURUJABERANTZ** proposamenean, bereziki landu eta sakondu nahi izan ditu bi alde horiek, begirada pausatuta nahi izan du segregazioan eta euskararen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

Horretarako, plazaratuko duen EH Bilduren Hezkuntza Proposamena txostenari bi eranskin gehitu nahi izan dizkio, Segregazioak eta Hizkuntza Eredu Orokortua deritzonak, biak estuki lotuak dauden arren, zehar lerroak diren arren, bakoitzak baduelako gorputz propioa.

Euskararen Legea bezala ezagutu den 10/1982 azaroaren 24ko Legeak 40 urte beteko ditu aurten, esan dugu lehen. Haren babespean etorri zen 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, **Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzen duena**<sup>5</sup>.

Hamaika ebaluazio eta azterketa egin dira urte horietan guztietan ereduak lortu dituzten emaitzez, izan duten eraginez eta abar. Ez gara, beraz, gehiago luzatuko.<sup>6</sup>

3. Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-agintarien esku jartzen dute euskararen erabilera normalizatza eta garatzera bideratutako neurriak hartzea, bere bi ikuspegiak kontutan hartuz: bai euskal herriaren kultura-ondarearen funtsezko osagai denez eta bai, gaztelaniarekin batera, Autonomia Erkidegoko lurraldean erabilera ofizialeko hizkuntza denez. Horretaz, bada, euskara gure Erkidegoko nortasunaren ezaugarri nabarmena eta objektiboena dela ezagutzen dugu eta, euskara jakinez eta erabiliz, gizakiak erkidegoan bete-betean txertatzeko tresna dela. Euskararen Legeak 30 urte, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen zerbitzu nagusia, Vitori-Gasteiz, 2012, 9. or [https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA\\_WEB.pdf](https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA_WEB.pdf)

4. Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuaren 2021-2022 ikasturte hasierako hitzaldia: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/71433-jokin-bildarratz-sailburuak-hasiera-eman-dio-2021-2022-ikasturteari>

5. 138/1983 Dekretua uztailaren 11koa: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/1983/07/11/138/dof/eus/html/webleg00-confich/eu/>

6. Euskal Hezkuntza-Sistemaren diagnostikoa, ISEI-IVEI, 2021. <https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/hezkuntza-sistemaren-diagnostikoa>

Aspaldixotik dakigu Hizkuntza ereduak ez direla baliagarri gertatzen ari 10/1982 Legeak, Euskararen Legeak, 17. artikuluan ezarritako helburua erdiesteko: “Jaurlearitzak derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu; halaber, euskal giroa ziurtatuko du, euskara (ikastetxeetako) barne- nahiz kanpo jardueretan eta administrazio-ekintza eta –dokumentuetan ohiko tresna bihurtuz.”<sup>7</sup>

Jakitun gara, ondorioz, alde batetik urtez urte gertatzen ari den lege urraketa; eta, bestetik, lege horrek berak EAEn euskarari aitortzen dion estatusaz: hizkuntza ofiziala da.

Eta zer esan nahi du hizkuntza bat ofiziala izatea? Bada, besteren artean, herritar orok euskararekiko ESKUBIDEAK eta BETEBEHARRAK ditugula, gaztelaniarekiko bezala, ofiziala den heinean. Eta hainbat adituk eta ikerketek dioten moduan, hizkuntza-ereduen sistemarekin ez gara ikasleen hizkuntza eskubideak bermatzen ari; eta, bestalde, legea urratzen ari gara, ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzean ez direlako euskarekiko nahiko gaitasun maila lortzen ari. Eta hor, denok, herritarrek zein Administrazioak, arazo handi bat dugu, bazter utzi ezin duguna.

Urteak dira euskalgintzatik lehenik, eta hainbat eragiletik ondoren, ohartarazten ari direla lege horren urraketa sistematikoaz.

Aitortu behar da, ohartarazpen horietan askotan aipatu izan den bezala, legearen erredakzioak ere hainbat hutsune planteatzen zituela. Hala ere, urteak dira, 2005etik, Hezkuntza Saila arazoari nolabaiteko aterabidea eman nahian dabilela. Horretarako, HIZKUNTZAK IRAKATSI ETA IKASTEKO MARKOA proposamena diseinatu zuen.<sup>8</sup>

Proposamen hori, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren ondoren etorri zen. Han, hizkuntzaren hainbat dimentsioetako gaitasunen mailak definitu eta mailakatu ziren. Testuinguru horretan egin zuen Euskalgintzaren Kontseiluak bere *Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen*<sup>9</sup> proposamena, 2008an. Azken proposamen horretan, Europako Erreferentzia Markoa aintzat hartuz, zehaztu zen zein izan beharko lukeen ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzean erdietsi beharko luketen gaitasun maila bi hizkuntza ofizialetan benetan erabiltzeko adina menperatzen zutela baieztatzeko: euskaraz eta gaztelaniaz B2 gaitasun maila gutxienez, eta atzerriko hizkuntzan B1.

Eskaera horri jarraiki, Hezkuntzan hizkuntza-eredua aukeratzeko askatasunaren defentsari buruzko emendakina onartu zen 2021eko apirilaren 29an EAJ-PNV, EH Bildu, EP-IU, ES-SVren botoekin Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eska ziezaion, besteen artean, “Hezkuntza Sistema eleaniztun baterantz aurrera egitea, euskara ardatz hartuta, Lehen Hezkuntzan atzerriko hizkuntzako prestakuntzan hobekuntza eta aurrerapen nabarmenak sartuz, eta ikasleen ezagutza hobetzeko jarduerak indartzuz, GUTXIENEZ honako gaitasun-maila hauekin: B1 bi hizkuntza ofizialetan LH amaitzean eta B2 DBH amaitzean Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren barruan, Europako herrialdeetan ohikoa den bezala; eta Atzerriko hizkuntzan, A2 eta B1 mailak hurrenez hurren”.<sup>10</sup>

Beraz, Administrazioa urtez urte egiten ari zen lege urraketa arazoa konponbidean jartzeko lehen urratsa egina du, zehaztu du ikasleek zein gaitasun maila lortu behar duten.

Goazen urrats bat aurrera. Baliagarriak ote dira A, B eta D hizkuntza ereduak helburu gisa legez ditugun hizkuntza gaitasuna lortzeko? Ikerketek eta adituek esandakoan oinarrituta, EH BilduK iritzi dio eredu horiek eman zezaketena eman zutela aspaldi, goia jo dutela, eta estrategia berriak diseinatu behar direla Hizkuntza Eredu Orokortu batera jotzeko.

7. 10/1982 azaroaren 24ko Legearen Bigarren TITULUA Bigarren kapituluko 17. artikulua. [https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA\\_WEB.pdf](https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA_WEB.pdf)

8. Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn: Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa

9. Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen, Euskalgintzaren Kontseiluaren proposamena: Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen proposamena

10. Legebiltzarrekoa eskatu lkoitzi

Ikerketek behin eta berriro erakutsi dute derrigorrezko hezkuntzan hamarkada luzeetan aplikatu diren ereduak ez dutela baliagarritasun bera izan ikasleak euskalduntzeko. Eskolan euskaraz denbora gehiagor aritu diren ikasleak izan dira gehiago euskaldundu direnak, eta, horien ondoan, eskolan euskaraz denbora zenbat eta gutxiagor aritu direnak, orduan eta gutxiago euskaldundu dira edo ez dira euskaldundu. Aldiz, kasu guztietan gaztelania maila egokia lortu dute.

Euskararen ezagutzaren unibertsalizaziotik urrun, erabilera datu eskasekin, hizkuntza-ereduen sistemak, D ereduak barne, goia jo dute eta agortu dira garai berriei begira ditugun erronkak erantzuteko.

Bestalde, begi bistakoa da euskara alorrean bi karriletako errealtatea sustatzen ari garela, euskara dutenena eta euskara ez dutenena. Hezkuntza Sistemak badu betebeharra: ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzen dutenean, bi hizkuntza ofizialak menderatu behar dituzte. Bestela, bereizkeria gertatzen da ikasleen artean (ikus segregazioa txostena). Horri aurre egiteko, eta Kontseiluak bere txostenean proposatu zuen ildotik, konponbideak ezin du izan euskara gutxi edota batere ez duenari euskara gutxiago eskaintzea. Ezin dugu baimendu hori gertatzea. Euskararen Legea ere argia da horretan.<sup>11</sup> Txostenaren zutabeetako bat den ideia ekarri eta azpimarratu nahi dugu hemen: EUSKARA GUTXI DUENARI EUSKARI GEHIAGO eskaini behar zaio. Ikasle guztiei hizkuntza gaitasuna bermatuko dion eredu orokortua ezartzea ezinbestekoa ikusten dugu, ondorioz.

Zentzu horretan, Euskalgintzaren Kontseiluaren BATUZ ALDATU dinamikaren barruan, gaur egun Hezkuntza esparruko eragile nagusienek bat egin zuten EUSKARAZ HEZI, BERDINTASUNEAN HAZI manifestuan luzatzen den eskarriarekin: “Hemen bildu garen eragileok eskatzen dugun hezkuntza-hitzarmenean berariaz jaso dadila hurrengo legeak ereduaren sistema baztertzaila gainditu eta ikasle guztiei euskara gaitasun egokia bermatuko dien eredu orokortua ezarriko dela”.<sup>12</sup>

Beraz, horregatik diogu orain arte garatutako plangintzak bereak eman dituela: egiten duguna egiten jarraitzen badugu, badakigu ja zer lortzen dugu. Ondorioz, eta legeak ezarritako helburua lortu nahi badugu, beste emaitza batzuk erdietsi nahi baditugu, desberdin egin beharko ditugu gauzak, ezinbestez.

Horretatik guztietatik, garbi ondorioztatzen da euskarari lehentasuna eman behar zaiola eskolan. Jakina, euskarari eskaintzen zaion denbora kopuruarekin batera, denbora horren kalitatearen azterketa funtsezkoa da. Horregatik, murgiltze eta mantentze sistemetan oinarritutako euskara ardatz izango duen hizkuntza ikas-eredu orokortu berri baten aldeko apustua egiten dugu.

11. 10/1982 azaroaren 24ko Legeak “Legearen oinarri diren printzipio orokorretatik abiatuta, Atariko Tituluak euskara Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren hizkuntza propio gisa aitortzen du eta euskara eta gaztelania bere lurraldean hizkuntza ofizial gisa. Titulu berean, hizkuntza-arrazoiengatik bereizkeria galarazten da. Euskararen Legeak 30 urte, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen zerbitzu nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2012, 10. or. [https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/EUSKARAREN-LEGEA\\_WEB.pdf](https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EUSKARAREN-LEGEA_WEB.pdf)

12. BATUZ ALDATU: EUSKARAZ HEZI, BERDINTASUNEAN HAZI manifestua. Kontseiluaren proposamena

## Aukerak edota indarguneak

- » Euskararen ofizialtasuna: ofizialtasunak berarekin dakartzan eskubideak eta betebeharrak.
- » Ikas etapa amaierarako eta derrigorrezko eskolaldiaren amaierako ikasleek lortu behar dituzten hizkuntza gaitasunen mailen zehaztapena zehaztea eskatu zion legebiltzarrak Hezkuntza Sailari.<sup>13</sup>
- » Murgiltze eta Mantentze sistemetan urtetako eskarmentua dugu: sare desberdinetako hainbat ikastetxeetan urtetan aplikatu dira sistema horiek eta hizkuntza gaitasun helburuak lortu dira. Hainbat ikasle promozio ditugu horren erakusgarri. Beraz, ez ginateke hutsetik hasiko. Zer eta non hobetu baldin badugu ere, murgiltzea eta mantentzea ez dira sistema arrotzak gure hezkuntza sisteman.<sup>14</sup>
- » Murgiltze eta Mantentze sistemetan oinarritutako irakaste eredu bakarrak beste herrialdeetako esperientzien bermea du.
- » Murgiltze ereduak emaitza onenak lortu ditu baina zailtasun geroz eta gehiagoak ditu ikasleak euskaldundu eta hizkuntza gaitasun helburuak lortzeko.<sup>15</sup>
- » Euskara modu eraginkorrean ikastea ahalbideratuko duen hizkuntza irakaste eredu bakarraren aldeko baldintza sozialak aldekoak dira. Horrela ondorioztatu dute Eusko Jaurlaritzak eta beste hainbat erakundek eginiko azterketek. Aztiker ikerguneak aurkeztu zituen Legebiltzarrean egin zuen agerraldian. Baldintza sozialak eman litezke jendartean, beraz, gero eta maizago aipatzen den “Bake linguistikoa” ematekoa.<sup>16</sup>
- » Gaur egun indarrean dagoen Hizkuntza- ereduaren sisteman familiak hautu sendoa egiten ari dira euskal ereduaren alde, eta joera nagusia da.<sup>17</sup>
- » Hezkuntzako eragile nagusienek “argi dugu orain dela aurrera egin eta ereduaren sistema segregatzailetik, eredu orokortu inklusibora jauzia egiteko unea” adierazi dute publikoki.<sup>18</sup>
- » Irakas eredu orokortua sostengatuko luketen behar adina irakasle badago. Azken 40 urtetan bereziki handitu da euskaraz irakasteko gaitasuna duten irakasle kopurua: duela 40 urte %8ziren; gaur egun, %93 dira.<sup>19</sup>
- » Ikasmaterial eta testu egokiak badaude.<sup>20</sup>

13. 10/1982 azaroaren 24ko Legea. [https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA\\_WEB.pdf](https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA_WEB.pdf)

14. Hezkuntzaren aldeko akordioa: Hizkuntzak. Lege Biltzarreko agerraldia. Miren Dobaran, Hizkuntza politikarako sailburuordea.

15. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. ISEI-IVEI. 2021 I Euskal [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13) Hezkuntza Sistemaren diagnostikoa. <https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/hezkuntza-sistemaren-diagnostikoa>; Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. ARRUE IKERKETA, 2011-2017. <https://www.euskadi.eus/euskara-beste-proiektu-batzuk/web01-a2heusk/eu/>

16. AZTIKER agerraldia Legebiltzarrean: [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

17. “EAEn 2016-17 ikasturtean Haur Hezkuntza eta Derrigorrezko Hezkuntzan: ikasle guztietatik ia % 95 D eta B ereduetan”. Miren Dobaran, Hizkuntza politikarako sailburuordea Legebiltzarreko agerraldian. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

18. Euskalgintzaren Kontseiluak Batuz Aldatu manifestuaren baitan sustatu zuen EUSKARAZ HEZI, BERDINTASUNEAN HAZI aldarria, Hezkuntzako eragile nagusiek babestu zutena: EHIGE, Ikastolen Elkateak, Kristau Eskolak, Hik Hasi, ELA, LAB, STEEK babestu zutena. TXERTATU PDF

19. Miren Dobaran, Hizkuntza politikarako sailburuordea Legebiltzarreko agerraldian. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

20. Paul Bilbao, Euskalgintzaren Kontseiluko Idazkari Nagusia Legebiltzarreko agerraldian. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/701d6b38-dfe1-4eeb-91cd-08893b0a5a](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/701d6b38-dfe1-4eeb-91cd-08893b0a5a)

- » Jendartean, eta Hezkuntza komunitatean, geroz eta arrakala handiagoa sortzen ari den segregazioa gainditzeko gakoetako bat izan daiteke. Izan ere, euskara “gaitasun eredu orokortu batek ikasleen arteko diferentzia soziokulturalak gainditzeko laguntzen du eta etorkinen gizarteratzea laguntzen du”<sup>21</sup>; “Hezkuntzaren helburu nagusiak ekitatea, berdintasuna, inklusioa, kohesioa, bikaintasuna... baldin badira, ulertu daiteke benetako elebitasunik gabe, elkarbizitza linguistikorik ez dela emango eta, ondorioz, helburu horiek hankamotz geratuko direla”<sup>22</sup>. Bestalde, txosten honetako Segregazioak eranskina luze eta zabal ari da segregazioen gaian euskararen gaineko hizkuntza gaitasun egokiak izango lituzkeen onurez, “Dena den, ezin dugu ahaztu gure hizkuntzak eta kulturak zapalduta jarraitzen dutela; beraz, **herri anitza eraikitze gure hizkuntza eta kultura inklusiorako oinarritzko tresna gisa baliatu behar ditugu.**”<sup>23</sup>

## Eragozpenak edota zailtasunak

zalantzarik gabe, hainbeste urtetan Hezkuntza komunitatean eta euskal jendartean ondu den Hezkuntza Akordioak jendartearen babes zabala du. Era berean, euskararen arloan egin diren hamaika ekimenek balio izan dute jende asko euskararen alorrera ekartzeko. Hala ere, oso kontuan izan behar dugu jendarteko sektore batek euskara, oraindik ere, arrisku eta mehatxu gisa ikusten duela, eta posizio horretatik abiatuta hainbat eragozpen jartzen dizkiola euskararen ardatutako hizkuntza eredu orokortuari, murgiltze eta mantentze sistemari eta abar. Era berean, jakin badakigu, postura horien argudioek erro zaharrak dituztela jendartean eta gehienak uste usteletan oinarria izanik ere, badute beren pisua. Jende multzo horrek euskararen eta euskal kulturaren zabalpenaren aurrean izan ditzakeen beldurren eta erreparoen aurrean, sentipen horiek jaso egin beharko genituzke eta oinarri zientifikoak eta pedagogikoak dituzten argudioekin erantzun. Horretarako, Hizkuntza eredu orokortuak kontuan hartu beharko lituzkeen neurrien proposamen zerrendan Diskurtsoaren beharra azpimarratuko dugu. Saiatu gara zerrendatzen zein liratezkeen eragozpen horiek.

- » Euskarak ez du baliorik ikaskuntzaren, ikerketaren, mundu akademikoaren eta abarreko arloetan, ezta lan munduan ere. Are gehiago, euskarak, edo haren ezagutza eskasak, oztopa lezake ikasle baten arrakasta akademikoa. Ideia hori lotu dezakegu jendartean, artean, nahikoa errotuta dagoen “Zer nahi nahiago duzu, sendagile on bat ala euskaraz dakien sendagile bat?” ideiarekin. Konpetentea eta arrakasta euskararekin kontrajarria balego bezala. Azken batean, euskararen prestigioarekin du zerikusia egoera horrek. Murgiltze eta mantentze sistemetan oinarri izango duen Hizkuntza ikasteredu orokortu berria testuinguratu beharko lukeen diskurtsoak oso kontuan izan beharko luke alderdi hori.
- » Euskara ez duten pertsonen beren seme-alaben edota etxekoen eskola ibilbidean laguntzeko izango dituzten zailtasun edota ezintasunak. Ideia horrek, euskararekin zerikusia izateaz gain, Hezkuntza ereduak, ikastetxeetan ditugun Hezkuntza proiektu eta Marko Pedagogikoekin, eta planteamendu metodologikoekin du zerikusia. Sarritan agertzen den beldurra izanik, proposamenean oso kontuan izan beharko litzateke eta euskararekiko egoera okerragoan dauden familientzako neurri konpentsatzaileak planteatu beharko lirateke. Hainbat herrietan baditugu gisa honetako esperientziak. Eta gai honetan ere, eskolak egin dezakeenaz gain, herri mailan antola daitezkeen azpiegiturak oso kontuan izan beharko ditugu. Horrek guztiak baliabideekin ere badu zerikusia, beraz, behar gehien dagoen lekuan baliabide gehiago jarri beharko dira haien eskura.

21. Paul Bilbao, Euskalgintzaren Kontseiluko Idazkari Nagusia Legebiltzarreko agerraldian [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/701d6b38-dfe1-4eeb-91cd-d08893b0a5a](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/701d6b38-dfe1-4eeb-91cd-d08893b0a5a)

22. Aztiker, Legebiltzarreko agerraldian. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

23. Ikus, EH Bilduren Hezkuntza Sistema Publiko Burujaaberantz txostenaren Segregazioak eranskina.

- » Etxekoek beren seme-alaben hizkuntza eredia hautatzeko eskaini zaien aukera, 10/1982 legeak aitortzen duena<sup>24</sup>. Hori horrela izanik, eta kontuan izanik lege berak derrigorrezko eskolatzea amaitzerakoan ikasleek bi hizkuntza ofizialetan lortu behar duten hizkuntza gaitasun maila finkatzen duela, lehen aipatu dugun diskurtsoak afera horri erantzun dion argumentarioa atxiki beharko du. Jendartearekin zintzoak izan behar badugu, jendarteari eta hezkuntza komunitateari adierazi behar zaie zein eredu laguntzen duen legez betebeharrerikoa den helburua lortzen eta zeinek ez. Egia da eskubideen alor horrek baduela osagai politikoa, baina osagai politiko horren barruan ere ereiten hasi beharko dugu eskubide horrek duen betebeharraren ideia: derrigorrezko eskola amaitzean, alegia, euskaraz eta gaztelaniaz, gutxienez, B2 maila eta atzerriko hizkuntza batean B1 maila lortu behar dituztela. Gaiak badiu, era berean, aldagai pedagogikoak, glotopolitikoak, soziolinguistikoak eta abar. Hamaika ikerketa eginak daude arlo horietan eta haien emaitzak behin eta berriro errepikatzen dira; haietatik, dagoeneko, ondorioak eta ikasketak ateratzeko moduan izan gara. Horien guztien hedapenean jarri beharko da indarra.
- » Euskararen presentzia ahulagoa den edota txikia den ingurune soziolinguistikoetan euskararen gaitasun helburuak txikitu egin beharko lirakekeen ideia ere nahikoa zabaldua dago; batez ere, euskararen presentzia txikia den testuinguru horietan edota euskararen kontrako jarrera duten inguruetan. Ondorioz, zenbaitetan tentazioa izaten da ikasleei euskaren eskaintza eta eskakizuna jaitea, zenbaitetan euskaratik salbuestera iritsi arte. Ezin dugu onartu horrelakorik. Hortxe bertan gu geu ari baikara ikasle horri euskara ukatzen eta, beraz, bazterkeriara bultzatzen. Gaurko arazoa biharkoratzen hamaika aldiz biderkatua. Euskara arloan Euskal Herrian dugun aniztasuna onartuz eta ikasleek testuinguru soziolinguistiko askotarikoak dituztela kontuan izanik – baina ez soilik herrialdeka, eskualdeka edo zonaldeka, baita herri berean ikastetxeka eta mikrora joz baita ikastaldeka ere ikastetxe berean. EAEn, ikasle guzti-guztiek legearen aurrean betebeharrak bera dute eta Hezkuntza sailak guztien arrakasta ziurtatzeko betekizun bera du. Horregatik ez gara nekatuko esaten euskara GUTXI DUENARI euskara GEHIAGO eskaini behar zaiola. Egin dezakegun edozein HEZKUNTZA AKORDIORAKO PROPOSAMENAK bere baitan barnebidu beharko lukeen oinarritzko ideia eta abiapuntua beharko luke horrek.

Idea horrek ere zerikusia du IKASTETXEKO HIZKUNTZA PROIEKTUAREKIN. Izan ere, hori bata markoa ikastetxe bakoitzak duen egoera soziolinguistikoa jasotzeko eta horren aurrean hartu behar dituen neurriak eta abian jarri behar dituen ekinbideak diseinatu, adostu, planifikatu, ebaluatu eta jarraipena egiteko.

Idea horrek ere zerikusia du azken denboran zabaldu den ESKOLAK BAKARRIK EZIN DU ideiarekin. Hori egitate bat da, eskolak bakarrik ezin du, baina bere esku dagoen guztia egiteko betekizuna du. Herri Hezitzaileen ideia oso present eduki beharko genuke, eskolak duen eginbehar horretan laguntzaile eta aliatu izateko duen potentzialitatearengatik eta eskolari eta, beraz, hezkuntza arautuari egin diezaiokeen ekarriarengatik. Eskolak duen behar horretatik abiatuta, bide interesgarri bat izan daiteke Hezkuntza zer den arloan gogoeta egiteko eta hezkuntza integralaren kontzeptua aintzat hartuz hezkuntza-formala eta hezkuntza-informalak eta herriak elkarlanean eraiki nahi dugun euskaraz ariko den Euskal Hezkuntza Sistemari egin diezaioketen ekarpenak.

Azkenik, ideia horrek ere zerikusia du lehenago aipatu dugun puntuarekin, euskara ez menderatzeak arrakasta akademikoan eta pertsonalean ekar diezaioketen ondorioetan. Berriro esango dugu, euskara eta bikaintasuna ez daude kontrajarrita naturalki, azter ditzagun gure sistemak, gure plangintzak eta antolaketak, gure prestakuntza soziolinguistikoa, gure eskola planteamenduak, gure ikastetxeetako Hizkuntza proiektuak, Marko pedagogikoak... badugu non arakatu!

24. Euskararen legeak 30 urte, 2. Kapitulu, 16. artikulua, 17., 18. orr. 1. Unibertsitate-hezkuntza hasteraino egiten diren ikasketetan derrigorrezkoa izango da ikasketak hartzeko guraso edo kuradoreak edota, hala denean, ikasleak berak, aukeratu ez duen hizkuntza ofiziala irakastea. Euskararen Legeak 30 urte 18 19 2. Dena den, Jaurlaritzak ikastetxe bakoitzean irakatsi beharreko hizkuntza-ereduak finkatuko ditu, guraso-kuradoreen nahia eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontutan. 3. Ikasketak arautuak Erkidegoan ofiziala ez den hizkuntza batean irakasten duten diru publiko lagundutako ikastetxe pribatuak euskara eta gaztelania irakatsiko dituzte derrigorrezko ikasgai gisa. [https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu\\_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA\\_WEB.pdf](https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EUSKARARENLEGEA_WEB.pdf)



Ez ginateke zintzo ariko onartuko ez bagenu orain arte aipatutako guztia aintzat hartu beharko dugula hizkuntza irakasteredu orokortu bat proposatzerakoan. Irakasteredua prozesu dinamiko baten gisan ikusten dugu, bi ezaugarri nagusi dituena: aniztasun soziolinguistikoa eta euskara bi hizkuntza ofizialen artean gutxitua dela. Beraz, murgiltze eta mantentze sisteman oinarritutako hizkuntza irakasteredu orokor malgu bat proposatu beharko genuke, tokian tokiko errealitate askotarikoari erantzungo diona. Jarraipen estua eta aldizkako ebaluazioak beharko ditu, unean uneko errealitateari egokitu eta erantzuten joateko. Hala, oso urrunekoa irudikatu nahi ez dugun etorkizunearn, benetan murgiltze eta mantentze sistemetan oinarritutako ikasteredu orokortu bakarra bihur dadin.

- » Eleaniztasunak aukera asko ekarriko dizkigu hizkuntzen ekosistemen ikuspegitik, baina baita oso aintzakotzat hartu behar dugun erronka berri bat ere. Gaur-biharko herritarrek, eleaniztasun testuinguru horretan, gutxienez, 3 hizkuntza menderatuko dituzte. Hainbeste buruhauste sortzen dizkiguten etorkinak deitzen ditugun horiek, gainera, bereak dituzten beste hizkuntza bat edo gehiago menderatuko dituzte, Hezkuntza Sistemak menderatzea eskatzen dizkienei gehituko zaizkienak. Beraz, hiru hizkuntzatik gora, tartean euskara, menderatuko duen pertsona batek hautu kontzientea egin beharko du euskararen alde. Egoera hori euskararen kontrako jarrera dutenen aterbe bilaka daiteke. “Zertarako ikasi behar dugu euskara, ez dugu ezertarako behar, euskara gabe molda bagaitezke” ez ja gaztelaniarekin baizik eta ingelesarekin... erronka handi bat dugu aurrean, eleaniztasun testuinguru aberatsean gure lekua hartu behar dugu euskaldunok. Horregatik oso garrantzitsua izango da azpimarratzea hizkuntza eredu euskaldun eleaniztuna dela nahi duguna, ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen, alegia.

Horrek guztiak eleaniztasunaren definizioarekin zerikusia izateaz gain, euskararen prestigioarekin du zerikusia. Herritarrak argudioz jantzi beharko ditugu euskararen aldeko hautua egiteko, testuinguru eleanitz batean hautu pertsonala izango baita hizkuntza bat ala bestea erabiltzea. Aurrez aipatutako diskurtsoan argumentarioak zabaldu beharko ditugu hautaketaren prozesua maila kontzientera ekartzeko. Beste era batera esanda, diskurtsoak balio beharko luke euskara komunikaziorako tresna eragingarri bihurtzeko: hiztunentzat beharrezkoa eta hiztun gaientzat erakargarria <sup>25</sup>.

25. Paul Bilbao, Euskalgintzaren Kontseiluko Idazkari Nagusia Legebiltzarreko agerraldian: “Ikasle esukaldun eleanitzak sortzen proposamenetik.

# Hizkuntza ikasteredu orokortua

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeak zuzendu eta bideratuko dituen HEZKUNTZA HITZARMENARI begira, Eusko Legebiltzarra hainbat urrats ematen ari da. Azkena, 100 eragile eta norbanakoen agerraldiak legebiltzarrean, hezkuntza ponentziaren markoan.

Testuinguru horretan, eta hitzarmenaren aurretik adostu nahi den Hezkuntza akordioari ekarpena eginez, EH Bilduk bere hezkuntza proposamena egin du. Proposamen hori, Euskal Herri osorako lantzen ari den HEZKUNTZA SISTEMA PUBLIKO BURUJABEA proposamenaren barruan txertatzen da, Euskal Autonomia Erkidegorako trantsizio proposamen bat delarik, lurralde horretan zabaldu den aukerak bultzatu eta baldintzatuta.

Esku artean duzun eranskin hau, hain zuzen, hortxe kokatzen da, eta proposamenak berak akordiorako korapilotsuak aurreikusten dituen gai horietako bat, euskararen irakas-ikaskuntzarena, zehaztasun eta osotasun handiagoz aurkezteko sortu da.

Edozein akordiorako proposamenek “bizikidetzan aurrera egitea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, hizkuntzen arteko desoreka nabarmena orekatzen joatea eta Euskal Herriko gizartea kohesionatzea”<sup>26</sup> izan beharko luke helburu.

Hori esanda, eta eranskina amaitzeko, HIZKUNTZA IKASTEREDU OROKORTUAK proposamenak izan beharko lituzkeen ezaugarrien zerrenda aurkeztu dugu. Zerrenda horretan kontuan hartu dira bai Legebiltzarrean egindako agerraldietan esandakoak eta baita gaurdaino euskararen ikas-irakaskuntza arloan egin diren proposamenak.

Akordioako atal hau egikaritzeko ondorengo ildoak izan beharko genituzke kontuan:

1. Langileei, irakasle zein ez-irakasle, dagozkionak
2. Etxekoei dagozkionak
3. Ikasleei dagozkionak
4. Ebaluazioari dagozkionak
5. Ikastetxeei dagozkionak
6. Administrazioari dagozkionak

---

26. Ikasleak euskalduntzeko Kontseiluaren proposamena, Euskalgintzaren Kontseilua. Paul Bilbao, legebiltzarrean agerraldia

Arreta berezia jarri beharko litzateke arlo hauetan<sup>27</sup>:

1. Etapa eta Ziklo bakoitzean hizkuntzen arteko denbora-banatzean
2. Hizkuntza proiektua aberasteko ikastetxe guztiek behar dituzten prestakuntza-jarduera askotarikoetan
3. B2 helburua egoki neurtzeko ebaluazio-trenen diseinuan

Beraz, eta ezinbestean ezaugarri hauek, gutxienez, izan beharko lituzke HIZKUNTZAK IRAKASTEKO EREDU OROKORTUAK.

1. Murgiltze eta Mantentze sistemetan oinarritutako euskaran ardaztutako eredu orokortua izatea.
2. Ikasteredu orokortu malgua: Lurraldean euskararen ezagutza eta egoerarekiko dagoen aniztasuna aintzat harturik, tokian tokiko berezitasunak eta egoera soziolinguistikoa kontuan izan da, murgiltze eta mantentze sistemetan oinarritutako ikasteredu orokortu malgua izango litzateke. Helburua, betiere, lurralde guztian aplikatuko den ikasteredu orokortu aplikatzea litzatekeelarik. Horretarako, ebaluazioak egingo dira eta ikastetxean urratsak ematen joango dira egoerak baimentzen duen heinean ikasteredu orokortu aplikatzeko, prozesu dinamiko gisa planteatzen da, beraz. Prozesua, aplikatu diren plangintzak, hartu diren erabakiak, egin diren ebaluazioak, eta abar Hizkuntza proiektuaren baitan dokumentatuko dira. Ikastetxearen Plan Estrategikoan eta Urteko Planean txertatuko dira Ikasteredu orokortura iristeko epeak eta abian jarriko diren plangintza eta ekimenak.
3. Arreta eta neurri bereziak jarriko dira Haur Hezkuntzako 0-6 etapan, eta batik bat, Lehen zikloan, 0-3an, hor murgiltze sistema aplikatuko delarik: Adin horretako haurren ezaugarri psikologikoen inguruan eginiko ikerketen arabera, ikerketek erakutsi dute adin horietan hizkuntzak ikaskuntzaz baino jabetzaz bereganatzen dituztela gehiago. Ondorioz, haurrak erraztasun handiagorekin bereganatuko du euskara etxeko hizkuntza ez den kasuetan ere. Adinean zenbat eta aurrerago hasi euskara irakasten, orduan eta konplexuagoa izango zaio haurrari euskara bereganatzea. Hala baieztatzen dute hemen eta hemendik kanpo egindako zenbait ikerketek<sup>28</sup>. Bestalde, Haur Hezkuntzako haurra adin horretan mundu sinbolikoa eratzen ari da, afektiboki euskarara hurbiltzeko errazagoa izango da. Horrek, zalantzarik gabe, euskararekiko atxikimendua estutzea eta ondorengo ikasketa bidea leuntzea lekarke. Ondorioz, doakoa eta murgiltze sisteman oinarritua izan beharko luke HHko Lehen zikloa, ikasle orok aukera izan dezan bertan aritzeko.
4. Haur Hezkuntzaren amaieran (HH5) ikasleen hizkuntzen aurrebaluazio glotodidaktikoa egitea<sup>29</sup>
5. 5. Etxeko hizkuntzari eta kulturari lekua egin behar zaio eskolan, ikaslea onartua senti dadin. Onarpen hori, gainera, erabakiorra da ikasle horrek euskararekiko izango duen jarreraren eta motibazioan.
6. Ikastetxeko hezkuntza proiektuan “etorkinen hizkuntzak eta kulturak ikuspegi integralean jaso beharko lirateke”<sup>30</sup>
7. Gelan hizkuntza curriculumaren aplikaziorako erabiltzen diren metodologiaren gainera azterketa sakona egin beharko litzateke, elkarreragina eta talde lana, besteak beste.

27. Zehaztapen gehiagorako Ikus Ikasle Euskaldun Eleaniztasun Sortzen Kontseiluaren proposamena Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen

28. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 21.or.

29. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 45.or.

30. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 22.or.

8. Zalantzarik gabe, eskolak gehien eragin dezakeen arlo arlo kurrikularra da. Hizkuntza desberdinetako irakasleek beren artean koordinatu beharko lukete edukiak, metodologia edo hizkuntza jarduerak adosteko. Ikerketen arabera, hizkuntzak hobeto garatzen dira jakintzarekin batera<sup>31</sup>.
9. Metodologiari dagokionez, hedatu beharreko ikuspegi metodologikoan ahozko komunikazioak izan beharko luke irakas/ikaskuntzaren estrategia nagusia.<sup>32</sup>
10. Ikastetxe bakoitzak Hizkuntza proiektuaren barruan Hizkuntza Normalkuntza plana izan beharko luke, arduradunarekin eta honi dagozkion funtzioarekin. Ikasleek euskara gustuko dituzten gauzekin lotu behar dituzte, ikastetxeko hizkuntza paisaia zaindu behar da, orientabideak emateko, idatzi zein bestelako hizkuntza-irizpideak ezartzeko, hornitzaileen kontratazioak egiteko eta horien guztien jarraipena egiteko mekanismoak, zehaztu behar dira.<sup>33</sup>
11. Familia giroan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egitasmoak bideratu beharko lituzke ikastetxeak.<sup>34</sup>
12. Ikasteredu orokortuak, zer esanik ez malgua den kasuetan, behar dituen emaitzak ematen ari dela baieztatzeke ezinbesteko adierazlea da ebaluazioa, ebaluazioa tresna hezitzaile gisa hartuta, noski. Ebaluazioak izaera formatiboa eta deskriptiboa izango du, eta jarraia izango da.<sup>35</sup>
13. Ebaluazioen emaitzen erantzukizuna ongi mailakatu beharko litzateke. Zenbaitetan erantzukizuna norbanakoa izango da, eta beste hainbatetan kolektiboa. Administrazioak ikastetxe horretako Hizkuntza proiektua aztertu beharko du berandu baino lehen, eratoritzen diren emaitzak jatorria non duten argitu eta kasu bakoitzari dagozkion ekimenak abian jartzeko.<sup>36</sup>
14. Eskolako langile guztiak euskaldunak izan beharko lukete eta haien prestakuntza, batez ere irakasleena, diseinatu beharko litzateke<sup>37</sup>. Prestakuntza horretan, soziolinguistika arloa ere aurreikusi beharko litzateke. Era berean, “Irakasleriaren prestakuntza ezinbestekoa hizkuntzen irakaskuntza praktika berrietan sakontzeko”<sup>38</sup>
15. Diskurtso bat sortu eta zabaldu behar da jendartearen (argumentarioa): euskara jakiteak dakarren onuren inguruan eta motibazioa aktibatzeke, hezkuntza planteamendua kultura aniztasunean eta eleaniztasunean ardazteko eta euskara komunikaziorako tresna eragingarria bihurtzeko<sup>39</sup> Jendarteari zehatz eta ongi azaldu behar zaio non eta zergatik egin diren hizkuntza irakatsi eta ikasteko eredu aldaketak.
16. Eskolak aliantzak egin beharko ditu bere inguruarekin Hizkuntza proiektua indartze aldera: “zentzu horretan, askotan esan den bezala, eskolak (edo hezkuntza formalak) bakarrik ezin badu, laguntza, elkarlana eta koordinazioa beharko du beste eragile batzuekin. Bere ingurutik edan egin behar du, bere hizkuntz-proiektua indartzeko. Finean, hizkuntza-proiektuan guraso-elkarteekin eta inguruko kultura- eta aisialdi-elkarteekin batera proiektua garatzeari erreferentzia esplizitua egin behar zaio. Horretarako beharrezkoak diren markoak sortuz auzo, herri edo hiri mailan eta adituen aholkularitza izanik, beharrezkoa bada baita Herri/Udal mailako hizkuntza planak eginez. Gainera,

31. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 27.or.

32. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontsei .or.

33. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 28., 45.orr.

34. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 28.or.

35. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 35.or.

36. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 35.or.

37. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 45.or.

38. Miren Dobaran hizkuntza politika sailburuordea Legebiltzarreko agerraldian. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

39. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 29, 45.orr.

konprobatua dago komunitate inplikatuak eskola arrakasta lortzen dutela”<sup>40</sup>. Hortaz, “Gizartearen ardura konpartitua euskara ardatz duen eleaniztasuna sendotzeko oinarria”<sup>41</sup>

17. Hizkuntzen errealitatearen diagnostikoa izatea ahalbidetzen duten ikerketak behar dira: “Orain eta etorkizunean (D ereduaren) hizkuntza-errealitatearen diagnostikoa egitea ahalbidetzen duten ikerketa sakonak behar dira eta beharko dira. Aurrera egitea ahalbidetuko duten proposamenak eta esperientzia pilotuak egitearekin batera”.<sup>42</sup>
18. Euskal curriculumak izan beharko luke Hezkuntza Sistemaren oinarria eta markoa, eta nola ez, Hizkuntza ikaste-redu orokortuak erreferentziatzat izan beharko du Euskal Curriculumuma.
19. Digitalizazioak gero eta presentzia handiagoa du gure bizitzan eta baita hezkuntzako bizitzan. “Eskolak mundu digitalera zabaldu beharra du eta heziketa tresna bilakatu da, baina zein hizkuntza errealitate dugu bertan? Horrek nola eragiten du heziketa prozesuan? Hizkuntzen jabekuntzan?”<sup>43</sup>

Eskolako esparrua gainditzen duen arren, eskolan zuzenean eragiten du Irakasle-eskolen gaiak eta egitekoak. Irakasle-eskolek soilik irakaslegai euskaldunak prestatu beharko lituzkete<sup>44</sup>. Irakasle gai horiek, gainera, bere prestakuntzan soziolinguistikako ezagutzak jaso beharko lituzkete. Horretaz gain, Irakasleen prestakuntzan –bai hasierakoan bai etengabekoan–, berebiziko garrantzia izango du irakasleak euskararen eta gaztelaniaren irakaskuntzarako testuinguru eleaniztatan formatzea<sup>45</sup>. Irakasle lanetan ari direnean hizkuntza ezagutzarekin, ohiturekin eta abarrekin zerikusia duten egoerak kudeatu beharko baitituzte, eta legeak diona lortu nahi bada, derrigorrezko ikastaldia amaitzean euskaraz, gutxienez, B2 maila erdiestea, ezinbestekoa izango baita euskararen erabileran, motibazioan eta abar eragitea orain baino gehiago.

Etorkizunera begira, hainbat erronka aurreikus dakizkioke eskolari. “Ikasle profil anitzak artatu beharko ditu; euskararen gaitasun egokia bermatu beharko du; ikasleak euskararen hiztun aktibo bihurtzen lagundu beharko du; eta, euskararen erronkaz gain, lagundu beharko du beste hizkuntza batzuk ikasi eta erabiltzeko gai izaten: ingelesa, nazioarteko komunikazioari begira. Bestalde, eskoletan azken urteotan dagoen hizkuntza eta kultura-aniztasuna aintzakotzat hartu beharko du”.<sup>46</sup>

Eta honek guztiak, ezinbestez, Hizkuntza politika berria eta lege berri baten aterbea beharko du “Toki Administrazioetik Administrazio Nagusirainokoa, Sektore eta Sailartekoa, Helburu eta epe zehatzak dituen, Baliabidez ongi hornitua, Norbanakoak eta espazioak euskalduntzeari begirakoa, Hizkuntza-eskubideen bermea ipar duena, Euskal Herri osoan aplikatzeko modukoa, ikuspegi osokoa, Instituzion eta gizarte eragileen artean (bereziki Euskalgintza) egoki koordinatua, erabilera sozial normalizatua helburu duena”<sup>47</sup>.

40. Aztiker, Legebiltzarreko agerraldia. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

41. Miren Dobaran, Hizkuntza politika sailburuordea legebiltzarreko agerraldian. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

42. Aztiker, Legebiltzarreko agerraldia. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

43. Aztiker, Legebiltzarreko agerraldia. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

44. Ikasle Euskal Eleanitzak Sortzen, Kontseiluaren proposamena, 45.or.

45. Ikus Segregazioak eranskina, Amelia Barquin.

46. Miren Dobaran Hizkuntza politika sailburuordea. [https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune\\_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13](https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/c58acde7-14c4-448b-bc47-e3c9b5827f13)

47. Ikasleak euskalduntzeko Kontseiluaren proposamena, Paul Bilbao Euskalgintzaren Kontseiluko Idazkari Nagusia

## 1.2 Eranskina: Segregazioa(k) hezkuntzan

---

### Segregazioari aurre egin eta hezkuntza sistema inklusiboa bultzatzeko 85 neurri

#### Sar hitza

Uka ezina da gure hezkuntza sistema segregatzailea dela. Uka ezina da hezkuntzaren bitartez segregatzen dela, eta uka ezina da ere, segregazio horrek hamaika erpin dituela. Azken urteetan, eta bereziki, azken hilabeteetan, pil-pilean dagoen gaia da eta hezkuntza politika guztien erdigunean kokatzen ari da. Gai sektoriala badirudi ere, zuzenean eragiten dio Euskal Herri anitza irudikatzen moduari, jendarte kohesioari, herritarron aukera berdintasunari eta hezkuntza ereduari.

Honek ekarri du, gainera, hainbat gatazka sortzea hainbat ikastetxe, auzo zein herrietan. Segregazioa gure hezkuntza sistemak duen arazo larrienetakoa bilakatu da eta estrukturala bilakatzeko arriskua dago, gaurtik, hau gainditzeko mekanismo egokiak martxan jartzen ez baditugu.

Honengatik, egoera hauek gainditzeko eta aurrera begira nahi dugun hezkuntza eredia bultzatzeko, beharrezkoa dugu gaiaren inguruan irakurketa egokia egitea eta neurri zehatzak hartzea.

#### Segregaziotik segregazioetara

EH Bilduren ustez, eta askotariko adituek baieztatzen duten gisara, egungo hezkuntza sistemak ez du segregazio bakarra ahalbidetzen. Gure sistemak ikasleen aukera berdintasuna bermatzen ez duen heinean, eta ondorioz, kohesio sozialaren bidean traba bihurtu den heinean, ezin dugu segregazio bakarraz hitz egin. Hori dela eta, egungo hezkuntza sistemak hainbat segregazio mota eragiten dituela baieztatu dezakegu. Hauek identifikatzeko hiru galdera nagusi erantzun behar ditugu: Bereizkeria bermatzen duen hezkuntza sistema dugu? Oinarrizko eskubideak ukatzen dituen hezkuntza sistema dugu? Aukera berdintasuna eta inklusioa bermatzen ez duen hezkuntza sistema dugu?

Hauei erantzunez, besteak beste, segregazioaz hitz egiten dugunean, honetaz hitz egin behar dugu: Sexu segregazioaz; baldintza ekonomikoaren arabera segregazioaz; ezgaitasuna duten ikasleekiko segregazioaz; jatorriaren arabera segregazioaz; segregazio erlijiosoaz; hizkuntza segregazioaz; LGBT+ ikasleekiko segregazioaz...

Zer da, beraz, hezkuntza segregazioa? Nolabaiteko bereizketa bermatzen duen hezkuntza sistema/eredua litzateke. Ikasleen eskubideak ukatzen dituen hezkuntza sistema/eredua litzateke eta aukera berdintasuna eta inklusioa bermatzen ez duen hezkuntza sistema/eredua.

Horrela definitzen dugu eskola segregazioa: ikasle mota jakin bat ikastetxe konkretu batzuetan kontzentratzea. Gehiegizko eskola-segregazioa (edo, bestela esanda, eskola-aniztasun urria) aukera-berdintasunerako eta hezkuntza-sistemaren eraginkortasun-

nerako arazo bihurtu daiteke, ikasleen artean porrot eta eskola-uzte handiagoa eraginez eta konplexutasun handiko ikastetxeetan kudeaketa-zailtasun handiagoak eraginez, baliabideak eta talentua alferrik galduz. (Gortazar eta Ferrer 2021)


Zein da, beraz, honen ondorioa? Hezkuntza-sistema segregaziorako (beste) eremu bilakatzen ari da. Ikasleak segregazioan eta gizarte kohesio ezan hezten ari dira. Gainera, bi abiaduratako hezkuntza sistema errotzen ari da (LOMCEren eredu). Gizarte ez kohesionatu eta zatitua eraikitzen ari da beraz, eta ondorioz, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, nortasuna eta aniztasuna asimilatzen ari dira.

Hau aipatuta ere, ezin diogu muzin egin egunerokoa pairatzen ari garen errealitate bati: **kanpotik etorritako (jatorri atzerritarrekoak diren edota jatorri atzerritarreko familia duten) zein maila sozio-ekonomiko baxuko ikasleekin ematen ari den erabateko segregazioa**. Faktore bi hauek inguratzen gaituen gizarte ereduaren balio klasista eta arrazistei erabat lotuak daude.

Horregatik diogu, EH Bildurentzat eskola segregazioa ez da hezkuntza eremuari dagokion arazo hutsa. Gizarte guztiari dagokigun arazoa da, izan ere, ikastetxeak gizartearen ispilu besterik ez dira.

EH Bildurentzat eskola segregazioa ez da hezkuntza eremuari dagokion arazo hutsa, baina bada hezkuntzarena ere, ikastetxeak, maiz, bilakatzen baitira sistemaren erreproduktzioarako gune.

Berehalako neurri zuzentzaierik hartzen ez badugu, ondorengo egoeraren aurrean egon gintezke datozen urteetan (Gortazar, Ferrer, 2021):



Beste hainbat eremutan gertatzen den bezala, gure sistemaren asimilazioak irakurketa desagokiak egitera bultzatu gaitzakete; hezkuntza sistema (zein errealitate sozio-politikoa) Iruñean, Eibarren, Madrilén zein Parisen berdina ez den bezala, segregazioari aurre egiteko planteatu beharreko neurriak ere ezberdinak beharko dute izan, errealitate ezberdinetan bizi baikara. Hala ere, hezkuntzaren pribatizazioaren eta desberdintasun sozial gero eta handiagoen alde, neoliberalismoak jokamolde berdintsuak darabiltza mundu osoan zehar. Hori dela eta, herri ikuspegitik pairatzen ari garen errealitatearen diagnostiko egokia egitea funtsezkoa deritzogu arazoei aurre egiteko neurri egoki eta propioak garatzeko.

Guk 'harrera herria' izan nahi dugu, eta horretarako Euskal Herria anitzean amesten dugu. Dena den, ezin dugu ahaztu gure hizkuntza eta kultura zapalduta jarraitzen dutela, beraz, **herri anitza eraikitzeko gure hizkuntza eta kultura inklusiorako oinarritzko tresna gisa baliatu behar ditugu**.

Jakin badakigu, arestian aipatu bezala, kanpotik etorritako zein maila sozio-ekonomiko baxuko ikasleekin gailentzen ari dela segregazioa. Hori dela eta, lehentasunezkoa da EH Bildurentzat alor horiei dagozkien irtenbideak lehen bait lehen martxan jartzea.

Norabide horretan behar beharrezko urratsak ematen jarraitu behar dugu, auzoz auzo eta herriz herri dugun errealitate konkretuari erantzunez eta 'herri hezitzaileen' bidean euskal eskola publiko burujabe, anitz eta parte hartzailea eraikitzen jarraitzeko. Hori izango baita hezkuntza eremutik jendarte eraldaketari egingo diogun ekarpenik handiena.

Jakin badakigu, ordea, hau ez dela, ez hezkuntza eremutik bakarrik, ezta egun batetik bestera konpondu litekeen arazoa. Horregatik, bi norbideetan lan egiteko konpromisoa hartzen du EH Bilduk: berehalako neurri zuzentzaileak martxan jartzea, alde batetik, eta bestetik, Segregazioaren Kontrako Herri Akordioa bultzatzea.

Guzti hau, Hezkuntza Sistema Publiko Bateratuko ikastetxeei aplikatuko litzaieke, hartu beharko dituzten konpromiso tasatu eta zehatzen baitan, eta Hezkuntza Administrazioak, tartean, Hezkuntzako Tokiko Ekosistema Kolaboratiboek, esku-hartze zuzena izango dute hauen betearaztean.

## **Jatorria, kulturartekotasuna, desberdinkeria ekonomikoa eta euskara**

(A. Barquín)

Espainiar estatutik kanpoko immigrazioa mende honetako fenomeno da, garrantzi handikoa jendartean eta, nola ez, hezkuntza sisteman. 20 urte hauetan euskal hezkuntza sistemak erantzuna eman dio fenomenoari (ez ikastetxe guztietan eta ezta modu berean); gizartearen errekonozimendua merezi du egindakoak, baita EH Bildurena ere, eta egiten ari den lanak, eta batez ere, ahalegin horretan konprometitu diren ikastetxeek. Hala ere erronka garrantzitsu asko ditu gaur egun zein etorkizunari begira. Justizia soziala, ekitatea eta jendarte kohesioa dira gakoak, inongo zalantza barik.

EH Bildurentzat eskola segregazioa ez da hezkuntza eremuari dagokion arazo hutsa, baina bada hezkuntzarena ere, ikastetxeak, maiz, bilakatzen baitira sistemaren erreproduktzioarako gune.

### **Kulturarteko hezkuntza**

1. Kulturarteko hezkuntzarekin lotuta, eskolak bi mailatan lan egiten du:
  - A. Ikasleen aniztasuna zein desparekotasuna kudeatu behar ditu erakundearen barruan ekitatearen izenean, desabantailen egoerak gainditzen laguntzeko (ikasle guztiek eskolako hizkuntzak ez jakitea, epez kanpo matrikulatzea, hegemonikoa ez den erlijio bat praktikatzeara...).
  - B. Ikasleak prestatu behar ditu bizitzarako; besteak beste, etorkizunean gizarte justuago baten alde joka dezaten. Alegia, ikasle guztiek garatu behar dituzte kompetentzia batzuk gizarte eta mundu anitz batean elkarrekin egoki bizi ahal izateko. Esan gabe doa eginkizun hori hobeto eramaten dela aurrera ikastetxean bertan aniztasun soziala presente badago.

Bi dimentsioak elkarlotuta daude, argi dago, baina bakoitzak izaera propioa dauka. Bestalde, eskolari konpromiso soziala eskatzea beharrezkoa da, nahiz eta eskolak, askotan esan bezala, ezin duen dena bakarrik egin eta beste eragileek ere kolaboratu behar duten konpromiso horretan.

2. Kulturarteko hezkuntza arrazakeriarekin eta xenofobiaren kontrako hezkuntza ere izango da. Ikasleek pentsamendu kritikoa eta tresnak garatuko dituzte gizartean hedatuta dauden estereotipoei, aurreiritziei eta zurrumurruei



aurre egiteko, eta baita ere diskriminazioari (norberaren kontra, beste batzuen kontra) aurre egiteko. Injustizien kontrako jarrera aktiboa garatuko dute. Hori gauzatzeko kompetentziak esplizituki landu behar dira eskola-curriculumean.

3. Elkarbizitza ikastetxeetan lehenetasuna izango da: desberdinen arteko errespetua, kolaborazioa eta are laguntasuna bultzatzea (gelan, patioan, sarrerak eta irteeretan jantokian...), gatazken kudeaketa garatzea...
4. Irakasleen prestakuntza egokia derrigorrezkoa da, aipatutako bi alderdietan: aniztasunaren kudeaketan zein ikasleei kulturarteko kompetentziak garatzen laguntzeko prozesuan. Bermatu behar da irakasleen hasierako prestakuntza nahikoa izango dela alderdi horretan (irakasle graduari). Eta baita ere etengabeko formazioaren bidez irakasleek haien kompetentziak eguneratzen dituztela.
5. Horretarako irakasle bakoitzak bere autoanalisia egiten ikasi beharko du eta periodikoki praktikatu du: norberak bere aurreiritziak, preferentziak, jokaerak, espekatiak, estrategiak... aztertuko ditu eta, behar izatekotan, birdiseinatu du ikasleen arteko ekitatea eta denon arrakasta sustatzeko. Besteak beste, desabantailan dauden ikasleen artean bigarren mailako ibilbideak ez sustatzeko, eta kurtso-errepikapen gehiago ez bultzatzeko, beste ikasleekin konparazioan.
6. Irakasleen prestakuntzan –bai hasierakoan bai etengabekoan–, berebiziko garrantzia izango du irakasleak formakuntza euskararen eta gaztelaniaren irakaskuntzarako testuinguru eleanizetan.
7. Ikastetxe guztiek izango dute harrera protokolo bat, haien testuingurura egokitua, ikasleen eta familien harrera egokia, eraginkorra eta atsegina izateko. Eskolan dauden familien parte-hartzea harreraren sustatuko da. Dokumentu horrek ez die soilik lehen astei erreferentzia egingo, epe luzerako protokoloa izango da. Bertan distantziak edota egiteko modu desberdinak direla medio, aurreiritzi eta estereotipoetatik eratorritako gatazkek ekiditeko elkarriketarako zein foro desberdinetarako mekanismo eta tresnak jasoko dira.
8. Era berean, harrera protokoloa ez da soilik heldu berriarentzako izango, komunitatean parte hartzen duten agente desberdinei ere zuzenduta egongo da: ikasleak, guraso elkarte, familiak, irakasleak, jangelako hezitzaileak etab. Protokoloa dinamikoa izango da; bere eraginkortasuna ebaluatuko da eta behar diren egokitzapenak egingo dira.
9. Harrera protokoloa izateaz gain kulturarteko hezkuntza ikastetxeko dokumentu guztietan landu beharko da, esplizituki eta transbersalki: hezkuntza proiektuan, hizkuntza proiektuan, zein lan talde edo mahai desberdinetan (hezkidetzari dagokionean, adibidez).
10. Arreta handia jarriko da familien trataeran eta komunikazio eraginkorra garatzean, bai bileretan, bai ohiko komunikazioetan, bai beste esparruetan. Zailtasun linguistikoak gainditzeko neurriak hartuko dira bai administrazioan (itzultzaileak) bai ikastetxean (beste baliabide batzuk). Era berean ikastetxean parte hartzeko daude foro desberdinetan, Guraso Elkarte adibidez, bertan ikastetxeko familia desberdinak parte hartzeko mekanismoak martxan jarriko dira; lehenik eta behin ikastetxeetako familia perfilak ezagutzen hasiz. Familien parte hartze informala gain, familien parte hartze formala (eskolako organo eta batzordeetan) bultzatzeko neurriak hartuko dira.
11. Familien alderdi kultural propioak kontuan hartuko dira, etnozentrismoan eta erlatibismoan erori gabe.
12. Familien egoera ekonomikoaren ondorioz, ikastetxean ez dira oztopatuko eskolako parte-hartzea (familien elkarrekin, batzordeetan, aurrera eramaten diren ekintzetan...). Ez dira oztopatuko haurren parte-hartzea ikastetxeak kudeatutako aisialdi jardueretan. Estrategiak bilatuko dira eskusio ekonomikoak saihesteko arlo guztietan.
13. Alderdi erlijiosoaren kudeaketa ere bada maiz hezkuntza sistemarentzat korapilo bat: erlijioaren irakasgaia, menu halala, nesken hijaba... Erlijioaren gaia modu inklusiboan tratatuko da. Ikus honako dokumentuan jasotako proposamenak: Prácticas religiosas y educación. Escuela vasca e Islam)

14. Hezkidetzak, pedagogia feministak eta LGBT+ perspektibak lehenetsunetako bat izango dira. Berdintasuna, aniztasuna eta askatasuna ikastetxe osoarentzako printzipioak izango dira eta esplizituki tratatuko dira curriculumean, zeharlerrokotasunez tratatzea kendu barik.
15. Udaletxeak proaktiboak izango dira familien eta haurren desberdinkeria ekonomikoaren ondorioz gertatzen diren eskusioak saihesteko. Aisialdiko proposamen inklusiboak bultzatuko dituzte asteen zehar eta oporretan zehar (eta ez soilik “pobreentzat”, non horiek bakarrik biltzen diren; heterogeneotasun soziala bultzatuko dute). Jarduera horiek ikastetxeekin kolaborazioan sustatuko dira Hezkuntzako Tokiko Ekosistema Kolaboratiboen bitartez.
16. Aniztasunaren kudeaketak baliabideak exijitzen ditu. Baliabideak –batez ere humanoak– ezin dira antzekoak izan aniztasunik gabeko ikastetxe batean eta konplexutasun handiko ikastetxe batean. Neurriak hartuko dira konplexutasun handiko ikastetxeetan klaustroak egonkorrak izateko, eta formazio eta inplikazio altua duten irakasleak bertara bideratzeko.

## Euskara eta hizkuntzen ikas-irakaskuntza

Hizkuntza aniztasunak aparteko zerbeit izateari utzi dio jendarte gehienetan, baita gurean ere. Urte gutxitan elebiduna izatetik eleaniztuna izatera pasa da gure gizartea. Hego Euskal Herrian, 2008an, 100 hizkuntzatik gora erabiltzen ziren (Uranga 2008), baina hizkuntza horietako batzuek ez dute apenas presentziarik, eta ondorioz, ez dira aintzat hartzen, besteak beste, hezkuntza sistemaren baitan.

Badira urte batzuk jatorri ezberdinetako familia etorkinen umeak ditugula euskal hezkuntza sisteman, baina oraindik asko dira aurre egin beharreko erronkak. Egun, oraindik, gurera iritsi berri askok ez dute egoera soziolinguistikoaren berri, ez dakite euskara ikastea erabat garrantzitsua dela euren etorkizunerako eta ez dituzte ezagutzen haien haurrek hizkuntza eredu batean edo bestean eskolatzeak izan ditzakeen ondorioak.

Errealitate horretaz jabetzen diren arte, denbora luze pasatzen da eta ohartzten direnean euskararen eta gaztelaniaren ikaskuntzaren beharraz, hizkuntza bien ikaskuntza ikusten dute haien haurren mugikortasun sozialerako tresna instrumental modura (haien haurrei lan hobek aurkitzeko aukera emango die), eta bereziki, harrera gizartean integratzeko bide modura (Urizar, 2018).

Familia etorri berriek iristean aurkitzen dituzten zailtasun horiei irtenbidea emateko, funtsezkoa izango litzateke harrera eragileek testuinguru soziolinguistikoaren eta hezkuntza sistemaren inguruko informazioa ematea. Hortaz gain, eta behin haien haurrak eskolatu dituztela, haur horiek harrera-sistema bat beharko dute, eskolako hizkuntza ez dakiten ikasleak aktiboki sar daitezela eta hasierako elkarrizketa-menderatu dezaten. Harrera egitura bezain garrantzitsua da ikasgeletan erabiliko den metodologia. Metodologia hori irakasleen jarduera kontzientean oinarritu behar da esanahiak negoziatzeko, bai eta ikasleen arteko laguntza eta negoziazioa eskatzen duten jarduera didaktikoen antolaketan ere: hau da, irakasleen eta ikasleen arteko noranzko biko jarduera gehiago eta jarduera kooperatibo gehiago, eta jardura indibidual gutxiago egin beharko litzateke ikasleen artean (Besalú & Vila, 2005).

Are gehiago, hizkuntza aniztasunaren hezkuntza-tratamendua ez da hizkuntza irakasleen arazoa, baizik eta ikastetxe osoarena. Ikastetxe osoa da interakzioa eta ikaskuntza errazteko arduraduna, umea gela arruntean integratzea komeni da bai sozialki eta baita akademikoki ere. Hizkuntza ikasten duen bitartean, umearen garapen kognitiboak eta eduki akademikoen ikaskuntzak aurrera jarraitu behar dute, beraz, irakasle guztiak izango dira hizkuntza irakasle; horregatik, beharrezkoak dira akordio kolektiboak, bai antolamendu arlokoak, bai metodologia arlokoak. Prozesu planifikatua izan behar du, hizkuntza ikastea ez baitago soilik giroaren menpe, epe luzerako plangintzak izan behar dute, iritsi berri diren ikasleek bost eta zazpi urte bitartean behar baitituzte eskolako hizkuntza gaitasunak garatzeko (Cummins, 1996) eta jakina da euskal hezkuntza sisteman familia etorkinen umeek ez dutela horrenbeste denboraz laguntza jasotzen.

Bestalde, komeni da ikasleen ama-hizkuntza babestea eta hizkuntza horiek presentzia izango dute ikastetxean. Eskola-  
ren helburua da ikasle guztiak, eskolan bukatutakoan, euskara eta gaztelania egoki jakitea eta erabiltzea (ikus Euskara  
eranskina), baina adierazi dugun bezala, ikasle hauek behar espezifikoak dituzte eta dituzten beharrei erantzun behar  
zaie, ikertua baitago hizkuntza ezagutza eta lorpen akademikoen arteko lotura zuzena dela. Horretarako, hezkuntza sis-  
temak behar diren baliabideak jarriko ditu ume hauen ikaskuntza errazteko, ez soilik HIPI baten arreta bi ikasturtetan  
zehar, orain arte gertatu bezala.

- Besalú, X. & Vila, I. (2005). “Consolidar la cohesió social, l’ educació intercultural i la llengua catalana”. Barcelona: Departament d’Educació, 6-33.
- Cummins, J. (1996). *Negotiating identities: Education for empowerment in a diverse society*. Los Angeles: California Association for Bilingual Education.
- Uranga, Belen, Xabier Aierdi, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrortu, Andoni Barreña & Ane Ortega. 2008. *Hizkuntzak eta immigrazioa. Lenguas e inmigración*. Bilbo: Ikuspegi eta UNESCO etxea.

## Eskola-segregazioa

Eskola-segregazioa deritzon fenomenoak bi hamarkada hauetan areagotu da: ikasleen kontzentrazioa ikastetxe desber-  
dinetan familien klase soziala eta jatorriaren arabera gero eta nabarmenagoa da. Eskola publiko eta kontzertatuaren  
arteko gertatzen da desoreka nagusiki (publikoak jasotzen ditu ikasle “pobre” eta atzerritar jatorriko gehienak), nahiz  
eta sareen barruan desberdintasunak badauden ikastetxeen artean, publiko zein kontzertatuatan.

EAEko hezkuntza sistemako ikastetxeen %46an ematen da segregazioa, maila sakonago edo urriago baten. Horien ar-  
tean, %90a sare publikoko ikastetxeak dira. Hau ere ukazina den errealitatea da.

Nahiz eta azkeneko hamarkadan egoera hori behin eta berriro salatu den, denbora horretan ez da hezkuntza politika eta  
neurri eraginkorrik ezarri, orokorrean, segregazioa bideratzeko eta fenomenoak areagotzen jarraitzen du diagnostikoe-  
k agertzen duten bezala.

Ondorioa ezagunak dira eta mota guztietako erakundeek seinalatu dituzte (Save the Childrenek zein ELGAK, besteak  
beste). Alde batetik, segregazioak kohesio sozialaren kontra jokatzeko du. Ikasle batzuk “integratzeko”, formula eskasa  
da. Beste ikasle batzuek, berriz, ez dute aniztasun soziala ezagutuko, eta elkarbizitzarako konpetentziak lantzeko ga-  
norazko aukerarik ez dute izango. Bestalde, desabantailan dauden ikasleen kontzentrazioek ikasle horien kontra joki-  
tzen dute: emaitza akademiko eskasagoak garatzen dituzte ikasleek. Ingurune heterogeneoetan, berriz, emaitza hobeak  
lortzen dituzte, eta aldi berean, egoera ekonomiko eta sozial “erosoagoan” dauden ikasleen emaitzak ez dira kaltetzen.  
Segregazioak, beraz, diskriminazioa dakarkio pertsona ugari eta ondorio sozial latzen iturria da.

Azken urteotan eragile batzuek hainbat neurri proposatu dituzte. Haien artean ikusi daiteke Vitoria-Gasteizen eskola-  
segregazioari aurre egiteko azterketarako eta proposamenen agiria (Gasteiz, 2016, hemen).

Neurri garrantzitsu batzuk azalduko ditugu jarraian (haietako zenbait aipatutako dokumentutik aterata, aldaketa ba-  
tzuekin), Hezkuntza Administrazioak martxan jarri behar dituenak, bereziki, arreta jarri eta balio loteslea emanaz  
Hezkuntzako Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kolaboratiboei (oinarri gisa, Municipis contra la segregación escolar. Sis-  
tema de política educativa local X. Bona 2012: klik hemen):

17. Oinarriko neurria honakoa da: derrigorrezko hezkuntzaren doakotasuna bermatzea ikastetxe guztietan ikasle  
guztientzat. Hezkuntzako ikuskaritza arduratuko da doakotasuna bermatzeaz.

18. Ikasleen artean egin daitezkeen hautaketak saihestuko dira.
19. Eskolaratze Bulegoak ezarriko dira honako helburuekin:
  - A. Familiei informazio eta orientazio pertsonalizatua eskainiko diete ikastetxea aukeratzen laguntzeko. Beharrezkotzat jotzen denean, baloratzeko eta prozesuan laguntzeko zenbait funtzio egin beharko dituzte.
  - B. Ikasleen matrikulazioan parte hartuko dute bai ohiko epean bai epetik kanpo, aukera-berdintasuna sustatzeko eta ikastetxe batzuek ikasleak aukeratzeko garatzen dituzten prozesu ez-formalak eragozteko.
20. Matrikula biziaren kudeaketak ikastetxe guztiak izango ditu kontuan. Segregazio tasa altuagoa duten ikastetxeek ikasle gutxiago jasoko dituzte (kopuruak finkatuko dira).
21. Bestalde, Hezkuntza Administrazioak ikasturtean zehar sartzen diren ikasle berriei dagokienez, gela bakoitzean gehienez sar daitezkeen ikasleen kopuru maximoa ezarri beharko du, dekretuz. Aintzat hartuko da 2009an Eusko Legebiltzarrean onetsitako Legez besteko Proposamena, non heldu berri diren ikasleak eskolatzeko orduan gainditu ezin den gehienezko kopurua finkatzen den.
22. Matrikularen garaian Hezkuntza Administrazioak ez du barematzeko irizpiderik onartuko heterogeneotasun sozialaren aurkako efektua baldin badu.
23. Aztertu eta deseraikiko dira orain arte egon diren mekanismoak familiak hautatzeko (bi urteko gelak ez itunduak, hurrengo urtean umeek eskolan automatikoki jarraitzeko aukera ematen dutenak baremazio prozesuan sartu gabe, adibidez).
24. Eusko Jaurlaritzak ondoko araua betetzen dela kontrolatzeko neurriak jarriko ditu: ikastetxe guztiek errespetatu behar dute berandu sartzen diren ikasleak matrikulatzeko ratioa. Hori dela eta, lekuen erreserbarekin jarraitu behar da aurre-inkripzio epetik haratago eta matrikulatzeko epetik haratago ikastetxe horietan non ez dagoen .
25. Datuak behar bezala jasotze aldera, ikasleak matrikulatzeko prozesuetan amaren, aitaren edo legezko tutoreen jaioterria jasoko da. Soilik datuak ondo hartuta izango da posible diskriminazioaren diagnostikoa egitea eta neurri egokiak hartzea.
26. Jaiotze-tasaren jaitsiera dela, ikastetxe batzuetan datozen urteotan gelak itxiko direla aurreikusita daiteke. Aniztasun sozio-ekonomikoa jasotzen duten gelak dira gizarteari zerbitzu handiena egiten diotenak eta mantentzeko lehen-tasuna izango dutenak.
27. Eskola-segregazio handiagoa duten ikastetxeetan ratioa murriztuko da, leku gutxiago izateko eta ikastetxe horietan kudeatu behar duten hezkuntza-komplexutasuna arintzeko.
28. Segregazioa pairatzen duten ikastetxeei laguntze aldera, hainbat neurri jarri dira abian. Trebakuntza handiko irakasleak erakartzeko neurriak hartuko dira. Irakasleen egonkortasuna ere bermatuko da komplexutasun handiagoko ikastetxeetan.
29. Hezkuntza-berrikuntzako proiektuak bultzatuko dira bertako ikasle eta indize sozioekonomiko eta kultural handiagoko ikasleak aipatutako ikastetxeetara erakartzeko.
30. Kasu batzuetan, beharrezkoa balitz eta inplikaturako sektoreko eragile guztiekin hala adostuta, ikastetxeak ixtea edota fusionatzea erabaki liteke, heterogeneotasuna bultzatzeko asmoz.
31. Euskarazko eredu orokortuan matrikulatzea bultzatuko da, A eta B ereduko gela segregatuak ekiditeko.

32. Ohiko epetik kanpo ikasle berriak sartzen badira, laguntzeko irakasleak berehala izatea, sarrera horrek sortzen dituen beharrei behar den moduan erantzun ahal izateko, bermatuko da.
33. Beharrezkoa da Hezkuntza Administrazioak behar diren baliabideak eskaintzea, baita berezko baliabideak ere, eta oro har eskaintzen dituen bitartekoak baino gehiago ematea atzerritar jatorriko ikasle edo indize sozioekonomiko eta kultural txikiko ikasle kopuru esanguratsua eskolatzen duten ikastetxeei.
34. Desabantailan dauden familiei behar diren laguntza ekonomikoak erraztuko zaizkie, kurtsoa hasieran eta ez hila-bete batzuk pasatu ondoren. Eskatzeko formularioak ulergarriak izango dira eta Administrazioak erraztasunak jarriko ditu.

Neurriok, Gasteizko "Hezkuntza eta aniztasuna lan-mahaiak (2016ko abenduaren 19a)" proposatutakoekin uztartzea proposatzen dugu:

35. Bereziki interesgarritzat jo da Eskolaratze Bulegoak sortzea; Eusko Jaurlaritzak kudeatu beharko ditu, lurralde-earpena izango dute eta, beharrezkoa balitz, udal earpena izango lukete. Aipatutako bulegoetan, lan horretarako trebakuntza duten langileek egin beharko lukete arreta. Funtzioei dagokienez, ondoko lanak gauzatu beharko dituzte:
  - A. Familiei informazio eta orientazio pertsonalizatua eskainiko diete ikastetxea aukeratzen laguntzeko. Beharrezkotzat jotzen denean, baloratzeko eta prozesuan laguntzeko zenbait funtzio egin beharko dituzte.
  - B. Ikasleen matrikulazioan parte hartuko dute, ikastetxeekin batera, bai ohiko epean bai epetik kanpo, aukeraber-dintasuna sustatzeko eta ikasleak aukeratzeko prozesu ez-formalak eragozteko, esaterako, "barra libre" izenekoa, desagertu behar dela uste baitugu.
  - C. Ikastetxeen eta sareen arteko oreka sustatuko dute, atzerritar jatorriko ikasleen matrikulazioari edota indize sozioekonomiko eta kultural txikiko ikasleen matrikulazioari dagokionez.
  - D. Goiz antzemango dituzte berezko hezkuntza-premietara bideratzen diren ahulgarritasun-egoerak; ikastetxeekin koordinatuta egin beharreko lana da.
36. Jarduera osagarriak edo eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzegatiko kuoten kontrola bermatuko dituzten neurriak hartuko dira, doakotasunerantz; gehieneko zenbatekoak ezarriko dira, baita errenta txikia duten familientzako laguntza ekonomikoak ere.
37. Hezkuntzako Ikuskaritzak gauzatu beharreko kontrol neurriak zehaztuko dira, ikasleen artean egin daitezkeen hautaketak saihesteko, esaterako, jarduera osagarriekin edo eskolaz kanpoko jarduerekin lotura ez duten ordainketak egin behar izatea.

### **Matrikula biziaren kudeaketa**

38. Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kolaboratiboek parte diren ikastetxe guztiak aintzat izan behar ditu heldu berri diren ikasleak matrikulatzeko prozesua planifikatzeko orduan; horrela bada, segregazio-tasa handiagoa duten ikastetxeen hobekuntza sustatuko da.
39. Horrez gain, ondokoa ere beharrezkotzat jo da: Hezkuntza Administrazioak zenbait neurri hartu beharko ditu talde-gelaren egonkortasuna sustatzeko, eta ikasturtean zehar sartzen diren ikasle berriei dagokionez, gela bakoitzean gehien sar daitezkeen ikasleen kopurua ezarri beharko du.

## Sarreraren kudeaketa

40. Baremazioa egiteko irizpideak berrikusi behar dira, aipatutako irizpideek ikastetxeen aniztasunaren alde egin dezaten eta eskola-segregazioari aurka egitearren. Hortaz, ondokoa proposatu da: Errentaren irizpideak, izatez, ahalik eta inpakturik txikiena sortu behar duela.
41. Udalek eta Hezkuntza sailak euren arteko lankidetzan sakonduko dute erroldako iruzurrak saihesteko.
42. Erljioari eta laikotasunari dagokionez familien artean dagoen aniztasuna aintzat hartuta, eta eskola-komunitatean zenbait erlijio egon badaudenez, errealitate horrek eskola segregazioan duen inpaktua aztertuko da eta zenbait neurri finkatuko dira ikasle guztiek edozein ikastetxera joateko aukera izan dezaten.

## Hezkuntza-politika inklusiboak

43. Eskola-segregazio maila handiagoa duten ikastetxeetan ratioa murrizteko aukera aintzat hartuko da, ikastetxe horietan kudeatu behar den hezkuntza-komplexutasuna arintzeko.
44. Hezkuntza Administrazioak ondokoa aztertuko du: ikasleak nola banatzen diren eskola-mapako eremu bakoitzeko ikastetxeetan. Ikasleen eskolaratzeari buruz benetako diagnostikoa lortzea da horren helburua, gerora begira zenbait ekintza implementa ditzaten, bai Eusko Jaurlaritzak bai tokian tokiko udalak (azken hauek, Hezkuntza Administrazioaren laguntzarekin), ikastetxe guztietan eta kokatzen diren eremuetan kultura-artekotasuna sustatzeko.

## Ikastetxe segregatuei laguntzeko neurriak

45. Irakasleei dagokienez, ondokoa proposatuko da: trebakuntza handiko irakasleak saritzeko eta erakartzeko hezkuntza-arrisku handiagoa duten ikasleak dituzten eskoletara. Halaber, garrantzi berezia du irakasleen egonkortasuna bermatzeak konplexutasun handiagoko ikastetxeetan.
46. Horrez gain, beharrezkoa da zenbait neurri abian jartzea haur eskoletan matrikulatzen diren indize sozioekonomiko eta kultural handiko familien eskaria erakartzeko, elkarrekin sar daitezten eskari txikiko ikastetxeetan, adibidez.
47. Hezkuntza-berrikuntzako proiektuak edota segregazio handiagoko ikastetxeak konpentsatzeari buruzko neurriak hartuko dira. Hezkuntza sailak Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kolaboratiboekin batera, bertako ikasleak eta indize sozioekonomiko eta kultural handiagoko ikasleak aipatutako ikastetxeetara erakartzeko.
48. Ikastetxe segregatuei dagokienez, ghettoak pixkanaka-pixkanaka txikitzeke talka-planak abian jarriko dira.
49. A edo B ereduko talde segregatuekin bukatuko da.
50. Ohiko epetik kanpo ikasle berriak sartzen badira, errefortsu irakasleren bat izango da, sarrera horrek sortzen dituen beharrei behar den moduan erantzun ahal izateko.
51. Udalen ondorengoa bultzatuko dute: ezaugarri ezberdinak dituzten eskolen Guraso Elkartearen arteko topaketak, komunikazioa eta lankidetzak, elkarrekin zenbait jardura susta ditzaten, esaterako, hitzaldiak, guraso eskolak, zenbait hezkuntza-zerbitzuren kudeaketa partekatua etab. Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kolaboratiboaren koordinazioaren bitartez gauzatu da elkarlan hori.
52. Horrez gain, egokia litzateke udalek hainbat eskolaz kanpoko jardura zonaldeka antolatzeko udal sistema bat finka dezala, prezio publikoen truke eta eremuko ikastetxeetako ikasleentzat.

## Desabantailak dituzten ikasleei eta familiei laguntzeko neurriak

53. Garraiorako, liburuatarako, jantokirako eta jarduera osagarrietarako beken sistema nahikoa ezarriko da. Horrez gain, laguntzak ikasturtearen hasieran esleituko dira.
54. Horrez gain, garrantzitsua da laguntzen sistema bat finkatzea errenta txikiko familietako ikasleek bermatuta izan dezaten eskolaz kanpoko jardueretan antolatutako ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera.
55. Halaber, beharrezkoa da aipatzea udalek, ikastetxeek eta Guraso Elkarteek familiei trebakuntza-eskaintza bat eskainiko dietela, eta horren erreferentzia ikastetxea edo ikastetxearen ingurunea izango dela; zenbait neurri jarriko dira ahulgarritasun sozioekonomikoko egoeran dauden familiak horietan parte hartzeko aukera dutela bermatzeko.
56. Etxetik edo familiaren lanpostutik urrun dagoen ikastetxera joan behar duten ikasleen kasuan, konpentsatzeko zenbait neurri jarriko dira, hala nola, garraiorako erraztasunak.
57. Laguntzak eskatzeko formularioen eta eskaeren diseinua sinplifikatuko da, eta prozesu burokratiko konplexuak saihestuko dira.

Berehalako neurri hauetaz gain, “Eskola Inklusiboa bultzatzeko HEL-ak (2017)” egindako lege proposamena aintzat hartzen dugu, urrats gisa, segregazioari aurre egiteko neurri legegileak proposatzen baititu. Hala nola, hondorengo neurriak gure egiten ditugu:

58. **1.go Artikulua.** Irakaskuntzaren doakotasuna diru publikoez hornitutako ikastetxe guztietan betearaziko da. Hezkuntza Saila arduratuko da irakaskuntzagatiko kuoten kobrantza ageriko edo ezkutuko guztiak indargabetzeaz, horretarako beharrezkoak diren kontrol-mekanismo guztiak martxan jarritz.
59. **2. Artikulua.** Finantza arloko gardentasun nahikoa bermatzeko xedez, Hezkuntza Sailak ziurtatu egingo ditu ikastetxe kontzertatuek jarduera edo zerbitzu osagarriengatik egingo dituzten kobrantzak onartzeko prozedurak eta Buletinean argitaratuko ditu, gutxienez urtean behin, onartutako kopuruak eta azalpenak.
60. **3. Artikulua.** Matrikulazio-prozesuetan gardentasun erabatekoa bermatzeko asmoz, Hezkuntza Sailak, udalerriekin koordinatuta, eskola eremu bakoitzean matrikulazio-bulegoak egokituko ditu eta horiek izango dira ikasleen matrikulaziorako leku bakarrak diru publikoez hornitutako ikastetxe ikastetxeentzat. (Hau Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kolaboratiboetan kokatzen dugu)
61. **4. Artikulua.** ISEI-IVEIren eta komenigarritzat jotzen den beste edozein erakunderen laguntzarekin, hezkuntza arloko Administrazioak Inklusio Beharrianaren Eskola Indizearen (IBEI) kontzeptua zehaztuko du. Horretarako, zentro bakoitzeko adierazle-multzo bat hartuko da oinarri: IBEK, bekadun ikasle, hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasle, hezkuntza beharrian bereziak edo berariazkoak dituzten edota adopzio edo familia- edo egoitzaharrera egoeran dauden ikasleen portzentajeak eta aintzat hartu beharreko beste adierazle batzuk. Behin kontzeptu hori araudian jasota, hezkuntza arloko Administrazioak urteroko txosten bat landuko du Lurralde, eskola-eremu edota zonalde eta ikastetxe bakoitzeko IBEI erabilia. Horri esker, gure hezkuntza sistemaren kohesioa hobetuko duten erabakiak hartu ahal izango dira.
62. **5. Artikulua.** Oro har, eta giza kohesioaren kontra hainbat gehiegikeri saihesteko asmotan, Administrazioak gutxiengo eta gehiengo IBEI ezarriko du eta tarte horretan mugitu beharko dira diru publikoez hornitutako ikastetxe guztiak. IBEIko mailak definitzerakoan EAE eta Lurraldearen erreferentzia globalei eta ikastetxeak dauden eskola-eremu edota zonaldearen erreferentzia hurbilagoei erreparatuko die.

63. **6. Artikulua.** Hezkuntza-itunak eman edo berriztatzea eta beste laguntza publiko batzuk lortzea baldintzatuta egongo da; beharrian sozioekonomikoak, hezkuntza beharrian bereziak edota hezkuntza-laguntzaren berariazko beharrianak dituzten gutxieneko ikasle kopuru bati arreta eman beharko zaie ituna berriztatzeke, itunaz baliatzen diren etapa bakoitzean. Hori gutxieneko IBEI indizean zehaztuta egongo da.
64. **7. Artikulua.** Eskola eremu bakoitzeko hezkuntza beharrianak hobeto ezagutzeko eta zentro guztien artean tratamendu kohesionatuagoa bermatzeko, Sailak urtero Buletin bidez argitaratuko du zeintzuk diren diru publikoek hornitutako ikastetxe guztien arteko eragin-eremuak.
65. **8. Artikulua.** Hezkuntza Sailak, ISEI-IVEI oinarri hartuta, arreta emango die profil sozioekonomiko baxuena duten eta bazterkeria arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxe publikoei. Ikastetxe horiekin kontratuak sinatuko ditu; horrela, inplikaturik dauden komunitateek beharrezko baliabideak jasoko dituzte, beren beharrianen arabera eta urte anitzeko plan batean ezarriko diren helburuen arabera. INEI altua duten zentro kontzertatuei laguntzeko formulak ere aztertuko dira.

## Azken xedapenak

66. **Lehenengoa.** Ezarritako guztia ondo betetzeko xedez, hezkuntzaz arduratzen den Sailak eskumena izango du dagokion araudia garatzeko, honako xedapenetan ezarritakoa bereziki kontuan hartuz.
67. **Bigarrena.** 1. artikulua betetzeko, Herri Ekimen Legegile hau onartzen denetik gehienez ere sei hilabeteko epean, hezkuntzaz arduratzen den Sailak prozedura eta eragileak arautuko ditu Agindu baten bidez. Horien artean. Hezkuntza arloko Ikuskaritza egongo da, eta irakaskuntzaren doakotasunaren printzipioa betearazteaz arduratuko dira.
68. **Hirugarrena.** 2. artikulua betearazteko, Legegintzako Herri Ekimen hau onartzen denetik gehienez ere sei hilabeteko epean, hezkuntzaz arduratzen den Sailak kobrantza horiek onartzeko eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialera bidaltzeko prozedurak arautuko ditu, autonomia mailako Agindu baten bidez.
69. **Laugarrena.** 4., 5., 6. eta 8. artikulua betearazteko, Legegintzako Herri Ekimen hau onartzen denetik gehienez ere sei hilabeteko epean, hezkuntzaz arduratzen den Sailak:
- IBEI indizea eta urtero publikoki argitaratzeko mekanismoak arautzeko araudia argitaratuko du eta diru publikoek hornitutako ikastetxe guztiek errespetatu behar duten IBEIko zorua eta sabaia ezagutzera emango du.
  - Ikastetxe itunpekoen itunak eta laguntza publikoak mantentzeko begira eta 5.artikuluaren xedatutakoa egiaztatzeke, beharrezko xedapen eta arauak garatuko ditu, beti ere ikastetxearen IBEI kontuan hartuz.
  - Ikastetxeek urte anitzeko proiektuak garatu eta Administrazioak horiek eskatzen dituzten hornidura espezifikoak emateko akordioak gauzatzeko beharrezko araudia garatuko da. Era berean, proiektu horien ebaluaziorako indize eta prozedurak zehaztuko dira. Horren barruan, IBEI altua duten zentro kontzertatuei laguntzeko formulak ere aztertuko dira.

Save The Children-ek Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Hitzarmena lortzeko Ponentzian egindako ekarpenean jasotako neurri zuzentzaileekin bat egiten dugu. Hau dela eta, elkarrekin aipatutako zortzi eremu nagusietan eragitea proposatzen dugu.



Hezkuntza-proiektua (ikastetxea) aukeratzeko eta aniztasunaren arteko oreka lortzea proposatzen dugu, hiru premisaren inguruan:

- A. Funtsezkoa da kalitatean eta zerbitzuetan hezkuntza-proiektu baliokideen arteko aukeraketa ziurtatzea.
- B. Familia guztientzako aukeratzeko benetako aukera bermatu behar da.
- C. Familiek ikastetxea aukeratzeko aukera izan behar dute. Familiak aukeratzeko askatasuna lehenetsuneko baliozkat jotzen dutenentzat (adibidez, AEB, Herbehereak, Erresuma Batua edo Belgika), erakusten digute ikastetxea aukeratzeko gaitasuna eta helburu desiragarriak uztartzea ahalbidetzen dutela, hala nola eragin-kortasuna, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa, zeinak eskoletan osaera anitzagoa ematen baitu.
- D. Askatasun horrek, ezin izango du ikastetxeetan sor litezkeen segregazio-egoerak baldintzatu.

Zortzi arlo proposatzen ditugu, eta horiek Inklusiorako Plan propio baten barruan aldi berean jorratzeak murriztu egin ditzake eskola-segregazioa eta aukera-berdintasunaren aldeko hautua.

#### 71. **1. Ikastetxea esleitzeko lehenetsun-irizpideak**

Hurbiltasunaren kontua garrantzitsua da, baina onarpen-sistemaren alderdi bat baino ez da. Ikastetxeek plazen edukiera mugatua dutela onartuz gero, irizpide/baremo batzuk ezar daitezke ikastetxe bakoitzean ikasle bat edo beste sartzeko lehenetsuko, gaitasun-irizpideak izanez gero soilik.

Kontuan hartzen badugu eskola-segregazioaren zati handi bat auzoen barruan gertatzen dela, jarduteko tarte handia dugu plaza onartzeko eta esleitzeko prozesuak diseinatzeko. Maila sozioekonomiko txikiagoa duten familiek aukera gutxiago egiten dituztenez, zentzuzkoa da onarpenean modu positiboan diskriminatzea.

#### 72. **2. Zerrenda bikoitzeko sistema (plaza-erreserbak)**

Sistema honek Flandesen (Belgika) bereizketa nabarmen murriztea lortu zuen. Ikastetxeek plaza hutsen bi zerrenda ezartzen dituzte: plazen erreserba bikoitza ikasleentzat (sozialki desabantailatuak eta aurreratuak), ingurunearen osaera sozialari egokituak. Gaitasun-irizpideak izanez gero, profil bakoitzak bere lehenetsun-zerrenda du, eta zerrenda horri puntuazio-baremoa aplikatzen zaio. Erreserbetako bat betetzen ez denean, plazak beste taldera pasatzen dira, aukeratzeko askatasunaren printzipioa errespetatuz.

#### 73. **3. Familiei eskolatzeko, informazioa emateko eta laguntzeko bulegoak**

Informazioa eskuratzeko desberdintasunak desabantaila-faktore bat dira maila sozioekonomiko txikiagoko familientzat eta jatorri atzerritarrekoentzat. Bertako eta hezkuntza-maila handieneko familiek hobeto eskura dezakete ikastetxei buruzko informazio formala eta informala, eta aukera gehiago dituzte lagunen, senideen eta ezagunen iritzietara eta esperientzietara jotzeko, Internet kontsultatzeko edo zentroak bisitatzeko.

Udaletako eskolatzeko bulegoak (Tokiko Hezkuntza Ekosistema Kolaboratiboen bidez) familien desabantaila handieneko informazioa eta laguntza hobetzera bideratutako praktiken adibideak dira. Beste herrialde batzuetako adibideek erakusten dute familiek sentikorrak direla informazio-ekintzekiko erabakiak hartzerakoan, informazioa nola aurkeztu den axola zaiela, eta maila sozioekonomiko txikiagokoek gehiago jotzen dutela administrazioaren informaziora.

Maila sozioekonomiko handieneko eta bertoko familientzako informazioak ikastetxeetan aniztasunaren presentziari buruzko aurreiritziak desmuntatzeko balio behar du, eta, neurri batean behintzat, ikastetxeak baztertzea saihesteko. Eskolaren ospea erabakietan eragina duen faktore bat da, eta estigmatizazioaren eta segregazioaren gupil zoro gisa joko dezake.

Flandriako (Belgika), Herbehereetako, Danimarkako edo Kataluniako udalek toki-mailan egiten dituzten ekintza motak honako hauek dira: eskualdeko edo hiriko eskolak bisitatzen dituzten tour-ak antolatzea; webguneak egitea, eskualdeko eskaintza osoarekin; materialak eta informazio-ekintzak erakustea, familiekiko komunikazioan eskari gutxien duten zentroi euskarria emanez; edo guraso-talde orekatu edo autoktonoentzako aukera ematen duten gizarte-ekimenen babesa edo sustapena.

74. **4. Matrikula biziaren kudeaketa**

Matrikula bizia deritzona eskolatze berantiarra duten ikastetxeei esleitu ohi zaie, ikasle desabantailatu edo migratzaileen presentzia handiagoarekin lotuta egon ohi dena, eta plaza huts gehiago dituztenez, segregazioa larriagotzen da. Plaza-erreserben eta ratio-igoeren eta murrizketen erabilera adimentsuak matrikula bizia modu orekatuan kudeatzea ahalbidetzen du.

Administrazioek gehieneko ratioaren %10eko igoera dute, hain zuzen ere, egoera horri erantzuteko tresna gisa. Funtsezkoa da ohiko matrikularako ratio-igoera horiek beren edukieraren mugan dauden ikastetxeetan ez ematea eta adierazitako helbururako mantentzea. Lanpostu huts gehiago dituen demografia-beherakadaren testuinguruan, administrazioek ratio horiek murriztu ditzakete, aurreikusitako matrikula bizira egokituz.

75. **5. Des-segregaziorako, kalitaterako eta hobekuntzarako politikak**

Baliabideak ez dira modu ekitatiboan banatzen ikastetxeen artean. Segregazioak gurpil zoro gisa jokatzeko du, eta esku-hartze espezifiko eskatzen du. Kontzentrazioarekin batera, askotan, irakasle kualifikatuek ihes egiten dute ikastetxe hauetatik eta, ondorioz, plantillak ezegonkorak dira, eta horrek hezkuntza-proiektu bat finkatzea zailatzen du. Paradoxikoki, hezkuntza-proiektua eta irakasleak kalitaterako eta ekitaterako garrantzitsuak diren bi faktore dira, eta, beraz, horien gainean jardutea funtsezkoa da.

Ikastetxeen autonomia, profesional onenak gehien behar dituzten lekuetan egotea sustatuko duen hezkuntza politika, ezagutzaren kudeaketa eta ikastetxeen finantzaketa ez hain lineala dira hezkuntza-sistema hobetzen lagun dezaketen neurrietako batzuk.

76. **6. Plazak esleitzeko algoritmoa eta jokabide estrategikoa**

Plazak zehazteko erabili ohi den sistemak ikastetxe bakoitzari ahalik eta ikasle gehien esleitzen dizkio lehenengo aukeran, eta, ondoren bakarrik, bigarren eta hurrengo aukerak hartzen ditu kontuan.

Sistema horrek desberdintasuna areagotzen du hautaketan, hezkuntza eta errenta-maila handieneko familien portaera estrategikoari laguntzen baitio. Sistemaren trikimailuak ezagutzen dituztenek, informazio eta denbora gehien dutenek, hizkuntza-oztoporik ez dutenek eta arriskua beren gain hartu dezaketenen jasotzen dute onura, egokitutako ikastetxearekin pozik ez badaude, nahiago duten beste ikastetxe bat ordaindu baitezakete. Mekanismo hori sistema alternatiboekin ordezkatzeko nahiko erraza da, eta aniztasuna areagotzen eta hautaketa-prozesua bidezkoago egiten lagunduko luke.

77. **7. Hezkuntza-eskaintzaren antolaketa**

Zentroaren eskaria ez dago eskuragarri dagoen eskaintzaren ezaugarrietatik kanpo, hurbiltasuna oraindik ere aukeratzeko faktore garrantzitsua baita familia gehienentzat. Hezkuntza-proiektuaz gain, garrantzitsuak dira eskaintza akademikoan, ordutegian, eskola-zerbitzuetan, etapan arteko ikastetxearen jarraikortasunean edo eskolaz kanpoko eskaintzaren eskaintzan dauden aldeak.

Jantoki-eskaintza desberdinak, goizeko ikasgelak edo eskolaz kanpoko jarduerak eragin nabarmena dute familia eta lana bateragarri egiteko edo ikasteko arrazoiak direla-eta ikastetxea aukeratzeko orduan. Jangelaren erabilera-ri, garraioari eta abarri buruzko datuak adierazgarriak dira.

78. **8. Erregulazioa, doakotasuna, finantzaketa eta kuoten debekua (ez da berriz garatuko, errepikakorra izan ez dadin)**

Eta bukatzeko, gure egiten ditugu ere Lucas Gortazar eta Alvaro Ferrer Save The Children eta EsadeEcPol-eko adituek (Diversidad y libertad. Reducir la segregación escolar respetando la capacidad de elección de centro. 2021eko apirila) Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Hitzarmena lortzeko Ponentzian egindako ekarpenean jasotako neurri zuzentzaileekin:

79. Talde sozioekonomiko konkretuekiko diskriminazio positiboa areagotzea onarpen-baremoetan.
  - A. Maila sozioekonomiko txikiagoa duten familiek hautaketaren onura gutxiago jasotzen duten heinean, zentzuzkoa da onarpenean modu positiboan diskriminatzea eta errenta altuko familiak ez saritzea.
80. Zonaren testuinguruari egokituia plazan erreserbarako zerreda bikoitzeko sistema ezartzea.
  - A. Zerrenda bikoitzeko sistemak Flandesen (Belgika) bereizketa nabarmen murriztea lortu zuen. Eskolek plaza hutsen bi zerrenda ezarri behar dituzte: plaza erreserba bikoitza sozialki desabantailatuak eta abantailatsuak diren ikasleentzat, ingurunearen osaera sozialari egokituak. Zerrenda bakar baten ordean, gaineskaririk izanez gero, profil bakoitzak bere lehentasun-zerrenda du, eta zerrenda horri puntuazio-baremoa aplikatzen zaio. Erreserbetako bat betetzen ez denean, plazak beste taldera pasatzen dira, eta, horrela, Flandesko hezkuntza-sistema historikoki ezaugarritzen duen aukeratzeko askatasunaren printzipioa errespetatzen da. Izan ere, neurriaren arrakasta eskola batean ordezkari txikia duten familiek eskola eskatzearen araberakoa da.
81. Familiei emandako informazioa eta laguntza hobetzea.
  - A. Kataluniako eskolatzeko-bulegoak eta AEBetako Family Resource Centers desabantailarik handieneko familien informazioa eta laguntza hobetzeko praktiken adibide dira. Kataluniak lehentasun bihurtu du hori, udalen eta gobernu autonomikoaren arteko lankidetzaren ondorioz. Beste herrialde batzuetako adibideek erakusten dute familiek sentikorrek direla informazio-ekintzekiko erabakiak hartzerakoan, informazioa nola aurkezten den garrantzitsua dela eta azterketek agerian uzten dute maila sozioekonomiko txikiagoko familiek gehiago jotzen dutela administrazioak ematen dien informaziora.
82. Hobekuntza, berrikuntza eta laguntza-politiken sistemaren alde egitea, ikastetxe guztietan ahalik eta kalitate handiena lortzeko.
  - A. Politika fokalizatuek gain, badira egiturazko politika batzuk, eta horiek aldatzeak ikastetxe guztien kalitatea hobetzen lagun lezake. Adibidez, ikastetxeen autonomia, irakasle onenak gehien behar dituzten lekuetan egotea eta plantillak egonkorak izatea sustatzen duten irakasleen politikak, ezagutzaren kudeaketa edo ikastetxeen finantzaketa ez hain lineala, hezkuntza-sistema hobetzen lagun dezaketelako politiketako batzuk dira.
83. Plazak esleitzeko algoritmoa (Bostongo mekanismoa) eredu alternatibo eraginkorragoekin eta zuzenagoekin aldatzea.
  - A. Sistema honek ahalik eta ikasle gehien esleitzen dizkio bere lehen aukerari, eta esleipen horren ondoren bakarrik hartzen ditu kontuan bigarren eta hurrengo aukerak. Horrela, lehen aukerako ikastetxera sartzen ez bada, plaza hutsak dauden zentroetako batean amaitzeko arrisku handia dakar berekin, eta ez du zertan bere lehentasunezkoa izan eta ez du zertan ekitatearen eta inklusioaren ikuspegia txertatu. Beraz, aldatu beharra dago.

84. Ikastetxe guztien eskola-eskaintza hobetzea eta berdintzea (lanaldi luzatua, jantoki-zerbitzuak...).
- A. Familiek dauden aukeren eskaintzaren arabera aukeratzen dute gehienetan. Eskaria ez dago eskuragarri dagoen eskaintzaren ezaugarrietatik kanpo, hurbiltasuna baita oraindik ere familia gehienentzat aukeratzeko faktorerik garrantzitsuenak. Hezkuntza-proiektuaz gain, alde handiak daude eskaintza akademikoan, jardunaldian, eskola-zerbitzuetan, ikastetxeen etapan arteko jarraitutasunean edo eskolaz kanpoko eskaintzaren eskaintzan. Antolaketari eta eskaintzako zerbitzuei dagokienez baliokidetasun handiagoa izateak eskola-segregazioa murrizten lagunduko luke.

Aurreko neurriak ez dira proposatzen Administrazioak neurriren bat soilik aukeratzeko eta abian jartzeko. Segregazioari aurre egiteak eskatzen du neurri multzo bat inplementatzea, arazoa multidimentsionala delako eta alderdi desberdinetatik heldu behar ziolako neurri osagarrien bidez, benetako borondate politikoa erakutsita.

Aipatu neurrietako askok, Kataluniako Hezkuntza Legeak (LEC 12/2009 uztailearen 10ekoa) eta Ikasleen Onarpenerako garatutako ondorengo dekretuak jasotzen dituzte. Baita Eskola-Segregazioaren Kontrako Itunak ere. Euskal dimentsiora egokituak izan dira aditu ezberdinek gure egoera konkretura planteatuta.

## Segregazioaren kontrako herri akordioa

Honetaz guztiaz gain, 85. neurri osagarri bat proposatzen dugu: Segregazioaren Kontrako Herri Akordioa.

Herri akordio horretan hezkuntza komunitateak, Hezkuntza Administrazioak, tokiko administrazioek hirugarren sektoreak, edota gaiarekin zerikusia duten bestelako eragileek parte hartzea proposatzen dugu. Kasu honetarako, eredu dugu: "Pacte contra la segregació escolar en Catalunya" Síndic de Greuges, el defensor de les persones (2019).



Wafarrod  
Gardid

# 1. Sarrera.

## Kontestualizazioa

---

Nafarroa Garaian legegintzaldiaren amaiera partean gaude. Aukera leiho bat ireki da “Hezkuntza Hitzarmena” izan litekeena lantzen hasteko, legegintzaldi honetarako Nafarroako Gobernua osatzen duten talde parlamentarioen akordio programatikoak ezartzen zuenaren bidetik. Hartara, Hezkuntza Departamentuak “enkargua” egin zion Nafarroako Eskola Kontseiluari hezkuntza itunaren alderdi “soziala” adosteko, eta abenduaren amaieran ekin zion lan honi.

Egia esan, ez dirudi anbiziorik dagoenik benetako prozesu bati ekiteko, ez behar lukeen sakontasun maila emateko, ez eta geure sistemak beharko lituzkeen jauziak emateko ere. Oso prozedura mugatua jarri dute martxan, epeei eta parte-hartzeari dagokionez, eta alde zuzenetik arlo politikoan inolako adostasunik dagoen aztertu gabe.

Nafarroako Eskola Kontseilua lantzen ari den oinarritzko zirriborroan bertan Hezkuntza Lege propioa egiteko erronka jasotzen da, Nafarroako hezkuntza sistemaren egoerak eta erronkak ikusita. Ez dirudi, ordea, Hezkuntza Departamentuak berak legerik aurkeztu edo onartzeko asmorik daukanik. Hala ere, EH Bilduk aukera hori baliatu nahi izan du itun horren oinarri izan beharko lituzketen gaiak kokatzeko eta Hego Euskal Herrirako egindako proposamen estrategikoa- ren gako nagusiak Nafarroako errealitateara egokitze.

Izan ere, proposamen estrategiko orokorrak EH Bilduren ildoan ezarri eta Euskal Sistema Publiko Burujabea eraikitze bidea marrazten du, egungo errealitateetik abiatuta trantsizio-proposamena eginez. EAEn baldintza politiko eta sozial jakin batzuk eman dira balizko adostasunik lortzeko eta proposamen estrategikoa zehaztasun maila handiago batera eramanez, Hezigune proposamena mahai gaineratuz. Nafarro Garaian halako baldintzarik ez da eman, baina Hego Euskal Herri osorako ikuspegia osatzea da gure asmoa, aurrerantzean eragileekin landu eta osatu beharko dugun hasierako dokumentu honekin bada ere.

Egungo testuinguruak, zailtasunak zailtasun, eraldaketarako aukera batzuk irekiko ditu LOMLOEren ezarpenak berak ekarriko dituen aldaketak baliatu dituzagun geure helburu estrategikoetan aurrera egiteko.

Horrekin batera, aintzat hartu behar da Nafarroa Garaian daukagun errealitatean eta egoera sozial zein politikoan EAerekiko alde nabarmena dela, berezitasun propioak dituela eta hezkuntza zein hizkuntza arloan ere trantsiziorako gakoak ezberdinak direla hainbat arlotan, abiapuntua bera ezberdina baita. Esaterako, Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioaren ondorioak eta euskara Nafarroa osoan ofiziala ez izatea.

Beraz, dokumentu hau Hezkuntza arloan trantsiziorako proposamen estrategikoa Nafarroan kokatzeko lehen lurreratzeko ariketa da. Ez da behin-betiko dokumentua, lehen hurbilpena baino. Eztabaida horretarako abiapuntua jartzea da helburua, egoeraren azterketatik abiatuz, erronka nagusiak identifikatuz eta proposamen zehatzak egiteko oinarriak jarritz.

## 2. Nafarroa Garaiko Hezkuntza Sistema. Egoeraren azterketa

---

### Nafarroa Garaiko hezkuntza sistemaren testuingurua

#### Adierazle demografiko eta sozioekonomikoak

Erronka demografikoa agerikoa da.

- » **Populazioaren piramideari** begiratuta 35-59 adin tartea da zabalena. 0-9 tarte murriztena.
- » **Bilakaera demografikoa** dagokionez, azken hamarkada honetan populazioa ia %15ean hazi da. 2020-2035 aldirako, ordea, aurreikuspena %5,37koa da.
- » **Jaiotze tasa** ia bi puntutan jaitsi da azken bi hamarkadetan. 2000. Urtean Europako jaiotze-tasa 10,6koa zen eta NGkoa 9,6. 2020an Europan 9,1koa da, Nafarroan 7,7. Ia bi puntu jaitsi da azken bi hamarkadetan, Europan izandako jaitsieraren bikoitza. 2019ko abenduaren 31an, 0-14 adin tartea populazio osoaren %15,3 besterik ez zen.
- » **3 urterekin hezkuntza sisteman sartzen den haur kopuruaren** joera ere oso adierazgarria da. Sei urtetan %19,85-eko jaitsiera izan da matrikulazioan.

2015-16	2018-19	2019-20	2020-21	2021-22
6.700	6.321	5.850	5.630	5.370

#### » Populazioaren banaketa.

- **Landa eremuak** Nafarroan daukan garrantzia nabarmentzekoa da. 2000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan bizi diren herritarrak %12,9 dira. Espainiar Estatuaren batz bestekoa %5,6. Nafarroa Garaia erkidego guztien artean bosgarrena da adierazle horri dagokionez. Herri hauetan bizi diren gazteak, 17 urte bitartean, 12.800 dira. Landa eremuan bizi diren herritar guztien %15 da, eta Nafarroa osoko 17 urtetik beherako gazte guztien %11,1. Populazio egonkorra da. Errealitate honek garrantzia handia du landa eremuko hezkuntza zerbitzuen etorkizuna erabakitzeke orduan.
- **Tokiko administrazioaren dispertsioa.** Comptos Ganberaren azken azterketaren arabera (2021eko abenduaren 22koa) Nafarroan 702 toki entitate ditugu guztira. 272 udal, 346 kontzeju, 62 mankomunitate eta 22 toki erakundeen agrupazio. Udalen %69-ak 1.000 biztanletik behera dauka. Udal oso txikiak dira gehienak, balia-

bide gutxikoak, eta zailtasunak dituzte kalitatezko zerbitzuak emateko. 2019ko tokiko mapa berrantolatzeke legearen garapena egiteke dago. Orain finantzazioaren atalean adostasuna lortu da. Eskumenen arloan eta eskualdeen sorreran aurrera egin behar da, baina adostasunak biltzea zaila izanen da. Afera honek lotura zuzena izan dezake hezkuntza arloko eskumenekin (0-3 zikloari dagokionez, bereziki).

- **Despopulazio arriskua.** Nafarroako herrien artean %60tik gora dira despopulazio arriskuan daudenak, Errealitate Sozialaren Behatokiak egindako azken txostenaren arabera. Arrisku larriena daukaten eskualdeak Pirinioa, Aurre-Pirinioa, Zangozaldea, Zona Media eta Lizarraldea.
- » **Herritarren jatorriari dagokionez, azken bi hamarkadetan gorakada handia izan da.** 2000. Urtean %1,7 zen atzerrian jaiotakoen tasa, eta 2021eko urtarrilean %10,8koa. Nazionalitate nagusiak Maroko, Errumania, Bulgaria, Portugal eta Ekuador dira.
- » **Barne produktu gordina.** Nafarroan, per capita 32.692 eurokoa da. Europar Batasuneko baina handiagoa (31.960) eta, batez ere, Estatuan baino askoz altuagoa (26.438).
- » **Pobrezia erlatibo pairatzeko arriskua** %9,9koa da Nafarroan. Espainiar Estatu osoko erkidegoen artean baxue-na da. Baina 0-16 adin tartean %16,6ra igotzen da. Haur eta gazteak dira pobrezian egoteko arrisku handiena daukatenak.
- » **Digitalizazioa.** Nahiko orokortuta. Internet eskuragarri duten etxeak Nafarroan %96,5 dira. Estatuaren (%95) eta Europako datuen gainetik (%91).

## Alderdi soziolinguistikoak

Nafarroari buruzko datu orokor eguneratuenak Nafarroako Estatistika Institutuak 2018an egin zuen Gizarte eta Bizi-Baldintzei buruzko Inkestari dagozkio.

- » **Ezagutza.** Datuak esanguratsuak dira. Horien arabera, 15 urte edo gehiago dituzten 43.499 pertsona dira euskaldun Nafarroan. Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioa eta euskaraz ikasteko izandako muga eta zailtasunak agerian geratzen dira. “Eremu misto”an hazi da gehien euskaldun kopurua (% 5,2tik % 12,4ra). “Eremu ez-euskaldun”ean, 2018an, % 2,6koa da ehunekoa; duela 25 urte % 0,6koa zen. Azkenik, eremu euskaldunean, euskaldun kopuruak ez du aldaketa handirik izan: % 60-61 inguruan mantentzen da.

Ama-hizkuntzei dagokienez, **10 pertsonatik bederatzik gaztelera (edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat) jaso dute etxean.**

Esanguratsua, era berean, **16-24 adin tartean euskaraz dakitenak %24,9 direla eta euskaldun hartzaileak %9,6.** Gero eta gazteago, beraz, orduan eta euskaldunagoa da jendartea.

- » **Erabilera.** 15 urte edo gehiago dituzten nafarren % 4,2k euskara erabiltzen du ohiko hizkuntza moduan etxean, % 89,7k gaztelania erabiltzen du, % 3,8k bata zein bestea erabiltzen ditu, eta % 2,3 beste hizkuntzaren batean mintzatzen da.

Eremuaren arabera, eremu euskaldunean da handiena etxean euskara ohiko hizkuntza gisa erabiltzen duten pertsonen ehunekoa (% 35,4). Eremu mistoan, ehunekoa % 1,4 da. Ehuneko txikiena eremu ez-euskalduneko da (%0,2).

Ezagutza handiena daukan adin tartean, 16-24, %5,7 da soilik euskara egunerokoan hizkuntza nagusi daukana.



## Ekitatea eta planifikazioa

### Hizkuntzen trataera hezkuntza sisteman

#### Hizkuntza-ereduak

- » **A, B, D eta G dira indarrean dauden ereduak.** Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan euskara sartzeara eta bere erabilera arautzen dituen *Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak*, Euskarari buruzko Foru Legea garatu eta A, B eta D hizkuntza-ereduak definitzen ditu.
  - A hizkuntza-ereduan irakaskuntza gaztelaniaz ematen da eta euskara irakasgai soilak da, maila, etapa eta modalitate guztietan.
  - B hizkuntza ereduak euskaraz ematen da irakaskuntza, eta gaztelania irakasgai zein irakaskuntza-hizkuntza gisa erabiltzen da irakasgai batean edo batzuetan, irakaskuntzaren, zikloaren edo etaparen arabera.
  - D hizkuntza ereduak euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelaniako irakasgaia izan ezik.
  - G ereduak ez dago ez euskarazko ez euskararen irakaskuntzarik. Hauxe da, gainera, hezkuntza sisteman gailentzen den ereduak.
- » **Euskararen Legeak ezartzen duen zonifikazioa eta hizkuntza-ereduak.** Arestian aipatutako Foru Dekretuan A, B eta D ereduak onartzen dira eremu euskaldunetan (euskara irakastea nahitaezkoa da, beraz); A, B, D eta G ereduak onartzen dira eremu mistoetan eta A, G eta, 2015-2016 ikasturteetik aurrera, D ereduak onartzen dira eremu ez-euskaldunetan. Ordura arte, ikastolak izan ziren belaunaldi berrien euskalduntzerako helduleku eta tresna bakarra.
- » **Euskarazko murgiltzea bermatzeko zailtasunak.** Esan bezala, "Eremu ez-euskaldunetan" 2015etik egoera aldatu den arren, D ereduko lerroak zabaltzeko zailtasunak badira. Araudia murriztailea da, baldintzatu egiten delako D ereduko lerroak sortzea gutxieneko ikasle kopuru bat izan dadin. (41/2016 FORU AGINDUA, martxoaren 30ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, gutxieneko ikasle-ratioa ezartzen duena eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan D ereduko unitate bat irekitzeko. Iragarkia - Nafarroako Aldizkari Ofiziala (navarra.es). Araudi honen arabera, 8 ikasleko gutxieneko kopurua ezartzen da, eta landa eskolentzako ez dago argi.
- » Horrez gain, gehienetan gaztelera hutsez funtzionatzen duten eskoletan euskarazko lerroak irekitzeak ez du murgiltzea egoki egitea bermatzen.
- » Gainera, Mendigorrian gertatu zen moduan, Hezkuntza mapa aldatzeko prozesua luzeegia da eta hori baliatu izan da D ereduko lerroen irekiera oztopatzeko.

Bestela ere, Nafarroan badira D eredu hutsezko ikastetxe publikoak, baina azken urteotako joera garbia da ereduak nahasterearen alde. Egun, gehiengo politiko zabala da hori bultzatzen duena eta ikastetxe berrietan joera hori nagusi da.

- » **Hizkuntza-ereduen arabeko ikasleen banaketa** honakoa izan zen 2020-21 ikasturtean:

	HH	LH	DBH	BATX
G Edua	%51	%54	%66,7	%72,1
D Edua	%28,6	%26,3	%25,1	%24,3
A Edua	%20,2	%19,2	%8,2	%3,6
B ereduak	%0,2	%0,2	-	-

**Guztira, ikasleen %61,7 G ereduari dago eskolarizatuta**, D ereduari %24,7, A ereduari %13,5 eta B ereduari %0,1. Azken ikasturteotako datuak antzekoak dira, baina G ereduaren aldeko goranzko joera ikusten da (puntu bat bost urtetan), A ereduaren kalderan.

- » **Hizkuntza-eredu aldaketari erreparatuta**, joera bera izan da azken ikasturteetan. 2020-21 ikasturtean 1.530 eskaera izan ziren eredu aldatzeko, horietatik 1.183 A ereduari G ereduari pasatzeko eta 35 D ereduari G-ra. D ereduari A ereduari pasatzeko, guztira, 73 izan ziren. Eskaera guztien %80-a, beraz, euskara erabat bazter uzteko helburuz egiten da, G ereduaren alde. Eta 4,77, murgiltze ereduari uzteko. **Guztira, beraz, eredu aldaketa guztien artean ia %85 dira euskararen kalderan.**
- » **0-3 zikloan ez da berez hizkuntza-eredurik existitzen.** Euskarazko modalitatea bada, eta nagusiki udalen esku geratzen da hizkuntza eskaintza zehaztea, publikoak diren haur-eskola gehien-gehienak, zazpi izan ezik, udal titulartasunekoak direlako. Horrek dakarrena da eremu “ez euskaldunean” eta “eremu mixto”-ko herri askotan euskarazko eskaintzarik ez egotea. Iruñean ere, Udalak azken legegintzaldi honetan euskarazko plazak murriztu ditu eta gainera euskarazko lerroetan ingelesezko jarduerak sartzen ari da, euskarazko murgiltzea oztopatuz. Era berean, euskara hutsez funtzionatzen zuten haur eskoletan gaztelarazko lerroak sartzen ari dira.
- » **2022-23 ikasturterako 3 urterako aurre-matrikularen datuari erreparatuta, 1.480 eskaera jaso dira haurrak euskaraz matrikulatzeko, 2021-22 ikasturte honetan baino %5,8 gutxiago. Jaitsiera hau jaiotze-tasarean baino handixeagoa da.**

Ikastetxe publikoetan jaitsiera handixeagoa da, %6,5ekoa. Iruñea eta Iruñerrian aldaerak handiak dira. D ereduari aurre-matrikula gehiago jaso ditu Barañainen, Antsoainen, Huarten, Zizur Nagusian, Txantrea auzoan, Iruñeko Alde Zaharrean, etab. Baina jaitsiera handiak izan dira Sarrigurenen, Atarrabian, Orkoien, Mendillorri auzoan, Arrotxapean edo Buztintxurin.

Nafarroako gainontzeko eskualdeetan, jaiotze-tasaren aldagaia nabarmenagoa da eta eskaera kopurua izugarri jaitsi da Olaztin, Arbizun, Elizondon, Lekunberrin, Lodosan edo Irurtzunen, esaterako.

Ikastolei dagokienez, kezkatzekoa da Tafallako ikastolan 25etik 18ra pasa izana, Tuterako Argia ikastolan 15etik 8ra, Altsasuko Iñigo Aritzan 21etik 16ra, Irunberrin 9tik 2ra eta Lodosako Ibaialden ikasle bakar baten eskaera jaso izana, iaz 6 izan zirelarik. **Arreta berezia jarri behar da zonalde diskriminatuko datu kezkarrietan**, beraz.

## Atzerriko hizkuntzak ikasteko programak

- » Haur eta Lehen Hezkuntzan Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko Programetan (Ingelesa Ikasteko Programa- IIP/Frantsesa Ikasteko Programa- FIP/Alemaniera Ikasteko Programa- AIP) **areagotu egiten dira ingelesez, frantsesez edo alemanez emandako eskolak (astean 12 saiora arte A/G ereduari eta astean 8 saiora arte D ereduari)**. Badago salbuespenen bat, aurrez eskatu eta Departamentuak onartu ondoren, D ereduari 6 ikastordura jaisteko aukera baliatu duena. Ingeles programan A ereduari ikasleek euskara ere ematen dute irakasgai gisa.
- » **Ezarpen prozesua.** Hasieran British eta TIL (Tratamiento Integrado de Lenguas) programak ezarri ziren hainbat ikastetxe publikotan eta itunpeko ikastetxeen kasuan, ikastetxeek beraiek eskatu zuten, oro har, programan sartzea. Erabakia zentroek bere hartu zuten, eta Departamentuak baimena eman zien eskaera egiteko.

Ondorengo urteetan kosta ahala kosta zabaldu zen ikastetxe publiko askotan, urtero hamarnaka ikastetxe sartuta, behar ziren baliabide eta planifikaziorik gabe. Ikastetxe publikoen gutxiengo batek bakarrik eskatu zuen ezarpen

hori borondatez. Azken hamar urteotan sartu direnen artean, askotan hezkuntza-administrazioaren aldebakarreko erabakia izan da, familien balizko nahiari erantzunez.

- » **Irizpide politikoak, pedagogikoak baino.** Halako programak ezartzeko bultzada politikoa agerikoa izan da. A eta D ereduaren zabalpena mugatzeko modua ikusi zuen eskuinak eta lortu egin zuen neurri handi batean, A ereduaren atzerakada argian dagoelako eta D ereduak urteak daramatzalako aurrera egin ezinean.
- » **Egun oso zabaldua daude programak, bereziki ingeles programa.** 2020-21 ikasturtean, HH eta LHko 116 ikas-tetxetan ematen dira eta 36.800 ikasle biltzen dituzte. Kopuru oso esanguratsua, %62tik gorakoa, etapa horietan, ikasturte horretan 59.270 ikasle zeudela matrikulatuta kontuan hartuta. Bigarren Hezkuntzan 43 ikastetxe dira, 7.600 ikaslerekin, Bigarren Hezkuntza osoko ikasleen %21,45. Guztira, 44.400 ikasle ari dira halako programetan, etapa guztietako ikasleen %42. Esanguratsua ere bada 50 herritan ez dagoela PAI-koa ez den bestelako eskaintza publikorik.
- » Aurrera begira **programa hauek blindatzeko eta hizkuntza-eredu bilakatzeko erabaki politikoa hartu du Nafarroako Parlamentuak**, PSN eta Navarra Sumaren aldeko botoekin. Dokumentu hau ixteko unean foru lege bat onartu berri da atzerriko hizkuntzen akreditazioa ezinbesteko baldintza izan dadin programa hauetan aritzen diren 350 bat lanpostu egonkortu ahal izateko, 11/2022 FORU LEGEA, maiatzaren 4koa, neurriak ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/88/0> . Horrek esan nahi du irakasleen kidego berri bat sortuko dela Nafarroan, estatuko kidegotik kanpo, berezitasun jakin batzuekin. Behin-behinekotasun tasa jaisteko aitzakia baliatuta, familiek programa hauek hautatzeko eskubidea bermatu eta eredu bilakatzeko prozesua jaso egiten da. Horrek hezkuntza sistema osoan, antolakuntzan eta irakasleen kudeaketa izango lituzkeen ondorioak ikusteke daude. Bai eta berme juridikorik ote dagoen lege hau aplikatu ahal izateko.

## Ebaluazioa

Iragan legegintzaldian, Lehen Hezkuntzako 6. Mailan **PAI-n ikasten zuten ikasleen ebaluazioak egin ziren hiru ikasturtetan**, 2015-16, 2016-17 eta 2017-18an. Evaluación de Programas de Aprendizaje en Lenguas Extranjeras - Dpto - Educación (navarra.es).

- » 2015-16an konpetentzia zientifikoa (ingelesez ematen da) eta ingelesezko hizkuntza konpetentzia ebaluatu ziren, PAI-n ikasten zuten eta ez zuten ikasleak parekatuz.
- » 2016-17 eta 2017-18 ikasturteetan PAIn ikasten zuten ikasleen ingeles maila besterik ez zen ebaluatu.
- » 2017-18koak 3 ebaluazioen konparaketa dakar.

## **Ebaluazioen ondorio nagusiak**

### Mugak

- » Ebaluazioetan parte hartu zuten ikasle gehienak British/PAI lehenengo promozioak izan ziren, modu ordenatuan hasi zirenak.
- » 2015-16ko azterketa da bakarra interes taldea (PAI-ko ikasleak) eta kontrol taldea (PAI-rik gabekoak) alderatzen. Eta ebaluazioak berak jasotzen duenez, "bi taldeen ezaugarriek alde estatistikoki esanguratsuak dituzte, eragin nabarmena dute ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren eta zientzia-gaitasunaren emaitzetan. Ikasketak British/PAI

programa duten ikastetxeetan egiten dituzten ikasleen taldeak jatorrizko ikasle gehiago ditu, Lehen Hezkuntza osoa ikastetxe berean egiten dute nagusiki, hezkuntza-premia gutxiago dituzte hezkuntza-sisteman berandu sartzegatik eta/edo gizarte- eta kultura-egoera ahuleko familietako kide izateagatik (ITSE), beren adinaren arabera dagokien mailan ikasle gehiago dituzte eta banakako indize sozioekonomiko eta kultural (ISEK) altua duten ikasle gehiago dituzte.”

#### Emaitzak

- » Ebaluatutako trebetasun guztietan errendimendu-maila hobeak lortzen dituzte etorkinak ez diren ikasleek, Lehen Hezkuntzan ikastetxez aldatzen ez direnek, hezkuntza-premia berezirik ez dutenek, dagokien adinaren arabera ikasten dutenek, ISEK ertain-altukoak eta British/PAI programetan ikasten dutenek.
- » Faktore horien guztien artean British/PAI programetan ikasteak du emaitzetan eragin handiena: ebaluatutako trebetasun guztietan lortutako errendimendu-mailetan alde nabarmenak daude, ikasleak British/PAI programaren barruan edo kanpoan ikasten duen kontuan hartuta, eta British/PAI programetan ikasten dutenek emaitza hobeak lortzen dituzte kasu guztietan.
- » British/PAI programaren barruan, ahozko ulermenaren emaitzetan eragin handiena duen faktorea ITSEk eragindako hezkuntza-premien presentzia da (emaitza txarragoak lortzen dituzte ITSEk eragindako hezkuntza-premiak dituztenek), eta gainerako trebetasunetan emaitzetan eragin handiena duen faktorea banakako ISEK maila da (emaitza txarragoak lortzen dituzte banakako ISEK maila baxu-ertaina dutenek).
- » Gaitasun zientifikoaren maila antzekoa da, British/PAI programan ikasketak egin edo ez. Kompetentzia zientifikoan emaitza hobeak lortzen dituzte etorkinak ez diren ikasleek, ITSErengatik hezkuntza-premiarik ez dutenek, dagokien adinaren arabera ikasten dutenek eta ISEK ertain-altukoak. Ikastetxean sartzeko ikastaroak eta British/PAI programako kide izateak, berriz, ez dute eragin handirik gaitasun zientifikoan lortutako emaitzetan.

**Horrekin batera, 2016an, PAIren inguruko inkesta bat egin zuen** Hezkuntza Departamentuko Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzuak, dae196af-184d-4375-909e-4792659d821f (navarra.es). PAI edo British programetan zeuden 106 ikastetxe publiko eta itunpekoetan (A-G ereduko kristau ikastetxeak, ez ikastolak) egin zen, inkestak eta eztabaida taldeak baliatuta. Ondorio nagusiak hauek izan ziren:

- » **Emaitzak.** LHko 6. mailako ikasleen artean ingeles maila hobea zela frogatutzat eman zen. Baina emaitzak ezin dira batz-betekotzat jo, kontuan hartu behar baita programaren ezarpenaren lehen belaunaldiak direla, neurritz ezartzen hasi zenekoa. Maila sozioekonomikoa ere batz-bestekoa baino askoz altuagoa zen.
- » **Gogobetetze-maila.** Programan ari diren ikastetxe guztiak aintzat hartuta batz-besteko puntuazioa 6,2 da 10etik, 7,8ra iritsiz British zentro gisa hasi zirenetan; 7,5 itunpeko ikastetxeetan eta 5,7 ikastetxe publikoetan; puntuaziorik baxuena D ereduan (4,6) eta ikastetxe txikietan daude, gehienetan landa-eremuak (5,6).
- » **Jarraitzeko asmo-gogoia.** % 70ek seguru eta % 18k ziurrenik PAIarekin jarraitu nahi dute. % 12k nahiago du ez jarraitu. Jarraitu nahi dutenen artean, British zentroak eta itunpekoak dira PAIarekin jarraitzeko asmorik garbiena erakusten dutenak, % 100era iristen baitira. Nahi ez dutenen artean, PAIn ikasle gutxi dituztenak (50 baino gutxiago) ( % 20) eta D eredukoak ( % 43) dira ehunekorik handiena dutenak.
- » **Prozesuan ateratako alde onak:** PAI programaren ondorioz, desagertzeraz edo marjinal izateko bidean zeuden ikastetxeek ikasleen kopurua handitu dute, eta ikasle horiek askotarikoak dira, maila sozioekonomiko eskasagoa duten familiei aukerak zabalduz. Familia askok oso begi onez ikusten dute programa bera.

» **PAIren ezarpenari buruzko kritika nagusiak:**

- **Arlo metodologikoan prestakuntza gutxi izatea eta jasotako prestakuntza eskasa** izatea % 67rentzat, batez ere D ereduko ikastetxeentzat (%88).
- Programaren antolamendu-arazo nagusiak **ikasleen aniztasunari erantzutea** ( % 56) eta irakasleen antolaketara eta koordinazioa ( % 55) dira.
- PAI ematen duten ikastetxe guztiek **curriculum komunik ez izatea**, nahiz eta, era berean, onartzen da ikastetxe bakoitzak ikasgaietarako eta ingeleseko orduetarako nolabaiteko autonomia izatea positiboa duela.
- D ereduko ikastetxeetan ingelesaren aldeko euskarazko irakasgaien koordinazioa eta denbora murriztea, eta horrek esan nahi du ez dagoela bi hizkuntzetako bakar baten ezagutza optimorik.

- » **Programa uztea.** Pasa den legegintzaldian onartutako araudiak (147/2016 Foru Agindua, abenduaren 30ekoa) jasotzen zuen ikastetxeak programan sartzeko edo bertatik ateratzeko prozedura. Urte hauetan guztietan ikastetxe bakar batek egin du ateratzeko eskaera, Castejongo eskola publikoak. Emandako arrazoiak aniztasunaren trataerarekin daude lotuta, ikasleen %40 atzerrikoa edo eskolatze berantiarrekoa delako edota bestelako premia bereziak dituelako. Horixe da, hain zuzen, Erriberako ikastetxe gehienetan bizi duten egoera.

Eskaera onartzeko zailtasun handiak jarri zaizkio Departamentuaren aldetik, ezezkia ere eman baitzieten eskaera onartu aurreko ikasturtean. Behin onartuta, ikasle berrientzako soilik onartu da programa indargabetzea, beraz, eskaera onartu zenetik zortzi urtez mantendu beharko dute programa 2021-22 ikasturtean HH-ko 2. Zikloko 2. mailan dauden ikasleek Lehen Hezkuntza amaitu arte.

Prozedura honek indarrean jarraitzen duen bitartean zail izango da zalantzak eta zailtasunak dituzten ikastetxe eta hezkuntza komunitateek programa uzteko urratsa egitea.

## **Ikasleen onarpenerako irizpideak**

LOMLOE onartzearen ondorioz Nafarroako Hezkuntza Departamentuak 2021-22 ikasturterako ikasleen onarpenerako irizpide eta araudi berria onartu zuen, 33/2021 FORU DEKRETUA, APirilAREN 28KOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ETA PRIBATU ITUNDUETAN IKASLEAK ONARTZEKO ARAUAK EZARTZEN DITUENA.

**Bertan jasotako berrikuntzen artean, eskola-segregazioari aurre egiteko neurri batzuk jasotzen dira. Ikusteke dago, edozein kasutan, benetako eragina izan duten ikasturte honetan eta izango duten aurrerantzean ere.**

- » Margen zuzentzailea ezartzen da eta ikastetxe kontzertatuek bi plaza erretserbatu behar dituzte, derrigorrez, matrikulazio garaira bitartean, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat.
- » Ikastetxe guztiak ISEC indizearen arabera neurtuko dira. Horren ondorioz, behar bereziak dituzten ikasle gehien metatzen dituzten ikastetxeetan ratioak jaisteko eta bestelako baliabideak eskuratzeko aukera izanen da. Oraindik ikusteke dago neurri hauek zenbat ikastetxetan ezartzen diren, nola, eta zenbaterainoko eragina daukaten.

**Gobernantza ereduari begira, atzerakada nabarmena** dago ikuspegi komunitarioan eta tokiko eragileek ikasleen eskolaratzean izan beharreko funtzioan. Hezkuntza Departamentuaren baitako joera zentralizatzailea areagotu da. Horren erakusle da Tokiko Eskolaratze Batzordeek eta langileen ordezkariak pisua galdu dutela. Batzorde hauen funtzioa, nagusiki, epez kanpoko matrikula ordenatzea izaten da. 2011tik Iruñea eta Iruñerrian eratutakoa desagertu egin

da, eta eskolaratzea zuzenean Hezkuntza Departamentuak kudeatzen du. Tafallan, Tuteran eta Lizarran ere baziren halako batzordeak. Horiek mantendu egiten dira, baina udalek eta langileen ordezkariak pisua galtzen dute batzorde horien ordezkartzan, “efizientzia eta eraginkortasuna” lortzeko. Udalen aldetik Zerbitzu Sozialen ordekarri tekniko batak besterik ez du parte hartuko.

## Premia bereziak dituzten ikasleak

- » **Atzerrian jaiotako ikasleen banaketa oso desorekatua** da. 2019-2020 ikasturtean, ikasle guztien artean %65,5-a titulartasun publikoko ikastetxeetan zegoen matrikulatuta, eta %33 sare pribatu-kontzertatuan. Etorकिनen artean, ordea, aldea askoz handiagoa da, %86,1 daude publikoan eta %13,1 kontzertatuan. Hizkuntzen ereduari dagokionez, gehientsuenak G eremuan daude. Ez dago, administrazioaren aldetik, inolako lanketa berezirik etorri berriei euskaraz ikasteko eskubidea ezagutarazteko eta horretarako erraztasunak emateko.
- » **Hezkuntza premia bereziak** (iraunkorrek zein iragankorrek) etengabeko hazkundean dira. 2000. Urtean, ikasle guztien %0,24 ziren. 2020an, %3,09. Ereduka, %86,6 G edo A eremuan daude eta %13,4 D edo B ereduatan. %76,1 ikastetxe publikoetan daude matrikulatuta. Datuok ez daude eskura, baina interesgarria litzateke PAI/ez PAI irizpidearen arabera alderaketa egitea.
- » **Inklusioa.** Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen %89,6 ohiko ikastetxeetan daude eskolatuta. Estatuan, Galiziarekin batera, erkidegorik inklusiboena dela esan liteke. Halere, badago zer hobetu desgaitasun intelektuala edo jarreraren trastorno orokorrek dituzten ikasleen kasuan, Estatuko batz bestekotik behera eta EAetik 7 puntu beherago baitago Nafarroa.
- » **Irakaskuntza-hizkuntzen ezjakintasun larria** duten ikasleak, irakaskuntzaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera. Guztira 1.836 ikasle dira, 1.670 publikoan (91%) eta 166 pribatuan.
- » **Epez kanpoko matrikula.** 2020-2021 ikasturtean, guztira, 544 ikasle izan ziren ohiko epeak pasatakoan matrikulatu zirenak. Publikoan 513 (%94,3) eta pribatuan 31. Ikusteke dago Ikasleen Onarpenerako Foru Dekretuaren eragina zein izan den.
- » **Gizarte eta hezkuntza egoera desabantailatsuan** dauden ikasleen banaketa ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2019-2020 ikasturtean, guztira, 8.156 ikasle izan ziren. Publikoan 6.875 (%84,29) zegoen matrikulatuta eta ikastetxe itunduetan 1.281. Aurretik esan bezala, sakonki aztertzeke dago, edozein kasutan, 2021-22 ikasturterako ikasleen onarpenerako irizpide eta araudi berria onartu zenetik norainoko aurrerapena eman den. Momentuz, badirudi urratsen bat eman dela eta 2022-23 ikasturterako ere ratio jaitziera egingen dela ISEC indizearen arabera, hainbat ikastetxetan La ratio baja de 25 a 22 en los 94 centros con más alumnado con necesidades - Diario de Noticias de Navarra
- » **Adimen gaitasun handiko ikasleen banaketan**, ordea, joera oso desberdina da. Parekoagoa da proportzioa sare publiko eta itunduan, ikastetxe itunduek ikasle gehiago biltzen dituztela. 2020-21 ikasturtean sare itunduan adimen gaitasun altua daukaten 484 ikasle zegoen matrikulatuta (%52,66) eta publikoan 435.

## Sexu-segregazioa eta kristau eskolak

Guztira, 38 dira Nafarroan erlijioso-kongregazioen ikastetxeak eta kristau inspirazioko ikastetxe pribatuak. Guztiak daude Nafarroako Gobernuarekin itunduta eta, beraz, finantzazio publikoa jasotzen dute.

**Horietatik, Opus Deiko bi zentro pribatuk egiten dute sexuaren arabera segregazioa**, Irabia-Izagak eta Redin-Miravallesek. Horietako bakoitzak bi ikastetxe dauzka, neskentzako eta mutilentzako. Guztira, 4.200 ikasle biltzen dituzte lau ikastetxeek eta 2021-22 ikasturtean 12,5 milioiko finantzazio publikoa jaso zuten.

2012an Nafarroako Parlamentuak foro lege bat onartu zuen (<https://www.boe.es/boe/dias/2012/11/14/pdfs/BOE-A-2012-14018.pdf>) ikastetxe hauek, sexuaren arabera segregazioa egiten jarraitzekotan finantzazio publikorik jaso ez zezaten. Baina LOMCE onartu izanak de facto lege hau ezin ezartzea ekarri zuen, bertan kontzertu hauek legezkatzat jo baitziren.

LOMLOE 2020ko abenduan onartu zen eta bertan, lehen aldiz, finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxeek hezkidetza printzipioa bete eta sexu segregaziorik ezin egitea jaso zen. Araua onartu eta berehala, 2021eko otsailean, Lehen Hezkuntzako kontzertuak hurrengo sei urterako berritzea zegokion Hezkuntza Departamentuari eta ikastetxe pribatu guztiek hartu zuten konpromisoa indarrean zegoen legedia onartzeko.

Hala ere, ikastetxe hauek ez dute estatuko legea bere horretan bete, Nafarroako 2012ko legeak derrigorrezko etapetarako ematen duen aukeraz baliatuta, sistema mistora modu progresiboan pasatzea erabaki baitzuten. Hori dela eta, 2021-22 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 1. mailan soilik utzi diote segregatzeari, eta datorren ikasturtean 2. mailan egingen dute. Hezkuntza Departamentuak ontzat eman du bide hau, eta **2026-27 ikasturtera arte ez dute Lehen Hezkuntza osoa sistema mistoan izanen**. Bigarren Hezkuntzako kontzertuak 2023an berrituko dira eta aurreikustekoa da bide progresioari helduko zaiola, eta **2027-28 ikasturtera arte itxoin beharko dela DBHko gela guztiak mistoak izan arte**.

Edozein kasutan, afera epaitegietan dago eta ikusteke dago Espainiako Auzitegi Konstituzionalak nolako ebazpena emanen duen. Hain zuzen, ikastetxe hauek bide progresiboa hartzearen arrazoia horixe da, epaitegiek esanen dutenaren arabera sistema segregatzaile itzultzeko aukera baliatzea antolaketan hainbesteko eraginik izan gabe.

## 0-3 Zikloa

Ziklo honek eta bere kudeaketak berezitasun propioak dauzka Nafarroan. Hezkuntza ziklo gisa garatzeko zailtasuna, EAE-rekin alderatuta eskolarizazio baxua, zentro mota ezberdin asko, arlo pedagogikoan eta hezitzaileen lan baldintzen arteko ezberdintasunak, udal titulartasuna eta kudeaketa pribatua dira nagusi.

- » **Eskolarizazioa oso txikia da 0-2 adin tartean**, %27,8-koa, eta joera beheranzkoa da. EAE-n %55,9 da batzbestekoa, Estatuan %37,5 eta Europar Batasunean %86,5. 2020-21 ikasturtean 6.553 plaza eskaini ziren eta 4.149 bete ziren, plazen %36,7 bete gabe utziz.
- » **2 urteko eskolarizazioari dagokionez**, 2019-20 ikasturtean, Nafarroan %46,6-a dago eskolatua, Estatuan %63,1 eta EAEn %93,1. Hezkuntza Departamentuak eskola publikoetan 2 urteko gelak zabaltzeko asmoa agertu du.

» Zikloaren bestelako ezaugarriak:

- **Zortzi zentro mota** ditugu: Finantzazio publikoa jasotzen dutenen artean Nafar Gobernuako Eskubide Sozialetako Departamentuak kudeatzen dituen 7 haur eskola, Udal titulartasuna daukaten 94 haur eskola 28/2007 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak eta beste 8 baldintza horiek betetzen ez dituztenak; 2 urteko gelak, oso eskasak. 2017an 42 plaza besterik ez zeuden ikastetxe publikoetan; Pribatuak diren haur-eskolak edo haurtzaindegiak 52 dira eta “Casa amiga” izenburupean funtzionatzen duten zerbitzu pribatuak, 40 inguru.
- **Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen 7 haur-eskolak** Eskubide Sozialetako Departamentuak kudeatzen ditu. Oraindik ere kutsu asistentzialista dauka ziklo honen kudeaketak eta horrek izugarri zailtzen du 0-6 Haur Hezkuntzako etapa integraltzat jotzea. Ikasturte honen amaiera bitartean zazpi eskola hauek Hezkuntza Departamentuaren esku geratuko dira.
- **Udalak dira ikastetxeen eta zerbitzuaren titularrak plaza guztien %60an** eta gastuen zati bat ordaintzen laguntzen dute gurasoek, bai eta Nafarroako Gobernuak ere, dagokion hitzarmena sinatu eta gero. 94 zentro horiek 77 udalerritan daude, 6.553 plaza eskaintzen dituzte eta 4.149 neska-mutil hartzen dituzte. Horietatik 40-k, %42,5, 3 unitate edo gutxiago dituzte. 29 dira sei unitate edo gehiago dituztenak (zentroen %30,8).
- **Kudeaketa pribatua da nagusi.** Udalek lizitatu egiten dute zerbitzua, kasu gehienetan. Oro har, ez dute baliabiderik edo baldintza ekonomiko egokirik zerbitzua zuzenean eskaintzeko. Nafar Gobernuak Udalei moduluen arabera finantzazioa ematen die eta azken hamarkadan ez da ia igoerarik izan.
- **Langileen lan baldintzak oso eskasak dira eta eskola batetik bestera alde handia izaten da.** Nafarroan ez dago hitzarmen propiorik eta kasu gehienetan estatu mailako hitzarmenaren baitako baldintzak dituzte. Udal bakoitzaren esku dago, daukan borondate edo ahalmen ekonomikoaren baitan, soldatak osagarritzea, antzinate tasuna ordaintzea edo errefortzuak jartzea.
- **Ratioak** 28/2007 Foru Dekretuan zehaztuta daude eta Europak ezarritakotik urrun daude. Halere, laguntzako hezitzaile gehiago izan dira azken urteotan (%28 gehiago 2015-2019 bitartean) eta pandemiako bi ikasturteetan errefortzuko hezitzaileak ordaindu ditu Hezkuntza Departamentuak unitate 1 edo 2 dituzten eskoletan.
- **Arlo pedagogikoa.** Ez da egon ikuspegi pedagogiko komunik. 2022-23 ikasturtean indarrean sartuko den curriculum onartu berri du Hezkuntza Departamentuak, eta lehen aldiz Haur Hezkuntzako etapa osoa biltzen du.
- **Instituzioen arteko elkarlana.** Momentu honetan lantalde bat ari da lanean Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren baitan, Nafarroako Gobernuarekin batera finantzazio modua eta kudeaketa eredua zehazteko, elkarlana bideratzeko edo, izatekotan, organismo bateratu bat osatzeko lanean dabilena.
- **Tarifak.** Azken urteotan urratsak egin dira doakotasunerako bidean baina bide luzea dago oraindik egiteke.
  - 2017-18 ikasturtean %12 jaitsi ziren tarifak batz bestea, tramoen arabera progresibotasuna bultzatuz eta baliabide gutxiago zein guraso bakarreko familiei jaitsiera handiagoa eginez.
  - Legegintzaldi honetan jaitsiera nabarmenagoa izan da 2019-20 ikasturtean aurrekoarekiko %15 merkeago izan ziren tramo guztiak. 2022-2023 ikasturterako jaitsiera lineal orokorra egiteaz gain doakoa izanen da zerbitzua per capita errenta 6.650 eurotik behera edo guraso bakarreko familien kasuan, 9.300 eurotik behera.



## Ikastetxeen banaketa udalerrietan

Nafarroa Garaiko lurralde antolaketaz eta tokiko administrazioaren dispersioaz eman ditugun datuek badute isla hezkuntza zerbitzuetan:

- » **109 herritan HH eta LH-ko eskola bakarra dago** (ikastetxea duten herrien %80,14)
- » **Soilik 27 herri eta hiritan dago ikastetxe bat baino gehiago** (%19,85):
  - 13 herritan, bi eskola: Orkoién, Lesaka, Mendabia, Irunberri, Arbizu, Berriozar, Etxarri-Aranatz, Zizur Txikia, Elizondo, Uharte, Lesaka, Gares eta Zangoza.
  - 8 herritan, hiru eskola: Altsasu, Sarriguren, Lodosa, Bera, Mutiloa, Tafalla, Viana eta Zizur Nagusia.
  - 2 herritan, lau eskola: Barañain eta Atarrabia.
  - Lizarran, bost eskola.
  - 2 herritan, sei eskola: Burlata eta Tuterá-Fontellas.
  - Iruñean berrogeita hiru eskola.

## Landa eremuko eskolak

Landa-eskolatzat hartzen dira landa-eremuetan kokatuta dauden Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, ikasmaila bat baino gehiago integratzen dituzten unitateak biltzen dituztenak, hau da, 9 unitate baino gutxiago dituztenak. Landa eskolak ekarpen garrantzitsua egiten du dagoen udalerrian ikuspegi komunitariotik eta baita hezkuntza sistemari berari ere, berrikuntza pedagogiko eta metodologikoen ikuspegitik.

**Landa eremuko eskolak 80 dira Nafarroan eta hamabi landa-eremutan banatuta daude**, 86/2018 Foru Aginduak, Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunak, araututa. Bertan, eskola hauetan izan daitezkeen gehieneko **ratio bereziak** zehazten dira.

**Landa Eskolak saretuta daude**. 329/2019 EBAZPENA, ekainaren 7koak, Nafarroako Foru Komunitateko Landa Eskolen Sarea sortzeko oinarriak onartu zituen. Helburuak honakoak ziren: landa-eskolen artean koordinazio-sareak diseinatzea; eskualdeetan dauden hezkuntza-, ingurumen-, kultura- eta gizarte-baliabideak partekatzea; jarduera horiek beren hezkuntza-proposamenetan integratzea; eskualde-baliabideak aprobetxatzea; ikasleen sozializazioa sustatzea; tokiko erakundeekin lankidetzabideak ezartzea.

**Irakasleen kontratazioan**, betetzeko zailtzat jotzen diren lanpostuetan baldintza bereziak ezarriak dira 37/2020 FORU AGINDUA, APirilAREN 8KOa-ren bidez, 3 urterako kontratuak bermatzea, adibidez.

Landa-eskolen figurarekin batera, **36 herriek eskola-konzentrazioak** biltzen dituzte. Alegia, beste herrietatik jasotzen dituzte ikasleak. Ikastetxe hauetan 3.060 ikasle zeuden 2020an. Gastu horiek konpentsatzeko Nafar Gobernuak diru-laguntzak ematen dizkie udalei ikastetxeen mantenuan laguntzeko, baina moduluak eskasak dira.

## Lanbide heziketa

Nafarroako Lanbide Heziketako 1. Plan Estrategikoa iragan legegintzaldian egin zen, 2017-2020 tartea hartu zuen. Bigarrena egiteke dago, beraz. Lehen planean ezarritako helburu nagusiei erreparatuta, aurrera egin da hainbat arlotan:

- » 2020-21 ikasturtean 12.500 ikasle zeuden matrikulatuta modalitatearen batean. 10 urteotan bikoiztu egin da matrikulatutako ikasleen kopurua.
- » 1800 ikasle Lanbide Heziketa dualean
- » 139 titulazio ezberdin.
- » Lan munduan txertatzea, %86koa.

Edozein kasutan, urruti gaude ezarritako beste helburu batzuk betetzetik:

- » **Genero arrakala** oraindik oso handia da. Ikasleen %38 da emakumezkoa, planean jarritako helburua %45era heletzea izan arren. Halere, hiru urteetan 6 puntuko igoera izan da.
- » Urruti gaude, era berean, Europako Batasunak ezarritako helburuetatik **matrikulazio tasari dagokionez**, Europan batz-bestekoa %48a baita eta Nafarroan %39.
- » **Euskarazko eskaintzak ez dio eskaerari eta hizkuntza eskubideak bermatzeari erantzuten**. Hezkuntza Departamentuaren webgunean, Lanbide Heziketako euskarazko eskaintzaren sarreran esaten da: “Hezkuntza Departamentuak euskararen presentzia hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketan egokitzeko bideari ekin dio. Lanbide Heziketan euskararen presentzia normalizatua finkatu nahi da. Europako gomendioak betez eta 2017-2020 Lanbide Heziketako Plan Estrategikoarekin bat etorritz”. Baina errealitatea da ia eskaintza guztia Beran eta Baztanen metatuta dagoela. Altsasun eta Iruñerrian ziklo gutxi batzuk.

Guztira, 2020-21 ikasturtean, hauxe zen euskarazko eskaintzaren pisua:

- Oinarrizko LHan. 47 ziklo gazteleraz eta euskaraz 3 (%6,38)
  - Gradu Ertainean 102 gazteleraz eta euskaraz 13, berez 10 titulazio (%12,74)
  - Goi Mailako Graduetan. 94 gazteleraz, 4 gazteleraz eta ingelesa eta euskaraz 7, berez, 6 titulazio (%6,66)
- » Euskarazko eskaintza urria izatearekin batera, **ingelesezko gradu elebidunak ezartzen hasi dira eta joera hori azkartzeko asmoa** dauka Hezkuntza Departamentuak datozen urteetan. Esan beharra dago ez dagoela baldintza objektiborik ikasleen gaitasunei erreparatuta, ez akreditatutako irakasle nahikorik. Berriro ere, baliabideak atzerriko hizkuntzei begira jartzen ari dira, ez euskara sustatzeari edo euskaraz gaitzeari lotuta.
  - » **Lurralde kohesioari eta tokiko garapenari lotutako** planifikazio oso bat gauzatzea falta da. 2017-2020 Plan Estrategikoak hori zuen ardatzetako bat, baina oraindik gauzatzeko dago Baztan-Bidasoako zentro integratua edo Erriberan industriari lotutako zentro berria.

## Hezkuntza kalitatea. Baliabideak

### Hezkuntza arloaren finantzazioa

Hauxe da azken urteotan Nafarroako Aurrekontu Orokorretan izandako bilakaera:

2009	586 milioi	Aurrekontu osoaren % 13,49
2012	492 milioi	Aurrekontu osoaren % 13,64
2017	571 milioi	Aurrekontu osoaren % 14,41
2018	586 milioi	Aurrekontu osoaren % 14,41
2019	636 milioi	Aurrekontu osoaren % 14,54
2020	692 milioi	Aurrekontu osoaren % 15,17
2021	739 milioi	Aurrekontu osoaren % 16,02
2022	793 milioi	Aurrekontu osoaren % 16,63

- » **2012 eta 2019 artean, hezkuntza inbertsioak hobera egin du** autonomia erkidego guztietan. Handitze handiena Balearretan izan da (% 26,52), eta jarraian Nafarroan (% 18,18). EAEn %6,21.
- » **Hezkuntzako inbertsioa Barne Produktu Gordinarekiko.** Europako batz-bestekoa %4,7 da, eta herrialde aurretuenek %6tik gora inbertitzen dute. Suediak %6,9, Danimarkak %6,3 edo Belgikak %6,2. Espainiar Estatua %4an dago. Nafarroan, beherago. %3,7an geunden 2019an, %3,9an 2021ean eta %4,26an 2022an, Hezkuntza Departamentuak emandako datuen arabera.
- » **Gastuaren banaketaren joerari erreparatuta, batzuk azpimarra daitezke:**
  - Jaitsi diren inbertsioak:
    - Hezkuntza alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza %0,72 zen 2009an, %0,35 2020an
    - Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoa %6,47 eta 2020an %3,17
  - Hazi direnak
    - Berariazko arreta %2,78 zen 2009an eta %5,04 2020an. Itunpekoan egonkor mantendu da. 2009an %7,42 eta %7,3 2020an.
    - Teknologia berrietako inbertsioa 2009an %0,32 zen eta %1,34ra hazi da 2020an
    - 0-3 ziklora bideratutako inbertsioan, 2012ko jaitsieraren ondoren, goranzko joera izan da aldi honetan. 2020an, 2009an baino % 16 handiagoa izan da. Udalekin 2020. urterako egindako hitzarmenera bideratutako gastua 11.292,54 milioi eurokoa izan da, oinarri urteko gastua baino 2,3 milioi euro handiagoa.
- » **2009-2020 aldian, itunpeko irakaskuntza pribatuaren sarera bideratutako gastua Hezkuntza Departamentuaren guztizko gastuaren % 21 eta % 24 artekoa izan da.** Beheranzko joera izan da azken urteotan.
- » 2018ko datuak erreferentzia hartuta, ikasleko gastua, osotara, 6.173 eurokoa izan da, Estatuko batz-bestekoa baino dezente altuagoa (5.163 euro, Estatuan). Irakaskuntza publikoan, 7.622 eurokoa izan da. Estatuko batz-bestekoarekiko handiagoa, 5.968 eurokoa baita batz bestekoa, baina EAEkoarekiko urrun, bertan 9.415ekoa izan baitzen, ia %20 handiagoa.

## Giza baliabideak

- » **Irakasle kopurua** hazi egin da azken hamarkadan. 2009-10 ikasturtean 12.815 ziren, horietatik 10.107 erregimen orokorrean. 2018-19 ikasturtean, aldiz, 14.745 irakasle ari ziren Unibertsitatez gaindiko Nafarroako Hezkuntza Sistema osoan, horietatik 11.024 erregimen orokorreko ikasketetan.
- » **Adinari dagokionez**, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisuen artean belaunaldi aldaketa somatzen hasia da. 50-59 urte tartekoak %23,5 dira, baina 30 urtetik beherakoak %20. Plantilla zahartuagoa daukagu Bigarren Hezkuntzan. 30 urtetik beherakoak %7,3 besterik ez dira, 40-49 tartekoak %32,9 dira eta 50-59 tartekoak %31.
- » **Interinitatea** ikastetxe publikoetan. Comptos Ganberak 2020ko Nafarroako Kontu Orokoretako fiskalizazio txostenean azaltzen duenaren arabera, Hezkuntza Departamentuari atxikitutako langileen behin-behinekotasun tasa 7 puntutan hazi da azken bi urteotan. Hain zuzen ere, %47-koa zen 2018an eta %54-ra iritsi da 2020an. **Irakasleen kopuruaren erdia baino gehiago, beraz, interinoa da.** Interinitate tasa handitzen duen faktoreetako bat PAI programan ari diren irakasleen lanpostuak ezin egonkortzea da, atzerriko hizkuntzaren ezagutza ezin delako derri gorrez eskatu, Estatuko araudiaren arabera. Hala ere, Nafarroako Gobernuak iragarri du Foru Lege baten bidez maisu-maistren kidego berri bat sortzeko asmoa, PAIko irakasleen lanpostuak egonkortu ahal izateko.

Interinitate tasa handiak dakartzan **ondorioak** ezagunak dira: ezegonkortasuna eta irakasleen mugikortasuna, ikastetxeetako hezkuntza proiektuak kontsolidatzeko zailtasuna eta ikasleen behar bereziei jarraipena egiteko baldintzarik ez. Landa eremuan zer eragin daukan aztertu beharko litzateke.

Legegintzaldi honetan, 2020an, 715 plazako lan eskaintza partzial bat onartu zen, eta horietatik %46 hezkuntzakoak izan ziren, 332 plaza guztira. Baina egun oraindik ez dago deialdirik. Europak agindutako mailara iristeko estabilizazio prozesuak nola egingen diren ere zehazteke dago.

- » **Itunpeko ikastetxeetako irakasleen guztizko kopuruaren bilakaerak** jaitsiera txiki bat izan du 2019-2020 ikasturtean (2.809 pertsona), aurreko hiru ikasturteekin alderatuta (2839, 2.875 eta 2.850 pertsona). 2020-2021 ikasturtean zertxobait handitu da, 2.818koa izan arte. COVID-19aren eraginez egindako kontratuak direla pentsatzekoa da.
- » **Ratioak.** 2010-2020 aldian behera egin du unitate bakoitzeko ikasle kopuruak Haur Hezkuntzako 2. zikloan, Lehen Hezkuntzan, Oinarrizko LHn eta Hezkuntza Berezian; eta gora, berriz, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Erdi mailako Lanbide Heziketan eta Goi Mailako Lanbide Heziketan sektore publikoan. Itunpeko ikastetxeetan, behera egin dute Haur Hezkuntzako 2. zikloan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Erdi mailako Lanbide Heziketan, Goi mailako Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian; gora, berriz, Batxilergoan eta Oinarrizko LHn.

	Sare publikoan	Ikastetxe itunduetan
HH 2. zikloan	17,5	22,1
LH	18	24,2
DBH	23,3	27,5
BATX	26,2	29,7

EAerekiko datuekin alderatuta, DBHn eta Batxilergoan ratioak altuxeagoak dira.

- » Azkeneko 8 ikasturteetan egonkor mantendu da irakasle-ikasleen batz besteko proportzioa 10-11 ikasle bitartean, EAEn bezalatsu eta Estatuko batz bestekotik beheraxeago.

## Hezkuntza programa bereziak

### Hezkidetzeta. Skolae programa

2017-2018 ikasturtean hasi zen 16 ikastetxetan esperientzia pilotu gisa, eta lau urte hauetan ikastetxe gehiagotara zabaldu da. Egun 240 ikastetxe publiko zein kontzertatutan dago ezarria. Eskola-ibilbide osorako egokitutako programa da, 0-3 urtetik 18 urtera bitartean. Helburu, eduki eta zeharkako ekintzez osatua dago, ikuspegi feministaz hezkidetzeta modu transbersalean landu eta curriculumean zein ikastetxeen dinamikan eta hezkuntza proiektuan txertatzeko. Horretarako formazio espezifikoak jasotzen dute ikastetxeetako arduradunek, zuzendaritzak eta klaustroak.

Erresistentzia handia sortu zuen eremu jakin batzuetan. Eskuineko eremu politiko eta sozialean, hainbat ikastetxe kontzertatutan, erlijiosoen artean bereziki, programa ezin zela erabiltzera behartu argudiatuta. Auzitegietan izandako ibilbidea dela eta, 2021ean Skolae Hezkidetzeta Plan orokorrean txertatu da, Dekretu gisa onartuta. Hortaz, datozen urteotan ikastetxe publiko zein kontzertatu guztietan ezarriko da.

### Inklusioa. Proeducar-Hezigarri programa

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzendutako programa da. Programaren helburu orokorra da eskola-porrotaren eta eskola-uzte goiztiarrari aurre egitea eta ikasle guztien hezkuntza-klusioa eta eskola-arrakasta bultzatzea, hobekuntza-proiektu bat ezarri eta gauzatu. Aniztasunari erantzutea dauka helburu, eskolaz berantiarra egiten duten ikasleei eta/edo hezkuntza-laguntzaren berariazko premia dutenei begira planteatutako programa da, konpentsazio-mekanismo gisa eta ikastetxearen hobekuntza orokorra bultzatzeko.

Programa honetan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzarako kontratu-programa sinatzen du. Kontratu horretan, ikastetxeak ikasleen inklusioa eta eskola-arrakasta hobetzeko neurriak ezartzeko konpromisoa hartzen du, eta administrazioak konpromisoa hartzen du prozesu horrekin batera aholkularitza eta prestakuntza emateko, eta, aldi berean, proiektua garatzeko behar diren baliabideak emateko.

2019-20 ikasturtean abiatu zen programa eta 2021-22 ikasturtean Nafarroa osoko 85 ikastetxe publiko ari dira programan parte hartzen. 7 saretan antolatzen dira. Finantzazioa kolokan izan da, Europako Funts Sozialaren bultzadaz sortu baitzen.

### Bizikidetzeta. Laguntza programa. Ikastoletan, Kiva

Laguntza Programa bullying eta ziber-jazarpenaren prebentzioa sustatzeko eta esku-hartzeko tresna da. Ikastetxeek programa hori garatu ahal izateko eskura daukate prestakuntza, laguntza eta material jakin batzuk.

Honako programa 2016an jarri zen martxan eta 2020-21 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako 12 ikastetxe publikoetan modu pilotuan ezarri zen. 2021-22 ikasturtean HH eta LHko 21 ikastetxeetan ari dira eta Bigarren Hezkuntzan 13 ikastetxetan hasi da pilotajea.

Nafarroako Ikastolen Elkartek KIVA programa jarri zuen abian 2016an, Finlandiako Unibertsitatearekin egindako akordio baten bidez. Programaren helburua eskola-jazarpenari aurre hartzea eta eragitea da. Horretarako, irakasleek formazioa jaso dute eta KivA taldeak eratu dira ikastola guztietan. 2019az geroztik ikastoletako gela guztietan ezarri da eta oso balorazio positiboa egiten dute ikastoletako bizikidetzaren ikuspegitik.

## Digitalizazioa

Pandemiak eragindako konfinamenduak arlo honetan gure sistemak dituen beharrak agerian utzi dizkigu. Alde batetik, **arrakala digitala**, Nafarroako Hezkuntza sarean 5.000 ikasle inguruk baliabide tekniko digitalik ez baitzuten konfinamenduan. Eta bestetik, tresna digitalik izan arren, **arlotan metodologikoa ditugun gabeziak** ere agerian geratu ziren.

2017-18 ikasturtean IKASNOVA programa jarri zen abian Nafarroako zenbait ikastetxe publikotan. Eta, une honetan, teknologia Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko gela guztietan dago, konektagarritasuna eta WiFi sareak hobetzeak ere aukera eman baitu. 2020-21 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzan hasi zen.

Ikasgelan teknologia sartzeko beharra egitea da, eta ikasleen gaitasun digitala garatzea funtsezko alderdia da, teknologiaz egiten den erabilera aberasgarria izan dadin. **Kontua ez da baliabide batzuen ordez beste batzuk erabiltzea; baizik eta irakatsi eta ikasteko prozesuen ikusmoldea aldatzea.**

Edozein kasutan, hezkuntzan digitalizazioa bultzatzeak bestelako hausnarketa eta eztabaida batzuk ere ekarri dizkigu: **software librea erabiltzeko beharra, multinazionalekiko mendekotasunetik at, segurtasuna eta intimitatea bermatzekoa, baliabide teknologikoen erabilera egokia sustatzekoa...**

## Emaitzak

### Ikasleen progresioa

- » Lehen Hezkuntzako ikasleen igarotzearen ehunekoak % 96,24 da LHko 2. mailan, eta % 98tik gorakoa LHko 4. eta LHko 6. mailetan.
- » LHtik DBHra igarotzeari buruzko datuen arabera, ikasleen % 17,5 inguru ikasgairaren bat gainditu gabe dutela igo dira bigarren hezkuntzara. Sexuaren arabera, handiagoa da mailaz igo diren emakumeen ehunekoak gizonena baino (% 98,64 emakumeen artean, eta % 97,1 gizonen artean).
- » DBHko lau mailetan, igarotze ehunekoak oso antzekoak izan dira 2020-2021 ikasturtean, % 90 eta % 95 artekoak, eta DBHko 1.ari dagokion datua izan da altuena. **Sarean eta hizkuntza ereduaren arabera igarotzeari dagokionez, G/A ereduak ikastetxe publikoen emaitzak apalagoak dira maila guztietan.** Emakumeek gizonek baino emaitza hobekak lortu dituzte etapako maila guztietan.
- » **Pobrezia eta eskola uzte goiztiarra estuki lotuta** dago Nafarroan, beste erkidego batzuetan baino askoz gehiago. EA Erek ino alderatuta eskola uzte handixeagoa gertatzen da.

### Kanpo-ebaluazioak

- » Azken urteotako kanpo ebaluazioetako adierazle esanguratsuena irakurtzeko ulermenaren gaitasunari dagokiona da. 2018ko PISA frogan Nafarroan ateratako emaitzak oso txarrak izan ziren irakurtzeko gaitasunean eta, oro har, joera beheranzkoa izan da azkeneko urteetan. Europako eta Estatuko batz bestekotik behera, nabarmen.
- » Konpetentzia matematiko eta zientifikoan emaitzak onak dira, oro har.

# 3. Proposamenerako oinarriak

---

## Nafarroako hezkuntza sistemaren egoeraren gakoak

### Egoeraren azterketaren ondorioak

Aurreko atalean egindako azterketak Nafarroako hezkuntza sistemaren argazki poliedrikoa eman digu, ondorio esanguratsu batzuk ateratzeko modua ematen diguna. Indarguneak badira, ahuleziak badira, eta berezitasun horietatik abiatuz, proposamena garatzeko gako nagusiak identifikatzen saiatuko gara. Egindako diagnosiari jarraiki, baieztapen batzuk egiteko moduan gaude:

1. Datozen urteetan unibertsitatez gaindiko **hezkuntza sistemak ikasleak galduko ditu**. Hori dela eta, ezinbestekoa izango da datorren hamarkad(et)an fenomeno honek Nafarroaren luze-zabalean ikasleen galerak izango duen eragina aurreikustea eta baliabideak planifikatzea, matrikulazioaren jaitsieraren aurrean neurriak hartu eta ekitatea bermatze aldera.
2. Lurralde antolaketaren ikuspegitik **landa eremuaren garrantzia agerikoa** da eta bertan zerbitzu publikoak, tartean hezkuntza zerbitzuak mantendu eta indartzeko beharra izanen da despopulazioari aurre egiteko eta tokiko garapena sustatzeko.
3. Tokiko administrazioa oso dispertsoa da. **Udal asko dago eta gehienak oso txikiak dira, baliabide gutxi dituztenak**. Udalek hezkuntza arloan gehiago inplikatu ahal izateko baliabide gehigarriak beharko lituzkete. Horrek eskatzen du tokiko maparen garapenean eskualdeen eskumenetan eta finantzazioan hezkuntzari dagokion arloa oso kontuan hartzea.
4. **Landa-eskolen kopurua handia da** eta abiatutako saretzeak berrikuntza pedagogikorako eta hezkuntza komunitateak trinkotzeko aukerak zabaltzen ditu.
5. **Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioak, Nafarroa gehienez euskarak estatus ofizialik ez izatea eta hezkuntza-ereduen banaketak eragin handia izan du eta badu euskararen ezagutzan eta erabileran**. Hizkuntza eskubideetan arlo guztietan urratsak egin eta euskara Nafarroa osoan ofizialki aitortuko duen Euskararen Lege berri baten alde lanean jarraitzea ezinbestekoa da.
6. **G eredia da nagusi eta ikasleen %62ak ez dauka inolako harremanik euskararekin bere hezkuntza ibilbide osoan. D ereduak ez du aurrera egin azken hamarkadan eta A ereduak beheranzko joera dauka, G ereduaren**

alde. Egungo ereduaren banaketak ez du inolaz ere bermatzen ikasleen gehiengoak euskaraz gaitasun minimoa ere lortzea. Ezinbesteko lehen urratsa litzateke hezkuntza sistemak ikasle guztiei euskararen gutxieneko ezagutza bermatzea derrigorrezko etapetan.

7. **Nafarroako Ikastolek ikasleen eta zonalde batzuen euskalduntzean izan duten eta daukaten izaera estrategikoa agerikoa da.** Aitortza sinbolikoaz harago, zonalde diskriminatuan bereziki ikastolek arreta berezia eskatzen dute, euskalduntzean egiten duten traxzio-lana sustatzeko.
8. **Zonalde diskriminatuko hainbat herritan ikastoletan eta D eredu publikoan izaten ari den matrikulazio joera kezkagarria ikusita, hausnarketa sakona** egin beharko litzateke tokiko, hezkuntzako eta euskalgintzako eragile guztiekin batera euskarazko irakaskuntza sustatzeko formula eraginkorren eta mapa berrantolatzearen inguruan.
9. Azken urteotan eta egun, eskola publikoetan hizkuntza-ereduak nahasteko hautua agerikoa da. Horrekin batera, D ereduak lerroak irekitzeko eta garatzeko oztupoak, 0-3an edo Lanbide Heziketan planifikaziorik eta bermerik ez... Euskarazko murgiltzea zuzpertzeko neurriak hartzea ezinbestekoa da, ikuspegi kualitatibo zein kuantitatiboan. **Akordio zabala landu beharko litzateke murgiltze duina bermatzeko eta D ereduak lerroak sortzeko oztupoak kendu eta errazte aldera, araudia aldatuz.**
10. **PAI-ren nagusitasuna eta zabalpena azkartzen ari da eta argi eta garbi, eta horrek D ereduaren zabalkundea mugatzea ekarri du.** Orain arte egindako ebaluazioen emaitzek, dituzten muga guztiekin ere, programak daukan onarpen sozialak eta ikastetxe gehienek agertzen duten jarraitzeko asmoak programaren blindajea ekar lezake aurrera begira ere. Ezinbestekoa da programa hauen eta, oro har, **hizkuntza gaitasunen ebaluazio sakon eta zintzoa egitea eta hizkuntzen trataera bateratua modu egokian planteatzea.** Eta horrekin batera, onartu den lege berria bertan behera uztea eta **hizkuntza-eredu bilakatzeko prozesua etetea.**
11. **Irakurtzeko ulermenaren gaitasunean atzera egiten ari gara.** Hizkuntza-proiektuak sendotu eta ikuspegi komunikatiboa ardatz duten metodologia berritzaileetan sakontzea ezinbestekoa da.
12. **Segregazioarako faktoreak agerikoak dira: eskola publikoan eta G ereduaren** metatzen dira nagusiki atzerrian jaiotako ikasleak, epez kanpoko matrikula egiten dutenak, hezkuntza premia bereziak dituztenak, egoera sozioekonomiko ahulean daudenak eta behar baino lehen eskola uzten dutenak. Ikasleen eskolaratze orekatuagoa lortzeko abian jarritako neurri partzialak ebaluatzea ezinbestekoa da, eta planteamendu integrala egin publiko/kontzertatu sistema duala gainditu eta hizkuntza segregazio-faktore izan ez dadin. Honekin batera, PAI programaren aldagaia ere ebaluatu beharko litzateke, segregazio iturri baita hainbat eskola eta herritan.
13. **Kontzertazioa unibertsala da Nafarroan.** British eskola batzuk edo Lanbide Heziketako proiektu jakin batzuk izan ezik, gainontzeko ikastetxe guztiak itunpekoak dira, kristauak edo sexu segregazioa egiten duten Opus Deikoak barne. Hezkuntza sistemak bermatu beharko litzatekeen laiotasun eta hezkidetzaren printzipioak ez dira kontuan hartzen, beraz, ikastetxe pribatuekin itunak egiterakoan. Kontzertazio unibertsala eten egin beharko litzateke.
14. **Haur Hezkuntzako 1. zikloaren ezaugarri nagusia, EA Erekiko aldean, daukagun eskolarizazio baxua da. Horrez gain, agerian daude hezkuntza ziklo gisa garatzeko zailtasuna, inolako ikuspegi komunik ez delako izan arlo pedagogikoan, bete beharreko baldintza fisikoetan edo kudeaketan.** Zentro mota ezberdin asko dago eta udal titulartasuna dutenak nagusitzen badira ere, kudeaketa pribatua da nagusi. Hezitzaileen lan baldintzen artean izugarritzko aldea dago eskolatik eskolara. Urratsak egin dira azken urteotan errenta baxuko familiei doakotasuna bermatzeko, baina baliabide gehiago dituzten udalek aukera handiagoa dute horretarako. Egoera honen aurrean eta udalekin elkarlanean, bide-orri zehatza adostu behar da udalek finantziario duina izan dezaten moduluak gaurkotzeko, langileen lan baldintzak hobetu eta homogeneizatzeko, kudeaketa publiko-komunitarioa sustatzeko, fa-



milien hizkuntza-hautua errespetatzeko, gehienezko ratioak jaisteko eta epemuga jakin batean zikloa doakoa izan dadin. Eskolarizazio baxuari aurre egiteko neurriak hartzea ezinbestekoa da, baina konponbidea ez da 2 urteko gelak eskoletan irekitzearen planteamendua. Proposamen integrala egin behar da.

15. **Lanbide Heziketan urratsak egin behar dira** matrikulazioa areagotzeko, genero arrakalari aurre egiteko, euskarazko eskaintza zabaltzeko eta tokiko garapenari lotutako eskaintza egiteko.
16. **Aurrekontuetan aurrera egin den arren, urruti gaude BPG-aren %5 Hezkuntzara bideratzetik** (are urrunago UNESCOk gomendatzen duen edo herrialde aurreratuenek bideratzen duten %6tik) eta EAEn ikasleko egiten den gastutik. Inbertsioan aurrera egiten jarraitzea ezinbestekoa da eta COVID garaian egindako inbertsio gehigarria kontsolidatzea (Haur Hezkuntzako 1. zikloan errefortzuko hezitzaileen kontratazioa eta HHko 2. Zikloan hogeiki kasleren ratioa ezartzea, esaterako).
17. Azken hamarkadan baliabide gehiago esleitu dira hainbat arlotan baina **irakasleen etengabeko prestakuntza eta eraikuntza, ekipamendu edo material didaktikoetan finantzazioa** erdira murriztu da. Ongi definitu behar dira lehentasunak.
18. **Irakaskuntza publikoan interinitate tasa jasangaitza** da eta, horrez gain, plantilla zaharkitua dago, Bigarren Hezkuntzan batik bat. Ezinbestekoa da enplegua egonkortzeko behar diren neurriak hartzea, lan deialdi publikoen planifikazio egokia eginez. Lehentasunezko neurria da **hezkuntza proiektuak egonkortzeko eta hezkuntza kalitatea bermatzeko**.
19. Berrikuntza pedagogikoaren ikuspegitik aurrera egin da azken urteetan hezkidetzan, inklusioan eta bizikidetzan. **Ikastetxeen autonomiatik abiatuz, halako programak ikastetxe guztietan ezartzeko bidea** jorratu beharko litzateke.
20. **Digitalizazioaren erronkari egoki erantzuteko bide luzea** daukagu. Formazioan eta metodologia berritzaileetan sakondu eta software librea sustatzea ezinbestekoa da.

## Bestelako faktoreak

Lehenik eta behin, Nafarroako Foru Komunitateko egoera politiko eta soziala oso kontuan hartzekoa da hezkuntza arlorako proposamen estrategikoa egokitu eta garatzeko, arlo honetan topatzen baititugu ahulgune esanguratsuak.

1. Agerikoa da **hezkuntza eta hizkuntza politika konfrontaziorako esparru** direla Nafarroan. Horren erakusle dira parlamentuko eztabaidak, kale mobilizazioak, etengabe errepikatzen diren “diskriminazioa” edo “inposizioa”ren mantrak. Urte luzez egindako politikek eta ideia horiek izan dute eta badute sarbidea jendartean.
2. Ildo horretatik, **arlo politiko zein sindikalean egun ditugun indar-korrelazioek** zaildu egiten dute termino estrategikoetan adostasunak bildu eta jauzi kualitatiboak ematea, esaterako, euskalduntzeari eta euskal curriculumak garatzeari dagokionez.

Horren erakusle dira, esate baterako, Euskararen Legea aldatzeko saiakerak 2015-2019 “aldaketaren” legegintzaldian ere porrot egin izana; EH Bildu ez beste talde parlamentario guztien arteko adostasuna eskola publikoetan hizkuntza ereduak nahasteko, murgiltzea egoki garatzea zailduz; gehiengo politiko zabalaren adostasuna G ereduak indarrean jarrai dezan eta ikasle guztiei euskararekiko gutxieneko harremana ez bermatzeko.

Euskal curriculuma garatzeko zailtasunak agerikoak dira, titulartasun publikoa daukaten ikastetxeetan bereziki. Eskola-materialetan zein testu-liburuetan Euskal Herriko mapen kontrako jazarpen politikoa etengabekoa izan da urte luzez, doakotasun-programatik finantzazio publikoa kentzeraino.

3. **Madrilekiko ikuspegi zentralizatzailea** gailentzen da Nafarroan. Madrilekiko mendekotasuna agerikoa da eta geure errealitateari eta beharrei bertatik erantzuteko borondaterik eza. Madrildik inposatzen diren irizpideak eta curriculuma bere horretan jaso eta men egiten zaie. Ildo beretik, Hezkuntza Lege propioa egiteko beharrik ez du ikusten gehiengo politiko zabalak, eta arlo sozial zein sindikalean ere ez dirudi halako egitasmorik bultzatzea lehen-tasuna denik.

Are gehiago, Eskola Kontseiluan lantzen ari den zirriborroak lege propioa garatzeko aukera jasotzen duen arren, Hezkuntza Departamentuak ez dio proposamenari bide emateko inolako asmorik agertu.

## Erronkak. Proposamen zehatza egiteko oinarriak

Geure sistema agortuta dago zentzu askotan eta jauzi bat behar da hezkuntza planifikazioan, ekitatean eta kalitatean aurrera egiteko. Ikasleak eta beren beharrak erdigunean jartzea ezinbestekoa da.

Aurreko ataletan ikusi bezala, Nafarroa Garaian geure hezkuntza-sistemak eta egoera sozial eta politikoak dituen berezitasunak aintzat hartuta eta oinarrizko proposamen estrategikoaren bidean, lau erronka nagusiri aurre egin beharko genioke. Oinarriak honakoak lirateke:

### 1. Hezkuntza-sistema, kohesio sozialaren eta komunitatearen mesedetan

Kontzertazio unibertsala eten eta segregazio anitzei aurre egiteko plangintza integrala eginen da.

- » 0-3 zikloa zuzpertzeko plan estrategikoa eginen da hezkuntza ziklo unibertsala eta doakoa izateko helburuz. Eskolaratze goiztiarra bultzatuko da, aukera berdintasuna sustatu eta eskola porrotaren aurrean prebentzio neurri gisa. Arautegi marko orokorra sustatuko da, arlo pedagogikoan praktika onak zabaltze aldera (Iruñeko haur-eskolen esperientzia, adibidez) bai eta lan hitzarmen propioa gauzatzeko ere.
- » Ikasleen onarpenerako araudia eta eskola mapa egokitzea ezinbestekoa da, edonolako premia bereziak dituzten ikasleen eskolaratze orekatua bermatzeko.
- » Benetako neurri efektiboak hartuko dira itunpeko ikastetxe erantzukidetasuna bermatzeko. Kuotak kobratzetik, finantzazio sistema berri batera igartzeko adostasuna landuko da, ikastetxe hauek Hezkuntza Departamentuarekin hitzartuko dituzten kontratu-programen bidez. Horietan jasoko dira bete beharreko baldintzak eta betebeharrak sozial eta komunitarioak, argi izanda kontzertazio unibertsala bertan behera geratuko litzatekeela.
- » Aniztasunaren trataera egokia egiteko formazio eta baliabide nahikoa esleituko da, irakasleen lana zein ez-irakasleen lana aintzat hartuz. Horrekin batera, eskola-uzte goiztiar handiagoa zein atzerrian jaiotako ikasle gehiago dituzten eta ISEC indize altuagoa daukaten ikastetxeek baliabide gehiago izango dituzte eta ratio txikiagoak ezarriko zaizkie.

- » Hezkuntza-sistemaren deszentralizazioa bultzatuko da eta ikuspegi komunitariorik planifikatuko da. Araudiaren berritze horretan, Udalek (edo eskualde zein mankomunitateek) zeregin erabakitzaile garrantzitsua izan behar-ko lukete 0-18 hezkuntza-planifikazioan eta matrikulazioaren kudeaketan, Hezkuntza administrazioarekin elkar-lanean. Ildo horretan, Tokiko Eskola Kontseiluak sortu eta ezaugarritu egingen dira. Herri hezitzaileak sortzeko bidean, hezkuntza formala eta ez formala planifikatzeko tresna nagusia izanen dira, eta bi eskola baino gehiago dauden herri eta hirietan eskolarizazioa kudeatzeko ardura izanen dute. Zerbitzu sozialek, osasun zerbitzuek eta bestelako arloekin koordinazioa ezinbestekoa izanen da.
- » Ikastetxeetako espazioak, edozein delarik ere euren titulartasuna, funtzio eta jarduera komunitarioetarako eskola ordutegitik kanpo erabiltzeko plangintza zehatzak egingen dira. Horrekin lotuta, hamar urtera begirako plangintza estrategikoa egingen da ikastetxe publikoen azpiegituren beharrak aztertu eta berauek egokitzeko eta duintzeko.
- » Toki entitateetan aritzeko hezkuntza teknikari kualifikatuaren figura sortu eta garatuko da. Baliabide mankomun-tua izan liteke, eskola-populazioaren edo ikastetxe kopuruaren arabera.
- » Segregazioaren kontrako itun sozial eta politikoa jorratuko da. Departamentu-artekoa izango den plan horretan Hezkuntza arloak zeresan handia izanen du.
- » Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo (jantokietan, garbiketean...) ratioen jaitziera orokortua egingen da hezkuntzaren kali-tatea hobetzeko, lan zamak arintzeko eta jaiotze tasaren eraginez gerta daitekeen lanpostu galera ekiditeko. LOM-LOEren eraginez, ikasgeletan ikasle kopurua jaitsi ezin bada, ikasgela bakoitzeko irakasle kopurua handituko da "bikote hezitzailearen" irudia bultzatuz.
- » Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea (ikasleak, gurasoak, langile irakasleak, irakasleak...) bermatuko dituzten mekanismoak adostuko dira. Nafarroako Eskola Kontseiluaren osaketa bera aldatzea planteatzen liteke, eta ikastetxeetako Eskola Kontseiluak indartzeko neurriak hartuko dira, zentroen funtzionamenduan hezkuntza ko-munitate osoa proiektuaren parte izan dadin bermatzeko. Horrez gain, herri mailako Udal Hezkuntza Kontseiluak abiaraziko dira, ikastetxe(ar)en ordezkari eta hezkuntza eragile guztiekin batera.
- » Datozen urteotan hezkuntza-inbertsioa handituko da, Europako herrialde aurreratuenek BGP-rekiko egiten duten inbertsio mailara iristeko eta Nafarroako aurrekontuetan daukan pisua handitzeko.
- » Digitalizazioari dagokionez, formazioan eta metodologia berritzaileetan sakonduko da digitalizazio etiko eta ardu-ratsua sustatuz. Ikasleen eskubide digitalak eta pribatutasuna errespetatuz, bitarteko teknologiko berrerabilgarri eta software auditagarria, gardena, libre edota propioak erabiliko dira.

## **2. Ikasleen hizkuntza gaitasunetan aurrera egitea**

**Ikasle euskaldun eleanitzak helburu.**

- » Ikasle guztiek hizkuntza propioetan gutxieneko ezagutza bermatu eta horietarako zehazten den gaitasuna lortzea izanen da helburua. Euskarari dagokionez, ikastetxe guztiek egin beharreko hizkuntza-proiektuan bi maila planteatzen litezke, euskararen gutxieneko ezagutzaren bidez lor daitekeena, eta murgiltze ereduaren baitan lortu beharrekoa. Edozein kasutan, hizkuntza-proiektu guztiek jaso behar-ko lukete horretarako eskaintza eta plangintza zehatza.

- » 0-3 ziklorako eta Lanbide Heziketako Plan Estrategikoetan euskarazko eskaintza planifikatu eta nahikotasuna bermatuko da.
- » Ingurune soziolinguistiko erdaldunagoetan, tokiko erakundeekin batera, Tokiko Eskola Kontseiluen bidez landuko da eskolaz kanpoko eremuetan euskararen presentzia eta erabilera bermatzeko zein sustatzeko espazio eta aukeren nahikotasuna.
- » Hausnarketa sakona abiatuko da tokiko, hezkuntzako eta euskalgintzako eragile guztiekin batera ikastoletan zein D eredu publikoan matrikulazioa sustatzeko formula eraginkorren eta mapa berrantolatzearen inguruan, zonalde diskriminatuari eta kinka larrian egon daitezkeen ikastolei arreta berezia emanaz.
- » Lanketa berezia egingen da hezkuntza prozesuan euskara zailtasun gehigarria izan daitekeela pentsa dezaketen sektoreekin, atzerrian jaiotako herritarren kasuan adibidez. Horretarako Zerbitzu Sozialekin eta bestelako administrazioekin batera abiatuko dira kanpaina bereziak.
- » Hizkuntza-ereduak eta atzerriko hizkuntzak ikasteko programak, PAI, batik bat, Nafarroan segregaziorako faktore garrantzitsua diren neurrian, egoera hau eta egungo ereduaren sistema gainditzeko adostasuna landu behar da. Horretarako, lehenik eta behin, ereduaren eta programen ebaluazio sakona egin behar da eta honen baitan ikasleek derrigorrezko hezkuntza etapak amaitutakoan izan beharko luketen hizkuntza-gaitasunak finkatu.
- » Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari dagokienez, ez da onartu berri den legeak aurreikusten duen eredu berririk sortuko eta hizkuntzen trataera koherente eta orekatua egiteko baliabideak emango zaizkie ikastetxei. Hizkuntza gaitasunen transferentziak modu egokian planifikatu beharko dituzte etapa, ziklo eta ikasmila bakoitzerako, hizkuntza propioen irakaskuntza eta lanketarekin talkarik egin gabe.
- » Hizkuntza-proiektua garatzeko baliabide gehigarriak izanen dira aniztasunaren trataera egokirako, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, atzerrian jaiotakoen kasuan edo-eta epez kanpoko matrikula egiten duten ikasleen kasuan.
- » Batxilergoan, egun, D ereduko ikasleek astean dituzten lau saio lektibo gehiago izatearen anomalia zuzendu egingo da hizkuntza-proiektuetan jasoko den hizkuntzen trataera bateratuaren bidez. Konponbidea, inolaz, ez da izanen euskarari egokitzen zaizkion ordu lektiboen kontura.

### **3. Despopulazioari aurre egiteko, hezkuntza ardatz**

**Landa eremuko eskolak mantentzeko eta zuzpertzeko apustu irmoa.**

- » Demografiaren beharakadaren azterketa sakona egingen da eta datorren hamarkadarako prospekzioa, egoera lurralde orekaren ikuspegitik aztertuz eta suerta daitezkeen desorekak zuzentzeko.
- » Landa eremuko eskolentzako plan estrategikoa eta araudi espezifikoak landuko da, Nafarrorako Lurralde Estrategiaren baitan txertatuko dena. Ekintza positibo eta zuzentzaileak jasoko dira finantzazioan, eskola-konzentrazioentzako barne, ikastetxeetarako baliabideetan eta familien ahalegin ekonomikoa arintzeko esparruetan (materialak, jantokia eta garraioa...) eta irakasleen kontratazioa errazteko.

- » Maisu-maistren hasierako formazioan (beraz NUPen) landa eskolei loturiko ikasgai bat beharrezkoa da, bai eta Nafarroako geografiari eta kulturari buruzko beste bat ere. Praktikaldien zati bat behintzat landa eskolan egiteko beharra.
- » Ratioen malgutzea edo desagertzea. D eredia ezartzeko edo mantentzeko, bereziki, ez da inolako baldintzarik jarriko ratioetan, eskubidea parekatuz eskualde buruetako herriekin. Araudia aldatu egingen da, beraz.
- » Eskolaratze goiztiarra bultzatuko da berariaz eta 0-3 zikloa doakoa izanen da albait lasterren.
- » Tokiko maparen erreformaren garapena ezinbestekoa izanen da, eta marko honetan hezkuntza-eskumenak argitzea eta toki entitateen baliabideak handitzea.
- » Lanbide Heziketako II. Plan Estrategikoa lurralde kohesioari eta tokiko garapenari lotuta egonen da eta datozen urteotan eskualdeetako Zentro Integratuak bultzatuko dira (Baztan-Bidasoa, etab.)

#### **4. Hezkuntza proiektuak eta ikastetxeen autonomia indartzea**

##### **Kalitatezko hezkuntza sistema publiko eta komunitarioa helburu.**

- » Ikastetxeen autonomia izango da sistemaren ardatz eta hori bermatzeko beharrezkoak diren arau-aldaketak egingen dira. Hezkuntza Proiektuaren mesedetan, ikastetxeek Hezkuntza Departamentuarekin adostuko dituzte kontratu-programak. Horien bidez beren hezkuntza inguruneari lotutako programa bereziak, antolakuntzarako neurriak, bai eta proiektu horiei jarraipena emateko irakasle-taldeak egonkortzeko bideak ere.
- » Ikastetxeen autonomian sakontzeak ebaluazio eta jarraipenerako mekanismoak indartzea ere ekarriko du. Ikuskaritza prozesu horretan akonpainamendua egiteko eta laguntza emateko tresna izanen da.
- » Hezkuntza proiektua Hezkuntza Proiektuaren parte garrantzitsua izanen da, eta ikasleen komunikazio gaitasunak, ahozkoak zein idatziak, ulermenean zein adierazpenean, hobetzeko zehar lerro gisa jorratzeko planifikazio zehatza egingen da.
- » Hezkuntza proiektuek laikotasunaren eta hezkidetzaren printzipioak bermatuko dituzte. Digitalizazioak eta berrikuntza programek ere garrantzia berezia izanen dute ikastetxe guztien proiektuetan.
- » Egungo erronkei erantzun ahal izateko irakasleen formazioak garrantzia berezia izanen du. Prestakuntza-ibilbide osoa jasoko duen plangintza oso bat egingen da, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ematen den hasierako formazioetik abiatuta, bai eta Irakasleentzako Laguntza Zentroetan ematen den etengabeko formazioan ere.
- » Eskola-jantokiak espazio hezitzaileak izan daitezzen irizpideak eta beharrezkoak diren baliabideak izanen dira. Elkarbizitzaren, jasangarritasunaren eta osasunaren ikuspegitik landuko da ikastetxeen.
- » Hezkuntza proiektuak sendotzeko irakasleen egonkortasuna gakoetako bat izanen da eta beharrezkoak diren neurriak hartuko dira hori sustatzeko.
- » Langile ez irakasle guztien lanaren aitortza egin hezkuntzako langile gisa, erabakiguneetan parte hartzeko bideak bermatu, etengabeko formazioarako aukera eman, lanpostuak egonkortu, lan baldintzak duindu eta azpikontratatuak zerbitzuak administraziora lehenatu.

## Hezkuntza ituna lantzeko prozesua. Proposamena

Sarreran aipatu dugu Nafarroan momentu honetan ez dagoela hezkuntza itun sozial eta politikoa egiteko EAEn izan den baldintzarik. Edozein kasutan, uste dugu berandu baino lehen heldu behar zaiola prozesu honi eta EH Bilduk baduela proposamen zehatza egiteko ardura politikoa eta gaitasuna. Horretarako ezinbesteko lanabesa eta erreferentzia izanen da Hezigune proposamena eta Gasteizko Parlamentuan adostutako Ituna.

Esan bezala, Nafarroako Eskola Kontseiluak ekin dio bideri, baina abiapuntua eta prozedura bera oso mugatuak dira hausnarketa sakona egin ahal izateko. Geure ustez, emankorra izanen bada, bide honek parte hartze zabala bermatu beharko luke.

1. Lehenik eta behin, hezkuntza komunitateko eragileekin diagnostiko konpartitua egin behar da. Hartara, Eskola Kontseiluaren eta Hezkuntza Departamentuaren ekarpena ezinbestekoa izanen da.
2. Nafarroako Parlamentuan Batzorde Berezia irekitzea 2023ko martxora bitartean. Bertan hezkuntza komunitatearen eta eragile guztien ekarpenak jasoko lirateke diagnostikoa osatzeko eta itunerako oinarriak ezartzeko. Adituen ekarpenek eta Nafarroatik kanpoko esperientziei garrantzia berezia emanen zaie. Hezkuntza Departamentuarekin eta langileen ordezkari diren sindikatuekin lankidetzara ere bermatuko da.
3. 2023-2024 ikasturtean Batzorde Berezi horretatik ateratako ondorio eta proposamenak oinarri hartuta, Hezkuntza Itun Sozial eta Politikoan egikarrituko lirateke. Prozesu horretarako etengabeko hartu-emana izanen du talde parlamentarioek osatutako batzordeak Hezkuntza Departamentuarekin zein hezkuntza komunitatearekin.
4. Azkenik, itun hori Nafarroako Hezkuntza Legean zehaztu beharko litzateke, 2024-2025 ikasturtean onartu beharko litzatekeena.

## 4. Amaia

---

Dokumentu honetan hurbilpen bat egin nahi izan dugu “Euskal Hezkuntza sistema publiko burujabea” Nafarroan lurre-ratzeko oinarriak jartze aldera. EAEn adostutako Hezkuntza Hitzarmenaren bidetik, Nafarroa Garaian ere baldintzak sortzea dugu helburu, nahiz eta hainbat arlotan zailtasun handiagoak izan. Hala ere, ortze muga argi batekin proposa-men egingarria egiten saiatu gara, epe labur eta ertainean gauza litekeena.

Agerikoa da egoeraren azterketa dela dokumentu osoan tarte handiena hartzen duen atala. Berariaz egin dugu, abia-puntua ezagutzeko ezinbestekoa baita. Proposamenaren atala xeheago garatzeko aukera izanen dugu aurrerantzean ere, oinarriak argi baditugu eta horiek geure komunitatearekin batera adosten baditugu. Horixe da, beraz, dokumentuaren xedea: geure hezkuntza-sistemaren azterketa egitea eta proposamen egingarria egiteko oinarriak jartzea. Hausnarketa-rako eta eztabaidarako dokumentua da honakoa, hobetzeko eta osatzeko asmoz jartzen duguna zuen esku.

Oharra:

Emandako datuak iturri ofizialetatik jasotakoak dira eta bertan aurki daitezke:

- » NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUA.
  - Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostena. 2020-21 ikasturtea.  
<https://drive.google.com/file/d/1V0JsOQEhrqAybK1IP9Q041CTKBfpqFVQ/view>
  - HEZKUNTZA SISTEMAREN ADIERAZLE MAPA. TXOSTEN EXEKUTIBOA. Txosten exekutiboa (navarra.es)
- » COMPTOS GANBERA.
  - Nafarroako kontu orokorrak, 2020 | Nafarroako Kontuen Ganbera (navarra.es)
  - Funts publikoekin finantzaturako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ezunibertsitarioari buruzko fiskaliza-zio-txostena (2012-2016) KontuenTxostena1813.pdf (navarra.es)
- » HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN WEB ATARIA. Hasiera - Dpto - Educación (navarra.es)
- » NAFARROAKO ESTADISTIKA ERAKUNDEA. Instituto de estadística - navarra.es
- » NAFARROAKO ERRELITATE SOZIALAREN BEHATOKIA. Centro de documentación, Observatorio de la Realidad Social de Navarra (observatoriorealidadsocial.es)

## IV. Azken hitza

---

Bada garaia urrats historiko berri bat emateko. Esperientzia asko metatu da azken hamarraldi luzeetan, bada nondik ikasi, nondik jaso. Eta gogoia antzematen da hezkuntza komunitatean panorama astindu eta bide berriei ekiteko. Proposamen honekin, EH Bildu, hezkuntza komunitateko kide askoren gogo-bihotzetan sumatzen dugun aldaketa desirari forma eta edukia ematen saiatu da, hain beharrezkoa dugun eraldaketari zentzua eta norabidea eskaini nahian. Hala, euskal hezkuntzaren eraikuntzaren prozesu historikoan fase berri bat irekitzea dugu helburu, trantsizio luze baterako oinarri berriak jartzea.

Finlandia, Danimarka, Estonia edo Suediako hezkuntza sistemak erreferentziatzat hartuz, herri honek baditu aukerak eta gaitasun nahikoa hezkuntza sistema publiko burujabe bat antolatzen hasteko, honako ezaugarri nagusiak bilduko lituzkeena: Publikoa (Barne Produktu Gordinaren %6ko gastu publikoarekin), deszentralizatua eta ikastetxeen autonomia ardatz izango lukeena. Hamarkada hau egungo agorpen egoeratik sistema publiko burujabe bateranzko trantsizioa antolatu eta gauzatzen hasteko garaia izan behar da. Helburu horrekin egiten dugu Euskal Autonomia Erkidegorako Hezigune sare publiko bateratuaren proposamena, hain zuzen ere. Proposamen honi jarraiki etorri beharko du datozen hilabeteetan Nafarroa Garairako bide-orri zehatza, bertako errealitatek abiaturikoa.

Ahalegin horrek akordio sozial eta politiko handi bat eskatzen du halaberharrez, behetik gorakoa. Irakasleriaren, hezkuntza eragileen, sindikatuen, ikasle mugimenduaren eta udalen sostengua eta bultzada beharko luke halako jauzi historiko batek. EH Bilduk konpromisoa hartzen du beharrezko kontsentsu instituzionalak erdiesteko bere esku dagoen guztia egiteko. Ardura historikoz jokatu dugu, herri interesak alderdi interesen gaineratik jarritz, beti.

Hain zuzen ere, EH Bildu eragile aktiboa izango da Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabearen alde instituzio eta erakundeetatik ere eragiteko garaian. Udaletan, mankomunitateetan, batzar nagusietan, legebiltzarretan, eskola kontseiluetan, edota EH Bilduk parte hartzeko aukera duen bestelako guneetan, Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabea ipar izango dituzten ekimenak babestu eta garatuko ditugu.

Bide eder honetan bidelagun izango zaitugulakoan, agur bero bat bilkide!



**ehbildu**